



2011-07-04  
ASTELEHENA  
328. ZENBAKIA  
7. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



**"Artearekiko kultura beharrezkoa da lanak ulertzeko: faltan botatzen dut"**

**Lezuri Ormazabal** | Diseinugilea | 33

Jorge Montenegro argentinarra nagusi Leintz Gatzagako proban | 22



Elgetakoak gustura aurtengo jaiek eman dutenarekin | 13



Jende ugari eraman zuen Aramaiora Zea Mays taldearen kontzertuak | 29



**Eskerrik asko!**

Goienak jaso du Rikardo Arregi kazetaritza sarietan sari nagusia; hedabide multimedia izatea nabarmendu dute | 2

Inazio Arregi eta Eneko Azkarate Goienako arduradunak saria jasotzen, zapatuan Andoainen.

JOSETXO ARANTZABAL



Oihana Kortazar. | IMANOL GALLEGO

## Oihana Kortazar elgetarra, Espainiako txapeldun

Bolada onari jarraipena eman dio Kortazarrek asteburuan Lleidán jokaturako txapelketan; eguraldiaren ondorioz antolatzaileek moztu egin zuten ibilbidea, baina Elgetakoari ez zion eragin, aurten erakutsi baitu distantzia guztietan moldatzen dela ondo, kontrarioz ez duela. | 26

### Debagoieneko hiru lagun, Gipuzkoan diputatu

Larraitz Ugarte eta Ander Rodriguez, Garitanorekin | 4

### Udaletxean hartuko dituzte Jaurlaritzarako agiriak

Eskoriatzako Udalak hitzarmena sinatu du Lakuarekin | 19

### Ezin izan du Aitor Mendizabalek Elgetako txapela jantzita agurtu afizionatu mailako ibilia

| 24

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!

ASTE BURURAKO PLANIK BAI ?

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPASIO DE LA CIENCIA

TXURI-URDIN  
Donostia

DOÑOSTIA - SAN SEBASTIAN  
**DOVARIVM**

**Txartela, beti aldean**

► Zoaz 21 orrialdera

# Goienak jaso du aurtengo Rikardo Arregi Sari Nagusia

- ▶ Hedabide multimedia izatea nabarmendu dute
- ▶ Ignazio Arregik Ohorezko Aipamena jaso du

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE  
"Kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna" izan dira Sari Nagusia erabakitzerakoan epaimahaiak hartutako irizpideak. Hamar urteko ibilbidea da Rikardo Arregi Sari Nagusiarekin nabarmendu gura izan dutena baina, bereziki, Goienak iazko urritik aurrera sarea ardatz hartu eta hedabide multimedia integral moduan "hezurmamitu eta Interneteko webgunea berritu eta egokitzeko" ekimena saritu dute. Euskarazko kazetaritzako sari nagusiak dira Rikardo Arregi sariak, aurtengoa XXIII. edizioa, eta kalitatea -bai "edukietan zein "diseinu eta estetikan"- eta berrikuntza -kazetari guztiak Sarea

ardatz hartuta multimediar jarduerekin-, biak, izan dira epaimahaiak behin eta berriz erabilitako hitzak.

**Ignazio Arregiri ohore**  
Etxera etorritako sari bakarra, ordea, ez zen Sari Nagusia izan, Ohorezko Aipamena Inazio Arregi kazetari oñatiarrak jaso baitzuen zapatuko ekitaldian. Euskal irratigintzaren aitzindari izatea aitortu diote Arregiri (Oñati, 1931). Euskal irratia esatea Loiola Herri Irratia esatea zen garaian jardun zuen lanean Ignazio Arregik, 1965 urtean esataritzan eta 1982ra arte, azken lau urtetan, zuzendari moduan. Haiek "euskarazko irratigintzaren zuzia

bizirik mantentzeko hil edo biziko urteak" izan zirela aipatuz, azpimarratu dute era guztietako kazetaritza egiten zela euskaraz. Loiola Herri Irratia eta gero, 1985 urtera bitartean, "Euskal Irratia, Radiodifusión Vasca" Sozietate Anonimo Publikoaren administratzaile eta zuzendari izan zen, hortik etorritako Euskadi Irratiaren oinarriak finkatu zituelarik. Saria jasotzerakoan hunkituta zegoela erakutsi eta "lotsatuta" zegoela ere esan zuen zapatuan Arregik, "kulturako hain izen garrantzitsuen artean" aurkitzen zelako -parez pare zeukan Bernardo Atxaga, esate baterako - eta esker-hitzaldi laburra aprobetxatu zuen gogorazteko



Rikardo Arregi sariketan saritutako guztiak. | JOSETXO ARANTZABAL

## ESANAK

**"Kultura eta hezkuntza dira egiazko garapeneren giltzak"**

INAZIO ARREGI | OHOREZKO AIPAMENA

**"Kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna izan dira irizpideak"**

PATXI BAZTARRIKA | MAHAIBURUA

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

**K**omunikazioaren oraina eta etorkizuna Interneten dago, eta Goiena Komunikazio Taldeak ere apustu sendoa egin du horren alde. *Goiena.net* ataria 2003ko abenduan sortu zuen, baina iazko azaroan hartu zuen atariak benetako protagonismoa, itxura aldatuta eta, batez ere, eduki eta erabilgarritasun aldetik guztiz aberastuta aurkeztu zen-eta: herriak eta gaika sailkatutako albisteak, *Goiena.net*-eko blogak nabarmenduta, Arrasate Irratia eta Goiena telebista ikus-entzuteko aukera, Goienaren kolaboratzaileen iritziak irakurtzeko aukera... Azken hilabeteotan, protagonismo berezia eman zaie argazki galeriei eta bideoei, eta orain leku nabarmena dute, euren zutabe propioan; eta, bestetik, Twitter komunikazio-sarera jauzi egin du Goienak, jorritzen duen arlo bakoitzerako kazetari batek Twitter kontu bat daukalako eta horko titularrak eta albisteak *tuiteatzen* dituelako. Bada, tuit-ek euren leihoa dute *Goiena.net*-en: Goienako kazetariak zer txiokatzen duten irakur daiteke, eta, laster, Debagoieneko eta Debagoienaren inguruko beste *twitterlari* batzuen jardunak ere agertuko dira.

Internet apustu estrategikoa da Goienarendako: "Sarea da muina, eta *Goiena.net* da lehentasuna Goienan. Izan ere, sarea da oraina eta, batez ere, etorkizuna. Beste euskarri batzuen artean indarra hartuko du aurrerantzean, eta hala da Goienan ere", dio Goienako ikus-entzunezkoen zuzendari Iban Arantzabalek.

Hala, Goienaren informazio euskarri guztiek Interneten dute konbergentzia eta ardatza.

# 'Goiena.net'-en arrakasta, euskaldun guztion arrakasta

The screenshot shows the Goiena.net website interface. At the top, there's a navigation bar with categories like 'Ekonomia', 'Hauteskundeak', 'Hezkuntza', 'Kirolak', 'Kultura', 'Osasuna', and 'Teknologia berriak'. Below this, there are several news articles with images and titles. One prominent article is titled 'Larraitz Ugarte oñatiarra eta Ander Rodriguez arrasatearra Martin Garitanoren gobernuan'. Another article is 'Sanpedroetako bideoak Brindisa'. There's also a video player showing a person speaking. The website has a clean, professional layout with a red and white color scheme.

Albiste gertatu eta segituan dago *Goiena.net*-en. | GOIENA

## Aurten, errekorra

*Goiena.net*-ek eten barik egin du gora azken urteotan. CIESeK ez du neurtzen *Goiena.net*-en erabiltzaile kopurua, baina Google Analytics-en arabera, egunero, batez beste, 2.500 erabiltzaile zituen iaz.

Baina 2011. urtea da, duda barik, *Goiena.net*-en urtea. Google Analytics-en datuek diote aurtengo urtariletik maiatzera %31,6 handitu dela bere erabiltzaile kopurua 2010eko epe berarekiko, eta %31,4, orrialde bisitatuen kopurua. 2009. urtearekiko bikoiztu egin da erabiltzaile kopurua, eta %57,1 handitu da orrialde bisitatuena. Iazko maiatzetik aurtengora bitartean, %39 erabiltzaile gehiago ditu *Goiena.net*-ek. Horrenbestez, aurtengo maiatzeko datuen arabera, batez beste 4.000 erabiltzaile ditu egunero, eta 17.500 orrialde ikusten dira egunero.

Atariaren mugari handienak ere aurten izan dira: maiatzaren 23a, udal hauteskundearen biharamuna, izan zen *Goiena.net*-en bisitari eta orrialde bisitatuen inoizko errekorra: 41.410 orrialde bisitatu ziren eta 7.425 bisitari izan zituen. Beste egun hauetan ere bisita asko izan zituen *Goiena.net*-ek: Korrika (apirilak 14): 5.205 bisitari, 37.140 orri; Mundumiraren biharamuna (maiatzak 30): 4.668 bisitari, 22.893 orri; edo udal hauteskundearen eguna (maiatzak 22): 4.624 bisitari, 28.309 orri.

## Argazkiak eta bideoak

Arrakasta handiena duten sailen artean, argazki galeriak eta bideoak daude. Berezi garrantzitsuak edo jendetsuak diren ekintza, jai, gertaera edo albisteak iruditan ikusteko aukera dute erabiltzaileek.



Ignazio Arregi, esker-hitzaldia. | J.A.

"krisiek erakutsi dutela jakinduriari, kulturari eta hezkuntzari lehentasun osoa emanez erantzun behar" zaiola, "egiazko garapeneren giltza" baitira horiek.

Berekin batera eta "euskarazko kazetaritza modernoaren zutoinen eraikitzaile eta bide berrien bilatzaile" izateagatik Miren Jone Azurtzari (Donostia, 1933) ere eman zioten Ohorezko Aipamena. Zeruko Argia aldizkariari "arnas

berria" eman eta sustatzaile eta zuzendari izanagatik saritu dute Izurtza. Gaur egungo kazetaritza lanak saritzen dira baina eta, horrela, Kazetari Berria saileko saria Igone Fernandezek eskuratu du Gaztezulo aldizkarian argitaratutako elkarrizketa eta erreportajeengatik. Epaimahaiak, gainera, aurten sari berezia eman du; Berriako Ainhoa Oiartzabalentzat izan da, *Nork hil zuen*

*Begoña Urroz?* ikerketa erreportajearengatik. Azkenik Aitormen berezia Erlea aldizkariari egin dio epaimahaiak, "euskal literaturaren leiho" izan eta idazleak idaztera animatzeagatik.

#### Xabier Lete gogoa

Andoaingo Bastero kulturgunean egin zen ekitaldia zapatuan eta sariez gain Xabier Leteren memoria eta hari eginiko gorazarreak

bete zuen aretoa. Haren hitzak gogorarazi eta abestiak Antton Valverde kantatuta, goi mailako poeta, abeslari eta gizon konprometituari egin zitzaion omenaldia.

Eusko Jaurlaritzak eta Andoaingo Udalak ematen dituzte sariak urtero eta bi erakundeen ordezkari, ekitaldian izan ziren Blanca Urgell Kultura Sailburua eta Ana Carrere, Andoaingo alka-

tea. Epaimahaia Alazne Aiestaran, Allande Boutin, Odile Kruzeta, Joxe Rojas eta Arantza Urretabizkaiek osatu dute. Mahaiburua Estanislao Amutxastegi Andoaingo alkate ohia izan da eta idazkaria Patxi Baztarrika. Eguneroko bizitzan hedabideek duten indarra aipatu zuten behin eta berriz ekitaldian eta euskarazko kalitatezko kazetaritzak horretan duen garrantzia.

Argazkiak *Goiena.net*-en bertan edo Flickr webgune potentearen bitartez erakusten dira. Azkenaldian bisita asko izan dituzten galerien artean hauek daude: Mundumira jaiko galeriak (denetara, ia 15.000 bisita), Oñatiko Corpus prozesioa (6.300 baino gehiago), hauteskunde gaueko ospakizunena (5.600) edo hauteskunde eguneko (5.200).

#### Twitterren bidez

Horrekin batera, Interneten berehalakotasuna, albistea gertatu eta momentuan jendeari helarazteko ematen duen aukera bete-betean aprobetxatzen da. Hala, dagoeneko zenbait gertaera zuzenean kubritu ditu Goienak: Goienaren 10. urteurrena, esaterako. Eta helburu horretarako, orain Twitter tresnaz ere

baliatzen dira Goienako kazetariak. Horrekin eman zuten Gipuzkoako Batzar Nagusien eraketaren berri, adibidez.

Goienako edukiak herrikeri eta gairik gai (ekonomia, hezkuntza, kirola, kultura, osasuna eta teknologia berriak) banatuta daude, eta sail bakoitzeko arduradunak albisteak eta beste berri batzuk Twitterrean botatzen ditu.

#### Herritarren alde

*Goiena.net*-en aldeko apustua erabiltzaileen, herritarren aldeko

apustua ere bada. Hala, *Goiena.net*-en edozeinek sor dezake erabiltzaile profila, parte hartzeko; edo Twitter edo Facebook kontuak *Goiena.net*-ekin lotu ditzakete, eta haien bidez sartu *Goiena.net*-era. Hainbat sail herritarrek eurek elikatu ditzakete orain: zori on gurak, jaioberriak, agenda eta sailkatuak. Herritarrendako informazio praktikoak ere presentzia handiagoa du, egunero berritzen den agendarekin. Debagoieneko ekitaldien berri ematen du horrek.

Goienako kolaboratzaile batek eguneroko webcam bidez ematen du iritzia berak aukeratutako gai baten inguruan; eta blog gehiago zein Goiena aldizkariak jasotzen dituen iritzi-kolaborazioak irakurtzeko aukera hobea ematen du Goienaren Interneteko atariak.

Indartu egin da ere Goiena telebistak hartzen duen lekua *Goiena.net*-en. Hala, telebistak bere atala dauka, atal preferentziala, gainera, eta han, hainbat gauza egin daitezke: Goiena telebista zuzenean ikusi; Goienak azken egunotan eta asteotan eman dituen tarte edo bideo interesgarrienak berriz ikusi daitezke; eta Goiena telebistaren programazioaren berri jaso ere bai. Azkenik, norberak bere bideoa Goienari bidaltzeko aukera du *Goiena.net* erabilia.



Andoainera sari banaketara joandako Goienako lantaldea. | GOIENA

**DATUAK**  
**4.000**  
ERABILTZAILE

Aurtengo maiatzeko datuak dira: *Goiena.net*-ek, batez beste, 4.000 erabiltzaile ditu egunero.

**41.410**  
ORRIALDE

Hauteskundearen bihamunearan, 41.410 orrialde ikusi zituzten *Goiena.net*-en erabiltzaileek.

#### CC lizentzia dauka

*Goiena.net*-en arrakasta, azken baten, euskaldunon arrakasta ere bada, eta Goienaren eginkizun nagusian, euskara sustatzean eta bere egoera normaltzean, zeresan handia izango du Internetek.

Iban Arantzabalen hitzek adierazten duten moduan: "Islandiarra da teknologikoki ondoen prestatua dagoen hizkuntza, euskara bera baino txikiagoa eta, akaso, bihurriagoa. Tamainak ez du ezer erabakitzen hala ere, eraginkorrak egiten du aurrera eta euskarak egingo du. Aukeraz betetako bidea ireki zaigu Sarean, eta gure apustua ahalik eta euskaldun gehienon estrategia izan beharko lukeenari dago lotua: euskaraz sortzeari eta

hedatzeari. Horregatik, besteak beste, *Goiena.net*-en barren-barrenean irakurri zenezaketen lizentzia: Creative Commons Aitortu-Partekatua. Lizentzia hau jarri dugu euskara gura dugulako agerikoago egin, gure edukiak Erabilpen Kultural Liberako Baimendu". Hortaz, *Goiena.net*-eko edukiak konpartitu egin daitezke, jatorria eta jabetza aitortuta.

Arantzabalek honakoa gaineratzen du: "Euskara agerikoago egiten ere lagundu digu Rikardo Arregi sariak, eta eskerrik asko Goienari egin dizuen aitorenagatik. Saria zuekin partekatzea baino ez zaigu geratzen". Eta bukatzeko: "Eskerrik asko euskaldunon komunitate guztiari".



Gipuzkoako foru gobernu berria; Ikerne Badiola falta da. | EDU MENDIBIL

## Garitanoren gobernuak: "Parekidea, euskalduna, irekia, gardena eta gaztea"

Beste bi diputatu Debagoiendar ditu:  
Larraitz Ugarte eta Ander Rodriguez

IRATI GOITIA | ARRASATE

Egubakoitzean aurkeztu zuen Martin Garitano ahaldu nagusiak bere gobernu eratu berria, Foru Aldundiaren egoitzan. Zortzi diputatu ditu gobernu berriak, tartean hiru debagoiendar daude: Martin Garitano bergararrak gain, Larraitz Ugarte oñatiarra eta Ander Rodriguez arrasatearra izango dira Aldundiko taldean. Ugarte Mugikortasun eta Bide Azpiegitura diputatua izango da eta Rodriguez Gizarte Politika-koa.

Martin Garitano buru duen Gipuzkoako Diputazioako gainontzeko kideak honako hauek dira: Juan Carlos Alduntzin izango da Ingurumen eta Lurralde Antolaketara diputatua; Ikerne Badiola Gazteria, Kultura eta Kiroletakoa; Helena Franco Ogasun eta Finantzetakoa; Jon Uriguren Berrikun-

tza, Landa Garapen eta Turismo-koa; eta, Garbiñe Errekondo Foru Administrazio eta Funtzio Publikoak. Garitanok bere ardurapean izango ditu lau zuzendaritza, gobernuarentzat "zeharkakoak" diren arloak: Euskara, Migrazioa, Berdintasuna eta Parte Hartzea.

Garitanoren gobernuak zortzi sail izango ditu, Markel Olanorenak baino hiru gutxiago (11 zituen).

**"Esperientzia handiko" kideak** Aurkezpenean Garitanok nabarmendu zuen begi-bistakoa dela gobernu berria "parekidea, euskalduna, irekia, gardena eta gipuzkoarren parte-hartzea bermatuko duena" izango dela. Diputatu berrien profilak ere azpimarratzekoak direla esan zuen: "Gobernu gaztea da, 30 eta 48 urte

artekoa, baina teknikoki aski prestatuta dagoena eta esperientzia handikoa". Gaineratu zuen, gipuzkoarrek agindutako egitasmoa "ondo baino hobeto" aterako dutela aurrera eta bake eta normalizazio politikoarekin duten konpromisoa berretsi zuen. Horren harira, alderdi eta udal guztiekin lan egiteko prest agertu zen.

### Kritikak EAJ eta PSE-EEtik

Batzar Nagusietako EAJko taldeak kezka azaldu du Bilduk ez duela eratu enpresei laguntzeko "sail zehatz" bat. Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo departamendu bakarria izango dela jakinda, esan du: "Izugarrizko aukera galdu da lana eta aberastasuna sortzeko, Gipuzkoako lehiakortasuna bultzatuko duen sail zehatz bat ez sortzean". "Talde berriaren sentsibilitate faltaren aurrean", EAJk bere gain hartu du "enpresen alde lan egiteko ardura".

Rafaela Romero Batzar Nagusietako PSE-EEko bozeramaileak eskatu dio ahaldu nagusiari, Gipuzkoako jendartearen "pluraltasuna" aintzat hartuta goberna dezala. Bestalde, gobernu berria "ahula" dela esan du eta "benetan garrantzitsua gobernu programa" dela eta ez pertsonak.



EDU MENDIBIL

**LARRAITZ UGARTE**  
MUGIKORTASUN DIPUTATUA

"Makroproiektuen gainetik, herritarren eguneroko bizitza hobetzeko bideak bilatu behar dira"

### Nola hartu duzu izendapena?

Ardura politiko eta ilusio handiarekin hartu dut, baita beldur pixka batekin ere, baina batez ere lan egiteko gogo askorekin. Erronka pertsonal bat da eta baita herri honetako erronka. Izan ere, lehenengoz dugu gobernu subiranista eta ezkertiar bat Gipuzkoako Diputazioan. Bilduren emaitzak izugarriak izan dira, eta gipuzkoarren esperantza guztiei erantzuteko garaia da: bai Gipuzkoako eguneroko kudeaketari dagokionez eta baita herri honen normalizazio politikoari dagokionez ere.

### Pisu handiko departamendua hartu duzu.

Bai, Gipuzkoak eskuduntzak ditu arlo honetan eta lan ugari dago egiteko. Bildun beti esan dugu ez dugula izugarriko azpiegiturarik nahi, erronka ez dela makroproiektuak egitea eta dirutzak gastatzea horietan, baizik herritarren eguneroko bizitza hobetzeko mekanismoak bilatzea.

### Gure bailara dagokionez, zerbait aurreratu dezakezu?

Oraindik goiz da ezer aurreratzeko, baina Deskargako proiektua oraindik egiteko dago. Nik uste dut oso garrantzitsua dela gobernu honek bailarako hiru kide izatea, horrek onurak ekarriko dizkio gure bailarari.



GOIENA

**ANDER RODRIGUEZ**  
GIZARTE POLITIKAKO DIPUTATUA

"Gipuzkoarren ongizatea bermatzea izango da gure lan ildoak, krisian egonda ere"

### Nola hartu duzu izendapena?

Duela aste batzuk hasi ginen gobernuaren diseinuarekin eta Alternatibak bere gain hartu zuen Gizarte Politikaren Saila. Aukeren artean nire izena zegoen, eta, azkenean, Alternatibak erabaki zuen ni hor kokatzea. Arduraz eta pozik hartu dut erabaki hori, lan egiteko gogo handiarekin.

### Krisi garaian, hartu duzun ardura ez da makala.

Krisi garaian egon edo ez, gure egiteko gipuzkoarren ongizatea bermatzea izan behar da. Hain zuzen, arlo honetan, Gipuzkoak hiru erronka dituela esango nuke: lehena, gipuzkoarren ongizatea bermatzea, esan bezala; bigarrena, pobrezia murrizketa; eta, hirugarrena, gizarte zerbitzuen lege berria garatzea -Autonomia Erkidego guztira aplikagarria-.

### Zein izango da zuen ildoak?

Gure ustez, gobernu hau herritarrei eta herriei begira egon behar da. Horrek esan nahi du herriei eta herritarrei begira diseinatuko ditugula beharrezko inbertsioak.

### Ba al da lehenetsia eman nahi diozun proiekturen bat?

Goiz da oraindik proiektuen inguruan jarduteko, baina lehen aipatu ditudan hiru lerro nagusi horiek hartuko ditugu oinarri lan egiterako orduan.

## Fan Hemendik! egunean jaia eta salaketa

Jaia eta salaketa uztartu zituzten zapatuan Oñatin, *Fan Hemendik!* egunean. Eguna trikipoteoarekin hasi zuten eta ondoren bazkaria izan zuten azokan; jende ugari elkartu zen. Arratsaldeko 18:00etan manifestazioa egin zuten *Fan hemendik, utzi bakean Oñati* lelopean. Manifestazioa amaitu ostean, kontzertuak izan ziren plazako pilotalekuan: Berri Tzaarrak; Reaccion 912; Intraba; D-pintxos; eta, azkenik, Miren, Agur eta Gorkak girotu zuten gaua.



JOSETXO ARANTZABAL


# Energiari jarri dute martxan, energia berriztagarriak sustatzeko

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak proiektu horretan parte hartuko du

J.JIRIONDO/M.BITERI | ARRASATE

Gipuzkoan eskala txikiko azpiegiturekin energia berriztagarria sortzea helburu duen Energiari proiektua aurkeztu dute egunotan. Kutxa Ekoguneak eta Ennera enpresek jarri dute martxan, eta, horren bidez, bereziki xafla fotovoltaikoekin baina baita haize-errota txikiekin 60 instalazio inguru egingo dituzte datozen bi urteotan. Debagoiengan, Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak parte hartuko du proiektu horretan.

Hain justu, xaflak edo haize-errotak jartzeko adinako sabai edo lursail egokia duten partikular, enpresa edo erakundeek egin ahal izango dute eskaera, instalazioa kosturik gabe egingo diete, eta han sortutako argindarra sarera joango da; partikular, enpresa edo eraikin publiko horrek saretik, ohi bezala kontsumituko du gero argindarra. Azken horren



Energiari proiektuaren aurkezpena. | JULEN IRIIONDO

harira, Ennerako arduradun Agustín Iturriotzek aipatu du epe laburrera posible izan daitekeela norberak sortutako energia zuzenean kontsumitzea eta horrek argindar fakturan aurrezteara

gitea. Honakoa esan du Iturriotzek: "Gure belaunaldiak bere esku ditu beharrezko baliabideak eta teknologia bere bizi-kalitatea era iraunkorrean areagotzeko, kontsumitzen dugun energia sortuta.

Errealitate horretatik urruntzen gaituena gizabanako gisa dugun borondatea da, baita ere apustu ausartagorik eza erakundeen aldetik".

## Errosteko aukera

Bestalde, Energiarorekin hitzarmena egiten duenak aukera izango du azpiegiturekin lehenengo urteotan ematen dituen datuak ezagutu eta nahi badu, baldintza berezietan, hori errosteko, argindar salmentatik eratorritako irabazien jabe eginaz.

Besteak beste, kanpotik ekarritako energiarekiko eta erregai fosilekiko menpekotasuna gutxitzeko balio dezakete mota honetako ekimenek. Hala aipatu du Mikel Insausti Kutxa Ekoguneko zuzendariak. Gaineratu du Europak jarritako betebeharrak dela 2020rako kontsumitzen den energiaren %20 berriztagarriekin sortua izatea, eta egun Gipuzkoan %6 baino ez dela. Horren harira, honakoa esan du: "Proiektu honekin eta beste batzuekin gure energia-premiak orekatzea lortzen badugu energia berriztagarri gehiago sortuta, uste sendoa dut lortuko ditugula Europako helmugak, baita gaintu ere 10 urteko epean".

# Ulmak 3.000 boligrafotik gora batu ditu Nikaraguarako

M.B. | OÑATI


Ulma Taldeak, bere fundazioaren bidez, *Baietz 1.000 boligrafo!* kanpaina antolatu du *Eta guk zergatik ez* hezkuntza proiektuaren alde. Denera, 3.000 boligrafotik gora bilduta, "arrakastatsutat" jo du kanpaina, helburua 1.000 jasotzea zen-eta.

## Hilabetez

Hilabete iraun du ekimenak; hain justu ere, maiatzaren 25etik ekainaren 24ra bitartean. Epe horretan, Ulma Taldeko bazkide nahiz langileek, Oñatiko ikastetxeetako bezala, negozioetan jarritako "hezkuntzaren aldeko itsulapikoetan" boligrafoak uzteko aukera izan dute. Fundazioak Nikaraguako ikastetxe batera bidaliko ditu jasotako boligrafoak.

## IRABAZLEAK

Karmele Igartua poetaren azken liburua



- Eukene Mondragon Arregi (Arrasate)
- Gema Zabala Suinaga (Aretxabaleta)
- Iñaki Iturbe Beldarrain (Bergara)
- Arantxa Egibar Arieta-Araunabeña (Bergara)
- Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)
- Itziar Usandizaga Galarraga (Bergara)

goienakluba<sup>4</sup>  
Abantailaz betetako kluba!

ZORIONAK,  
GUZTIOI!

Iñaki Bikuña | Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria

# "Europar oinarritzko eskubidea da datu pertsonalen babesa"

Datuak Babesteko Bulegoak 'www.kontuzdatos.com' ataria zabaldu du informazioa eskaintzeko



Iñaki Bikuña Bergarako UNEDn izan zen joan den astean. | NOTICIASDENAVARRA

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

UNED-Bergarako Udako Ikastaroetan izan zen Bikuña, *La protección de datos. Un reto para la sociedad* ikastaroa eskaintzen. Datuak babesteko bulegoan urtean informazioa eskatzeko 1.000 dei baino gehiago izaten dituztela dio Bikuñak.

## Zeintzuk dira erronka nagusiak?

Erronka asko daude, baina nabarmentzeko erronka da globalizazioak sortutakoa. Hainbat herrialdetan hartzen diren neurri juridikoek ez dute ezertarako balio nazioarte mailan

adostasunik ez baldin badago. Mundu mailan, Europar eta Kanadan bakarrik da datu pertsonalen babesa oinarritzko eskubidea. Beste herrialde oso garatu batzuetan, teknologia maila garatuak dituztenetan, ez dute babes hori.

## Nola eragin dute teknologia berriek datu pertsonalengan?

Eragin zuzena izan dute. Izan ere, teknologia berriek datu pertsonalen analisia eta tratamendua ahalbidertzen dute. Horrek, baina, munduan gertatzen ari dena islatzen du. Boterea ez dago Estatuarengan,

lehen bezala; boterea oso zabaldua dago eta sektore publikoan, pribatuan... dago. Sare sozialek, Facebook-ek esaterako, 750 milioi bezero ditu. Sektore horiek datu pertsonalak tratatzen dituzte. Erabiltzaileak uste du bezeroa dela eta, gainera, produktua doan dela; baina ez da bezeroa, baizik eta komertzioaren objektua da. Hala, datu pertsonalak tratatzen dituzten enpresak daude.

**Datu pertsonalen babesaren eskubideak urratu egiten dira gurean?** Europar pribilegiatuak gara gainerako herrialdeekin alde-

ratuta. Europar oinarritzko eskubidea da, eta esan behar da legeak onak direla. Horregatik Europar optimistak izan behar dugu.

Baina erabiltzaileak kontuan izan behar du Interneten egiten dituen gauza asko ez direla

## "Pribatutasunean, nazioarteko akordioak beharrezkoak dira"

Europa tratatzen -adibidez, AEB, Korea, Japonia...- Horregatik diot oinarritzko izango litzatekeela pribatutasunaren gainean oinarritzko akordioak hartzea.

## Herritarrok badakigu zeintzuk diren gure eskubideak?

Datuak babesteko eskubidea oinarritzko eskubidea berri bat da, eta baita teknologiak eurak ere. Horregatik, herritarrek ez dute ondo ezagutzen legea, ezta eskubideak zeintzuk diren ere; gainera, datuen babesa bermatzeko dauden instituzioak ere ez dira ezagunak. Horrelako kurtsoen bitartez gure lana ezagutzera eman eta herritarrek dituzten eskubideak zeintzuk diren ezagutaraztea gura dugu.

70eko hamarkadan ikusten zen zer etor zitekeen, baina oraindik ez zen ezagutzen egungo moduko ordenagailurik. Europar garrantzitsua izan zen Europako Kontsiluaren 1981eko Datuen Babeserako Europako hitzarmena; Espainian 1992an egin zen lehen legea eta 1999an, egun duguna egin zen.

Zuzenbidea beti errealitate sozialaren atzetik ibili da, arautzen.

# Ordutegiaren arabera tarifarekin %15 aurrezten dela esaten du EEEk

- Energiaren Euskal Erakundeak hainbat tarifakazio mota ditu
- Elektraindarrak gauzez edo goizez kontsumitzeak aurrezteak dakar

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen Energiaren Euskal Erakundeak (EEE), merkatuan dauden tarifa elektrikoen egindako azterketaren ondoren, faktura elektrikoa %15 inguru merkatze-ko aukera dagoela egiaztatu du. Horretarako, ordutegia bereizten duen tarifa bat kontratatzea gomendatzen du. Gauetan eta goizean kontsumitzeak aurrezten laguntzen du, baldin eta tarifakazio hori kontratatzen bada.

## Heren bat aurreztu

Tarifa horrek bi prezio ezberdin ezartzen ditu eguneko orduaren arabera, honakoak: alde batetik, tarifa murriztua duen aldia (22:00etatik 12:00etara neguan eta 23:00etatik 13:00etara udan), merkatuan elektrizitate eskaera txikiena dagoen aldia dena; eta bestetik, eskaera handiagoa dagoen aldia (12:00etatik 22:00etara neguan eta 13:00etatik 23:00etara udan), tarifa garestiagoa duena.

Bada, ordutegia bereizten duen tarifak prezio berezi bat ezartzen du kontsumo txikiko orduetan, eta tarifa arrunta baino %57 merkeagoa da. "Hain zuzen ere, ordu horiek oso egokiak dira elektrizitate kontsumo handia duten etxetresna elektrikoak erabiltzeko, adibidez, garbigailua, ontzi-

## Eguneroko keinu gomendagarriak

### ITZALI ARGIAK

Gelatik irteterakoan argiak itzalita, fakturari laurden bat ken diezaiogez.

### GARBITU

Eduki lanparak eta bonbillak beti garbi.

### FLUORESZENTEAK

Kendu goritasunezko bonbilla zaharrak, eta erabili A klaseko kontsumo txikikoak haien ordez (%80 baino aurreztu daiteke argiztapenean).

Bestetik, erabili lanpara fluoreszenteak argia denbora luzez piztuta egoten den tokietan; adibidez, sukaldean.

### ETXETRESNAK

Etxetresna elektrikoak berritzailekoan, eraginkorragoak aukeratzea komeni da, A, A+ edo A++ klasekoak kasu.

### HOZKAILUA

Erregulatu hozkailuaren tenperatura, eta noizean behin kendu izotza.

### %60 AURREZTU

Labe arruntaren ordez labe mikrouhina erabiliz gero, %60tik gora aurreztu daiteke elektrizitate kontsumoan.

Janaria berotzeko energia gutxien erabiltzen duen etxetresna mikrouhina da.

### SUKALDEA

Sutegiaren diametroa baino pixka bat handiagoak eta lauak diren ontziak erabiltzea komeni da. Bestalde, presio-lapikoarekin sukaldatuta, agudoago egiten da eta energia gutxiago kontsumitzen da.

### AIREZ LEHORTU

Jantziak lehortzeko, zabaldu arropa airean, eta lisatu oraindik pixka bat heze dagoenean.

### HOTZEAN GARBITU

Ontzi-garbigailua eta garbigailua ahalik eta gehien kargatu eta erabili programarik egokiena. Garbitu ahalik eta tenperatura baxuenarekin.



garbigailua eta lisagailua", esaten du EEEk. Kontsumo handieneko orduetan, ordea, tarifa arrunta baino %20 garestiagoa da kontsumoa.

Baina ez da beharrezkoa kontsumo elektriko guztia gauera edo goizera mugatzea. EEEk dioen arabera, nahikoa da eguneroko kontsumoaren heren bat ordu horietan egitea energian %3 aurrezteko, betiere ordutegia bereizten duen tarifa baldin badu norberak. Zenbat eta kontsumoaren zati handiagoa egin eskaera txikiko ordutegian, orduan eta gehiago aurreztuko du erabiltzaileak: hala, ordutegi horretan kontsumoaren %90 eginez gero, faktura erdira txikitu daiteke.

### Tarifa izozteko aukera

Langabeek, familia ugariak eta pentsiodunek Gizarte Bonua eskuratu dezakete. Horrek, funtsean, 2009ko uztailaren 1a baino lehen aplikatzen ziren tarifa elektrikoak -Azken Baliabidearen Tarifak, gaztelaniazko TUR siglez ezagunak- izoztea dakar. Bonu horrek 2014ko urtarrilaren 1era arte balioko du.

Aurtengo lehen hiruhilekoan, Gizarte Bonuaren bidez %15 aurreztu zen. Azken Baliabidearen Tarifaren prezioaren arabera aurrezten du norberak: hala,

preziosa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago aurrezten du onuradunak.

Argibide gehiagorako, deitu EEEra (94 403 56 00) edo jo [www.eve.es](http://www.eve.es) webgunera.

### Ekonomia jardueri laguntzak

Bestetik, EEEk Espainiako IDAE-rekin hitzarmena egin berri du, hainbat ekonomia sektoreri 19 milioiko dirulaguntzak emateko. Horiekin, 240 milioi euroko inbertsioak sustatuko dituzte. Helburua da sektore horiei - industria, eraikuntza, garraioa, egoitza ekipamendua, zerbitzu publikoak, lehen sektorea eta baterako sorkuntza- energia gutxiago kontsumitzen laguntzea, eta Euskadin %5,6 energia gutxiago kontsumitzea: hain zuzen, neurri horiekin 30.000 tona petrolio baliokide gutxiago kontsumituko direla espero du Energiaren Euskal Erakundeak.

### DATUAK

# %57

MERKEAGOA

Ordutegia bereizten duen tarifa ohiko tarifa baino %57 merkeagoa da kontsumo txikiko orduetan (gauetik eguerdira).

# %50

AURREZTU

Kontsumo osoaren %90 eskaera txikiko orduetan eginez gero, elektrizitatearen faktura erdira txikitu daiteke.

## Aire girotua gutxiago erabiltzeko, etxea aireztatu

Aireztatuta, %30 aurreztu daiteke aire girotuan, eta etxea termikoki isolatuta, %40

L.K. | ARRASATE

Aire girotua duten etxebizitzek, komertzioek eta enpresek elektraindarraren faktura potoloagoa dela igarri dezakete udan. Izan ere, etxebizitza baten faktura guztien %2 dagokio aire girotuari, Espainiako IDAEren (Energia Dibertsifikatzeko eta Ikertzeko Erakundeak) arabera. Aire girotua egun osoan piztuta duen komertzio baten edo enpresa txiki edo ertain baten kasuan, proportzioa handiagoa izan daiteke.

Baina badaude gutxiago gasatuta fresko egoteko moduak. Adituek bi aholku nagusi ematen dituzte: batetik, eraikina tenperatura aldetik ondo isolatzea, izan ere, horrek %40ko alde ekar dezake gastuan. Eta, horrekin batera, kanpoan fresko dagoe-

nean -gauzez edo goizeko lehen orduan- etxebizitza, gela edo komertzioa aireztatzea, eta egunean zehar ateak eta leihoak itxita edukitzea, aire beroa sar ez dadin. Horrekin, %30 aurreztu daiteke aire girotuan.

### Termostatoa, 25°C-tik gora

Beste neurri batzuk har ditzake norberak: adibidez, kanpoan eguzki-oihalak edo eguzkitakoak ipintzea; eraikineko gelak eta elementuak gune freskoen eta beroen arabera banatzea; aire girotua ondo instalatzea, eguzki-izpiak jaso ez ditzen, eta termostatoa ez ipini 25°C-ren azpitik (jaisten den gradu bakoitzeko %5-%7 artean handitzen da kontsumoa); edo aire girotuaren filtroak noizean behin berritzea.

## Dagoeneko ez da legez abiadura 'ekologikoan' gidatu behar

Espainiako Gobernuak kendu egin du 110 km/h-ko abiadura muga

L.K. | ARRASATE

Joan den egubakoitzaz geroztik, 110 kilometro orduko gehieneko abiadura ezarri zen tokietan berriz ere 120ko abiadura gidatzeko baimena dago. Lau hilabete iraun duen murrizketa horrek gastu aldetik ere murrizketa ekarri ote duen ikusteko garaia da.

Espainiako Gobernuak betetzat jo du bere aurrezpen helburua. Hala, erregaietan 450.000.000 euro aurreztu dira Hego Euskal Herrian eta Espainian.

### 6.150 pegatina berri

Gastua, ordea, ez da txikia izan: 110 zioten pegatinak ezin dira kendu, bere egunean oso itsasgarri indartsuarekin ipini zituztelako. Horregatik, 120 dioten beste hainbeste pegatina egingo dituzte, eta haiek oraingoan gainean itsatsi. Horrek beste 230.000



Argazkioinaxxxx. | ARGAZKILARIAxxx

euroko gastua ekarriko dio dirutza publikoari. Hego Euskal Herrian eta Espainian, 11.300 kilometroan 6.150 pegatina ipini zituzten.

Ekologistak Martxan, Greenpeace eta beste erakunde ekologikista batzuek gogor kritikatu dute 110 km/h-ko abiadura muga kentzea.



Aitor Azurki liburua aurkezten dabil herriz herri eta eguaztenean Elgetako Espaloian izango da, Marcelo Usabiagarekin batera. | OSCAR ALONSO

Aitor Azurki | 'Maizales bajo la lluvia' liburuaren egilea

# "Gerrako heroiek bizi izan zutena gaurko gazteek ezagutzea nahi nuen"

- ▶ Espainiako gerrako gudari eta milizianoen testigantzak jaso ditu kazetari donostiarrak
- ▶ Eguaztenean egingo du liburuaren aurkezpena Elgetako Espaloian

EDU MENDIBIL | BERGARA

Aitor Azurki kazetariak (Donostia, 1983) *Maizales bajo la lluvia* (Alberdania) liburua eman du argitara. Espainiako gerran jardundako gudari eta milizianoen testigantzak jaso ditu, 11 guztira, tartean emakume batena, Julia Hermosilla bizkaitarrarena. Azurki Espaloia Kafe Antzokian izango da eguaztenean, uztailaren 6an, liburua aurkezten, 19:00etan. Harekin batera liburuko protagonistetako bat, Marcelo Usabiaga gudari ordiziarra etorriko da Elgetara.

**Zerk bultzatu zintuen gerrako kontuei heltzera?**

Espainiako gerra gainetik kontatu ziguten ikastolan eta etxean ere ez didate gauza askorik azaldu, aitona gudaria izan zen arren. Oso gauza gutxi jaso ditut aitonamonengandik eta gurasoengandik. Aitonaren lekukotza galdu nuen hura hildakoan. Alde batetik, horrelako gertaera garrantzitsuaren aurrean zera esaten nion nire buruari: ez dakit ezer. Eta ez nuen nahi gaurko gazteek eta nire moduan zeudenek gauza bera sentitzea. *Txispazo* moduko bat izan nuen nolabait esatearren eta elkarriketak egiten hasi nintzen 2006an: historialariak, alderdi politikoak, memoria histori-

koaren aldeko elkarteak, sindikatuek... Ate joka hasi eta jende mordo batekin egon naiz, 40 lagun inguru. Zerrenda luzea litzateke eta nik zubi lana besterik ez dut egin, gudari eta milizianoen eta gizartearen artean.

**Debagoieneko protagonistarik ez dago, ala?**

Zoritxarrez, ez. Gertukoena eibartarrak izan daitezke: Luis Mari Azpiri, Pako Barreña eta Gaspar Alvarez (Gallartakoa jaioz baina txikitik Eibarrera etorritakoa). Guztira 11 lagun dira liburuko protagonistak eta horietako lau hilda daude dagoeneko. Baina ikaragarri aberasgarria izanda guztiakin elkartu

**"Ate joka hasi eta jende mordo batekin izan naiz 2006tik hona"**

**"Sinestezina da gudariak erakutsi didaten indarra eta ilusioa"**

eta haien bizipenak jasotzea. Logikoa denez, urtetan gora dira denak baina sinestezina da erakutsi didaten indarra eta ilusioa. Horregatik bakarrik merezi izan du liburua idazteak.

**Askotan esaten da Espainiakogerrari buruzko idatzietan emakumeek jasandakoa ez dela aipatzen eta zuk emakume baten testigantza jaso nahi izan duzu.**

Bai, istorio oso interesgarria da Julia Hermosillarena. Anarkista zen, senarra moduan. Otxandio-ko frontera joan zen Julia eta uztailaren 22ko bonbardaketan larriki zauritu zuten. Oso gaizki egon zen. Erbestera joan eta handik urte batzuetara Ayete jauregian huts egindako atentatuan hartu zuen parte. Jakingo duzue, Francok uda sasoi Donostian igarotzeko ohitura zeukan garai baten eta 1962an Juliak eta beste hainbat lagunek (Julen Madariagak ere bai tartean) diktadorearen kontrato atentatua gertatu zuten. Ez zitzaizen ondo atera akats tekniko bategatik, baina orduko prentsan jaso zuten gertatutakoa. Horren inguruko xehetasunak eman zizkidan Juliak, eta beste hamaika kontu ere bai.

**Nondik dator liburuaren izenburua, *Maizales bajo la lluvia*?**

Ez nuen nahi liburuari izenburu hotz bat jartzea. Gudariak artasoroak aipatzen zituzten behin eta berriz, artasoroetan ezkutatzeko zirela eta horrelakoak. Batailoen metafora dira nolabait. Eta euripean, esanahi bikoitza dauka: alde batetik bi bandoen arteko desberdintasuna hegazkineria zen. Eurria jasa bezalakoa zen nonbait eta eurria ere protagonista izan zen egun haietan zenbait protagonistaren arabera. Hortik izenburua. Itxura baten oso euritsua gertatu zen 1936ko uda hura.

**Liburua egiterakoan gehien harritu zaituena, gertakari bereziren bat haren berririk ez zenuena?**

**"Istorio txikiak historia handia ezagutzeko baliagarriak dira"**

**"Lan itzela egin dute Elgetako Espaloian gerraren inguruan"**

Gutziz eskuzabalak izan dira protagonistak nirekin eta guztien duintasuna, kemena eta indarra mirestekoa da. Oraindik egundoko ilusioa daukate bizitzeko, 90 eta piku urterekin... Ez dute euren burua heroitzat, baina haien istorio txiki horiek guztiak baliagarriak dira historia ezagutzeko, benetan gertatutakoa jakiteko. Gizarteak, gaurko gazteek heroi guzti horiek zer eman zuten jakitea derrigorrezkoa ikusten dut.

Bestalde, jasotako bizipenen artean deigarria egin zitzaidan, frankisten eskuetan eroritako errepublikar batena. Haren bandokoak fusilatzeak agindua jaso zuen Paternan. 2.000tik gora lagun fusilatu zituzten Paternan gerran eta imajina ezazu zure bandokoak fusilatu behar izatea. Ikaragarria benetan.

**Elgetan toki esanguratsuak izan ziren gerran eta Elgetan aurkeztuko duzu liburua...**

Lan itzela egin dute Elgetan Intxorta 1937 kultur elkarteak eta. Leku estrategikoa eta adierazgarria izan zen Elgeta eta eguaztenean aurkezpena berezia izango da, adibidez, Marcelo Usabiagarendako, ez duelako museoa ezagutzen. Uste dut ekitaldi polita izango dela eguaztenekoa.

## ZABALIK

MAITE ARISTEGI  
'http://goiena.net/iritzia/'



## 'Aldeano-berrien' garaia

Bilduren emaitzak ikusi ondoren ez dira gutxi izan katasrofe iragarri dutenak, *aldeanismoa*-k dena hartuko duela, berriz ere kobazuloetara bueltatuko gara...

Eta hori irudikatzen nonbaiten mende hasierako Donostiako irudi bat ikusi nuen: baserritarrak kalean esnea eta jeneroak saltzen... Baina zer da aurrera egitea eta zer atzera bueltatzea? Eta ikusita modernotasun suntsitzaile eta burugabeak zenbait arlotan nora garamatzen, nik aldeanismo jator eta naturaren balio eta eritimoen lotua aldarrikatu nahi dut. Adibideak hainbeste dira... baina, esaterako, aste honetan bertan esnearen kalitateari buruz argitaratutako ikerketak argi asko azaltzen du nekazaritzaren intentsifikazioak dakarren hondamendia.

Esne-izenen zerrenda luze bat eta banaka batzuk baino ez gustura hartu eta elikatzen minimoetara iristen direnak. Dena desinfektatu beharraz, luzaroan gorde eta munduaren bazterrean bidali beharraz, esnea ez beste edozer gauza diren likido zaharrak pote dotoreetan. Baserrietan garbitasunean irabazi den guztia hankaz gora botata behin kamioietan sartu eta industria eta politika komertzial *modernoen* esku gelditzean. Eta jendea berriz ere irudi zahar hartako produktuen gustua eta benetako kalitatea bilatu nahian, plastikozkoak ez diren jakiak non eros daitezkeen galdezka.

Natura eta pertsona errespetatuko dituen nekazaritza iraunkorren balioak eguneroko bizitzan eta politikan txertatzea (domekan San Martzialen zein *Bateragune* auzian) etorkizunean duintasunez bizitzeko aukera bakarra dugu. Inork inor ez zapaldu nahia, txikitasunaren handia, herritarron parte-hartzea (auzolana), horietako batzuk izan daitezke; ederki irudikatu du hori Izagirreren udal-taldeak Donostian, eta horregatik ere jasoko zuen Kulturaren Kapitaltasunaren saria. Balio horietan oinarrituz, kultura aldeano-berri honetan, erronka ederra Bildurena, esatek izaterako saltoa ematea.

## USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | 'mbikuna@goiena.com'

## Gaztelania, galtzeko zorian?

Askatasun Lingustikoaren Aldeko Erakundeak salatu du Bilduk gaztelania atera gura duela erakunde publikoetatik, Erkidegoan eta Nafarroan. Adibide moduan, Andoingo Udala jarri dute. Antza, han euskara hutsean bidali dituzte sari banaketa baterako gonbidapenak. Hori ikusita, polizia eskatu dio hizkuntzen erabilpenean legea betetzen ez den tokietan neurriak har ditzala. "Exijitu" dute gaztelaniaren koofizialtasuna errespetatzea.

Eta *astakeria* horren aurrean nire buruari zera galdetzen diot: zoratu egin gara? Gaztelaniaren koofizialtasuna? Gaztelaniaren galera? Hori ere Bilduren errua izango ote da ba?

## KALE INKESTA

Zer deritzozu abiadura muga 120 km/h-ra jartzea berrir?



ANTONIO NEVADO  
ARRASATE

"Ondo ikusten dut neurria lehengora bueltatzea, are gehiago orain, oporretan. Ez dut uste 110 km/h-ra gidatzea seguruagoa zenik".



MAITE FERNANDEZ  
ARRASATE

"110 km/h-ra oso poliki joatea zen, eta beraz, muga 120ra handitzea ondo dago. Gainera, ez dut uste jarri zuten helburua lortu denik".



ALEXANDER AGIRIANO  
ARRASATE

"Ondo. Orain dauden autoekin eta errepideekin 110 km/h-ra joatea tontokeria bat zen. Isunak jartzeko neurria izan zela uste dut".



LEIRE ETXEBARRIA  
ARRASATE

"Bat-batean aldatzeak jendea nahastu dezake, baina 120 km/-ra hobeto goaz. Ez dut ulertzen zergatik murriztu zuten, oso poliki joatea zen".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Zeinen esku dago gure informazioa?

Mikel Lizarralde  
<http://eibar.org/blogak/lizarralde/>

Jende asko larrituta dabil Interneten doan ematen dugun informazioagatik.

Bakar batzuen esku informazio pertsonal asko dagoelako, eta beraz aprobetxa dezaketelako edozertarako: eskaintzen dizkiguten produktuak hobetzeko, eskaintza komertzialak egin, datuak saldu, gobernuen eman, eta abar

Google+ berriaren iragarpenekin ere kezka eta mezu ironikoak irakurri ditut.

Orain informazio gehiago emango diogula Google-i.

Ulertzen ditut kezka. Informazio pertsonal baliotsu larregi ematen diogu enpresa bakar batzuei.

Baina sarean zer informazio partekatzen dugun, eta zer ez, gure esku dago.

Nik erabakitzen dut Facebook-en, Twitterren edota

Google+ en zer esan eta zer ez. Nire esku dago Gmail edo Facebook-eko kontua ixtea, adibidez.

Ni neu gehiago larritzen naiz gure herriko kotila eta kuxkuxeroek niri buruz dakitenarekin.

Akaso gertukoagoa dudalako, eta nire egunerokoan eragin zuzenagoa duelako.

Senideei, koadrilakoei edota lankideei kontatzen dizkiegun gauza asko bolo-bolo ibil daitezke herrian zehar.

Oporretan nora noan, etxetik joan naizela, senide honekin ez dudala hartu-emanik, lanetik bota nautela, zorrak besterik ez ditudala eta abar.

Eta, hain zuzen ere, informazio hori enpresetara (banketxeak, adibidez), erakunde publiko edota polizia iristen da, erraz-erraz.

Eta gure egunerokoan eragin zuzenagoa izan dezake horrek, nire ustez, Kalifornian dagoen enpresa batek eragin dezakeena baino gehiago.

Google edota Facebook-ek bezainbeste informazio daukate niri buruz herriko kuxkuxeroek.

## "Abandonate ogni perché"

Bixente Serrano Izko  
<http://berria.info/blogak/bixente/>

Kostata etsiko du inork ideia honetara: gizakion galderarik infantilena dela "zergatik?" alegia, zeharo alferrikakoa, heldu aroan utzi beharko geniokeena.

Alta, ongi zekiten hori, antza, SS naziek, ustezko supergizakiaren gauzape horail begi-uridin haiek, arrazoi teknikoaren akulua "zergatik?" galderik ez, "zertarako?" baizik delakoan sinestun haiek, "zenbat eta 'nola' gehiagori, hainbat eta 'zergatik' gutxiago" dagokiolakoan uste sendoko haiek... Ongi zekiten, antza, Primo Leviri -barka, 174517 zenbakiari- "hemen ez dago zergatirik" erantzun ziotenean. Infantila da, infantila denez, "zergatik?" galdera. Kontua da Primo Leviren "*warum?*" hark "zergatik?" itxurapean "zertara dator hau?" galde egiten zuela muinean, eta 174517 zenbakidunari emandako erantzunak bertzelako zentzu hau zuela: "Zuoi, gizaki ez zaretenoi, ez dagokizue galderarik egiterik".

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna** Julen Iriando  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
[arrasate@goiena.com](mailto:arrasate@goiena.com)

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550: Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
[aretxabaleta@goiena.com](mailto:aretxabaleta@goiena.com)


**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | [publi@goiena.com](mailto:publi@goiena.com)  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)  
**Lege Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale  
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Zure espazioaz gozatzea gustuko duzu. Maiteenak dituzunekin batera gozatu nahi duzu haren apaingarrien dotoretasun eta gustu ona. Etxean igarotzen dituzun uneak ulertzeko modu pertsonal eta bakarra da. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

# ZU bakarra zara



**prezio berezia** Lehen 2.599 €

**2.099 €**

174,92 € x12 hilabete interesik gabe\*

Marroi txokolatean ere bai



LARRU LODITUAN



Eserleku irristagarri elektrikoak  
Bizkar etzangarria

3D proiektuak doan

## KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 [gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com)



Proiektu eta eraberritze integralak

**KIBUC**  
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

**Tasmania sofa** Erosotasun eta dotoretasun proposamena, elektrikoki mugitzen diren eserlekuekin eta eskuz etzan daitezkeen burukoekin. 3 lagunentzako sofa eta chaiselonguea larru loditu zurian eta marroi txokolatean. **Motorrak doan.** Neurria: 281x100/165 zm.

Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa, izakinak bukatu arte (guztira 300 sofa). BEZ barne. \*Finantza-erakundeak onzat emateari baldintzatua.

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Inazio Urtzelai** | EAko zinegotzia Oñatin (1991-2003)

- ▶ Hiru agintalditan bete zituen zinegotzi lanak Angel Iturbe alkatearekin
- ▶ Hirugarrenean, Enplegu eta Pertsonal batzordeko buru izan zen
- ▶ Politika utzi ondoren, Larrañako auzo-alkate lanak egin ditu

## "Oraingo krisia baino askoz latzagoa zuen Udalak heldu nintzenean: hipotekatuta zegoen"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Inazio Urtzelai hiru agintaldi egin zituen EAko zinegotzi moduan: lehen biak oposizioan eta azkena gobernuan. 12 urtek "askorako" ematen dutela esan digu, baina oroitzapen "onak" dituela ere bai. Zinegotzi kargua hartu zuenean Udalak zuen zorra gogoratzen du ondoen. Orduko politikaz, EAk izan duen bilakaeraz eta etorkizunaz egin dugu berba harekin.

**12 urte asko dira, eta politikan gehiago.**

Ados nago. Akaso larregi. Esperientzia ezberdinak izan nituen: lehen bi agintaldietan oposizioan egon ginen EAko zinegotziok eta azkena, gobernuan. 1999an EAJ-rekin batera aurkeztu ginen.

**Oposizioan edo gobernuan, zer nahiago?**

Ez daukate zerikusirik. Oposizioan zaudenean bigarren maila batean zaude. Batzorde informatiboetan parte hartzeko aukera genuen, baina ez botatzeko. Hango erabakiak Gobernu Batzordean aztertzen zituzten, eta han ez genuen parte hartzen.

Aldiz, gobernuan egon ginean hiru zinegotzi genituen, eta lan handia egin genuen. Ernesto Murgiondo Kultura Saileko batzordeburua izan zen eta ni, Enplegu eta Pertsonal batzordeko buru. **Ze proiektu jarri zenituzten martxan?**

Lehen agintaldian gutxi. Udalak zor handia zuen, handiegia. Hipotekatuta zegoen. Azken urteotan bizi dugun krisia baino latzagoa izan zen orduan Udalak bizi izan zuena. Ez zegoen dirurik ezer egiteko, bakarrik zorrak. Udal baten zorpetze mailak gehienez



Inazio Urtzelai, etxe ondoan, Errekalden. | MIREIA BIKUÑA

25 izan behar du, eta Oñatik 48 zuten. Gure aurretik egondako gobernuak ETEO, Antia etxea eta Olateko Ur Jauziak erosi zituen. Eta guri egokitu zitzaigun zorrak

ordaintzen hastea. Lehen agintaldian ez genuen dirurik eduki inbertsioetarako. Arnasa hartzen hasi ginen hirugarrenean.

**Baina, gerora, ikusi da orduko inber-**

**tsoiek emaitza onak eman dituztela.**

Bai. Baina, adibidez, ETEO eta Antia Eusko Jaurlaritzari laga genion 30 urterako. Zorrak kita-



Inazio Urtzelai, Iñaki Galdos eta Argitxu Perosterena, 1999an. | GOIENA

**"Lehen agintaldian ez genuen dirurik izan inbertsioak egiteko"**

**"Politika utzi ondoren Larrañako auzo-alkate izan nintzen"**

tzeko beste modu bat izan zen. **Nolako hartu-emanaren zuten gainerako alderdiekin?**

Nahiko ona. Alderdi bakoitzak bere ideiak defendatzen zituen, eta erabaki potoloa hartu behar genuenean, adostasun batera helden saiatzen ginen. Ez zegoen krispazio gehiegirik. HB ere oposizioan zegoen eta alderdi sozialistak zinegotzi bat zuten.

**Politika utzi zenuenetik, nolako hartu-emanaren izan duzu?**

Bigarren mailan, baina segitu dut politikan. Azken udal hauteskundeetan H1!-eko zerrendan egon naiz, azken lekuetan.

**Alkatetza zer den ere ezagutu zenuen. Larrañako auzo-alkate izan zinen!**

Bai, hala da. Politika utzi nuenean auzo-alkate izateko proposatu zidaten auzotarrek. Errekalden bizi naiz, baina Larraña auzoan jaio nintzen. Eta bai, alkate izateko zer den badakit [Barreak].

**Nolako bilakaera izan du EAk zinegotzi izan zinenetik?**

Aldaketa larregi bizi izan ditu alderdiak. Azkena H1!-en sorrera. Nik uste dut alderdiak izan duen eboluzioa hauteskundeetako emaitzetan ikus daitekeela.

**Nola baloratzen dituzu emaitza horiek?**

Ezusteko handienak Oñatin eta Zarautzen egon dira. EAk urte askoan izan du Zarauzko alkatetza, eta orain zinegotzi barik geratu da. Oñatiko kasuan, harrigarria da, H1!-eko presidente Iñaki Galdos herrikoa izanda, zinegotzirik lortu ez izana. Hiru zinegotzi izatetik, ordezkartza barik geratu dira. Emaitzak eskasak izan dira, bai.

Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

SMS

SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO

# HERRIAK



Gamarrako igerilekuetara joatea gustuko dute gazteek; iaz 43 gazte izan ziren. | TXATXILIPURDI



Iaz, Zarautzen surfa egiten. | TXATXILIPURDI



Degurixan izarrak ikusi zituzten. | TXATXILIPURDI

## Aurtengo ekintzak

### ABENTURA IRTEERA

Lekunberriko Beigorri abentura parkera joango dira gaur. Zuhaitzen gainetik zirkuitua, tirolinak eta bestelakoak izango dituzte.

### ORIENTAZIO PROBA

Urkulun egingo dute lasterketa hori. 11:00etan hasiko da.

### GAMARRARA

Hilaren 11n, Gamarrako igerilekuak bisitatuko dituzte.

### URDAIBAIRA IRTEERA

Uztailaren 13an, piraguan ibiliko dira gazteak. Hondartzan egoteko aukera ere izango dute.

### GAUPASA

Bazkaldu ostean, Atxorrotzera igoko dira uztailaren 14an; gaur pasako dute bertan eta izarrak ikusi ahal izango dituzte.

### ALBIÑAN EGUNPASA

Urtegiaren emango dute hilaren 20ko eguna. Parrillada egiteko asmoa dute han.

### DONIBANE GARAZI

Hilaren 21etik 24ra, Donibane Garazi eta inguruak ezagutuko dituzte gazteek.

## ESKORIATZA-ARETXABALETA

# Gazteek uda freskagarri eta dibertigarria dute aurretik

- ▶ Gaur hasiko da Udaero programa; zazpi ekintza izango dituzte denera
- ▶ Urdaibaira irteera, orientazio proba eta parrillada berriak dira

### MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Gaur, astelehena, hasiko da Udaero egitasmoa, Lekunberri dagoen Beigorri abentura parkearekin. Txatxilipurdiko Lander Juaristik azaldu du zazpi ekintza egingo dituztela uztailaren; horren hari-

ra, gogorarazi du gazteek beraiek aukeratu dituztela programa horren ekimenak.

Honakoa esan du: "Gazteek antolatzen dute egitaraua, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gazteleketan aurretik egiten dituz-

ten batzarren bidez. Hainbat proposamen aurkeztu dizkiegu eta horien artean, aukeraketa egin dute. Beti izaten dugu kontuan aurreko urteotan zeinek izan duen arrakasta; esaterako, Gamarrara irteera urtero eskatzen

dute; izarrak ikusteko mendi irteerak ere oso harrera ona izan zuen joan den urtean".

### Herrian eskaintza egotea

Gazteek, ostera, Urkuluko orientazio lasterketa, parrillada eta

abentura irteerak proposatu dituzte. Juaristik azaldu du programa horren asmoa dela herrian ere 12 eta 17 urte bitarteko gazteendako eskaintza egotea gazteleketatik, eta herri desberdinetako gazteak elkar ezagutu dezaten.

Berandu dabilzan gazteek azken aukera dute asteen gura duten ekimenetan izena emateko. Ekintzetan bertan eta Eskoriatzako eta Aretxabaletako Gazte-ria bulegoetan eman daiteke.



**LEIRE ZUBILLAGA**  
ARETXABALETA

"Oso ekintza dibertigarriak egiten ditugu, eta lagunekin egiteko oso ondo daudela iruditzen zait. Iaz ere parte hartu nuen eta oso gustura ibili nintzen. Aurten, dena dela, lehenengo hiruretan apuntatu naiz, gero ez naiz egongo-eta".



**JOSEBA GABILONDO**  
ESKORIATZA

"Begirale moduan jardun dut aurten lehen aldiz. Eskoriatzan hiru begirale egongo gara, horietako bi berriak gara. Gazteek ez dute ekintza guztietan izena ematen, gustukoak dituztenetan apuntatu dira".



**JON DAVILA**  
ARETXABALETA

"Lagunen bitartez izan dut Udaeroren berri, eta aurten eman dut izena lehen aldiz. Urarekin lotutako ekimenak ditut bereziki gustuko; Urdaibaira egingo duguna da erakargarriena, piraguan ibiltzera joango gara".

## 520 ume gaur hasi diren udalekuan

Gazteendako ez ezik, umeendako ekintza bereziak ere egingo dituzte datozen asteotan Eskoriatzan eta Aretxabaletan, udaleku irekien bidez. Sekula baino neska-mutiko gehiago izango dituzte aurten: lehenengo txandan, 4 eta 12 urte arteko 240 ume elkartuko dira egunero herriko plazan, eta bigarrenean, 280. Eskoriatzan 24 lagun ibiliko dira begirale lanak egiten, eta Aretxabaletan, ostera, 31 lagun.

Herri bietan askotariko ekintzak antolatu dituzte. Urtero moduan, betiko ekintza eta jaialdiak izango dira nagusi, horiek dituztelako gustuko umeei, hala nola, eskulanak, uraren eguna, edo azken eguneko jaialdia. Horretaz gainera, hainbat irteera ere izango dituzte; Eskoriatzan, esaterako, Gamarrara, Degurixara eta Gopegira. Berrikuntzak ere badituzte. Eskoriatzan aurten kultura aniztasunaren bueltan egingo dituzte ekintza guztiak. Aretxabaletan, berriz, San Fermin eguneko ohiko egitaraua aldatu eta ezustekoren bat edo beste sartu dutela iragarri dute.



Batek baino gehiagok bustita bukatu zituen Txirritolinpiadak. | ANDER MONEDERO



Zapato arratsaldean tiro plato saioa egin zuten. | IMANOL GALLEGO



Briska txapelketa izan zuten erretiratuen etxean. | IMANOL GALLEGO



Herriko txokoetan zehar ibili ziren Otxandategiko dantzariak. | IMANOL GALLEGO

## ARAMAIO

# Batek baino gehiagok mozorro egokia aukeratu beharko du bixamona ezkutatzeko

Egubakoitzean hasi ziren herriko jaiak eta gaur gauean herri afariarekin bukatuko dira

ANDER MONEDERO | ARAMAIO

Gaur da Aramaioko jaietako azken eguna, eta, oraindik, aramaioarrek badute non disfrutatu. Besteak beste, Gazte Asanbladak antolatuta umeendako jolasak izango dira 11:00etan, eta, arratsaldean, koadrilen arteko pikea. Horretaz gain, Arrasate Musikalen emanaldia ere egongo da kultur etxean.

Egunari amaiera emateko herri afaria izango da, tradizioak agintzen duen bezala, mozorro eta guzti. Ostean, Beriba sanba eskolakoekin eta DJ Mikelek bertuko dute giroa; dantza egiteko aukera bikaina.

## Asteburuan, jai nagusi

Asteburuan ere ekitaldi ugari izan dira eta egon da San Martinez gozatzeko parada: mus txapelketa, kontzertuak, tiro platoa Kurtzetagain elkarteak antolatu-

ta, briska txapelketa, dantzarien erakustaldia edo Txirritolinpiadak, adibidez. Iparraldeko herri kirolen saioa, berriz, bertan behera gelditu zen.

Haur eta gazteek ere izan dute jaietz gozatzeko aukera: zapatu goizean tailerrak izan zituzten eta atzo puzgarriekin jolasean ibili ziren.

Berangoko Otxandategi dantza taldeak Zuberoako Maskarada egin zuen herrian barrena. Dantzariak kultur etxe kanpoan hasi zuten ikuskizuna eta herriko txoko desberdinetan erakustaldia egin ondoren, plazan bukatu zuten dantza emanaldia.

Domeka gauean, berriz, Deabru Beltzak talde bilbotarrak kale antzerki ikusgarria egin zuen. *Les Tambours de Feu* ikuskizunak aho zabalik utzi zituen aramaioarrek beraien danbor hotz, piroteknia eta efektu bereziekin.



Haurrak puzgarriez gozaten. | I.M.



Aramaioarrek dantza erakusteta ikusten. | IMANOL GALLEGO

## EGITARAUA

## ASTELEHENA

11:00 Umeentzako jolasak

13:30 Tinbili Tlanbala umeendako ikuskizuna

16:00 Koadrilen arteko pikea

19:00 Arrasate Musikalen emanaldia kultur etxean

21:30 Herri afaria. Afalostean Beriba sanba eskolakoekin animazioa

01:00-05:00 DJ Mikel



**TERESA ARRIOLABENGOA**  
ARAMAIO

"Beti bezala, herriko jaietan gustura. Eguneko giroaz gozaten dugu eta gauean goiz erretiratzen gara. Umeekin eguneko festa ezagutu dugu".



**BENJAMIN ARRIOLABENGOA**  
ARAMAIO

"Giro polita dago. Egubakoitz gauean etxean geratu ginen, ez dut uste gaur [zapatuan] berandu arte geratuko naizenik baina irteteko asmoa badut".



**BEGOÑA ELEJALDE**  
ARAMAIO

"Goiz eta arratsalde herriko giroaz gozaten dut, gauean, berriz, lo egiten dut. Gaur lagunekin afaria egingo dugu eta ondoren herrian zehar ibiliko gara".



**NURIA FDEZ DE ARROIBE**  
ARAMAIO

"Eguraldiak lagundu egin du eta asteburuan giro polita egon da. Erromerietan, umeen ekintzetan, dantzaldietan... danetik egin dugu. Gauean ere giro aparta egon da".



lazko jaietatik jaiotako umeei harrera egin zieten udaletxean; festetako zapia jarri zieten. | IMANOL GALLEGO




Paella janean 480 lagun inguru elkartu ziren. | IRATI GOITIA



Ganadu ederrei begira Ferixa Nagusixan. | JOSETXO ARANTZABAL



Gorka Arizmendiarieta asto gainean, bigarren egin zuen. | IMANOL GALLEGO



Suzko zezena. | J.A.

## ELGETA

# Nolako 'astakeria': ia herri erdia Elgetako jaietako paella janean

Festez gozatzeko denetarik izan dute: mozorroak, asto karrera, feria...

IRATI GOITIA | ELGETA

Eguenean, mozorro egunarekin hasi zituzten jaiak Elgetan eta atzo, domeka, bukatu ziren. Ez da musika, dantza eta festarik falta izan egun hauetan. Elgetarrek eta bertara joandako guztiek

izan dute non gozatu, egitaraua zabala izan da-eta.

### Herri Egun arrakastatsua

Zapatu goizean Elgetako IX. saria jokatu zen; dagoeneko asto karrera klasiko bat da eta jende ugari

biltzen du. Bost mutilek hartu zuten parte lasterketan eta Mikel Beretxinaga izan zen irabazlea, bosgarrenez. Eguerdian, herriko plazan egin zuten paella jana ere benetan arrakastatsua izan zen, 480 lagun inguru elkartu ziren.

Gauean, Eganen erromerian ere jende asko ibili zen dantzan.

### Ume jaiaberriei harrera

Aurten, lehenengo aldiz, iazko jaietatik jaiotako umeei harrera egin diete udaletxean. Guztira 14

umeri jarri diete jaietako zapia Udaleko ordezkariak, txiki-txikitatik festak goza ditzaten.

### Ferixa Nagusixa

Atzo, domeka, ferixa eguna izan zuten. Toki guztietatik etorritako jende mordo ibili zen ganadua eta postuak ikusten. Askotariko produktuak zeuden salgai: makinaria, bitxiak, loreak, pastelak, gaztak...

### Balorzio positiboa

Oxel Erostarbe alkateak jaien balorzio ona egin du: "Elgetarrak jaietan gustura ibili direla uste dut". Gaineratu du ez dela aparteko arazorik izan.



**KONTXITA BEREZIBAR**  
SALTZAILEA

"Etxean egindako gazta eta ogia ekarri ditut. Salmenta nahiko ongi doa, ekarritako ogi guztiak aspaldi saldu ditut. Merezi du hona etortzea, aspalditik etortzen naiz."



**EIDER ETXANIZ**  
ELGETARRA

"Animaliak ikustera goaz, umeei asko gustatzen zaizkie-eta. Haurrak izan arren, parranda ere egin dugu; aiton-amonak hor daude eta..."



**MIKEL BERETXINAGA**  
ASTO KARRERAKO IRABAZLEA

"Ez naiz erori, eta beraz, ongi joan da lasterketa. Dagoeneko ongi erakutsita dut astoa. Orain nire astoari -Periko- atsedean apur bat eman beharko diot."



**AINHOA, IZAR, EKIA ETA OIER**  
JAIOPERRIEN ZAPIA JARRI ZIOTEN IZAR ETA EKIARI

"Zortzi hilabete egin zituzten atzo. Pozik jaso genuen ume jaiaberriei harreraren albiste. Aurtengo jaietan beste modu batera gabilta gozatzen. Egun osoa kalean egiten dugu umekin, eta egunean zeharreko egitaraua gehiago aprobetxatzen dugu. Hala ere, aitak parranda bat edo beste ere egin ditu."



Haurren danborradak ikusmin handia piztu zuen eguen arratsaldean. | MIRIAN BITERI



Bazkarian, giro ederra. | JOKIN BEREZIARTUA



Lehen aldiz egin diren koadrilen arteko jokoek, arrakasta borobila. | AITOR AGIRIANO



Herriko presoak gogoan izan zituzten egubakoitz arratsaldean. | JOSETXO ARANTZABAL

## DATUAK

20

ESKORIATZAR BATUKADAN

Batukada arrakasta borobila izan zen; 20 eskoriatzarrez osatutako taldeak giro paregabea jarri zuen herriko kaleetan.

9

KOADRILA LEHEN URTEAN

Lehenengoz egin den koadrilen arteko jokoetan, bederatziko koadrila. Drinking Team izan da lehen banderaren irabazlea.

360

LAGUN HERRI BAZKARIAN

Aurten ere arrakastatsua izan da Herri bazkaria. Txartel guztiak agortu ziren, 360 bat lagun batu ziren Gorosarrin.

5

PROBA BANDERA IRABAZTEKO

Koadrilen arteko jokoak izan dira aurtengo nobedadea. Lehen urtean bost proba, bata bestea baino ikusgarriagoa.

## ESKORIATZA

# Azken txanpan egin dute eztanda jaiek, asteburua eta eguraldia lagun

- ▶ Jaiak aste barruan izateak ez du lagundu; egubakoitzean izan zen giro beroena kaleetan
- ▶ Alkatea, pozik ekintzek izan duten harrerarekin: "Eskoriatzarrek ondo erantzun dute"

## JOKIN BEREZIARTUA | ESKORIATZA

Amaitu dira Sanpedroak, baita ondo amaitu ere. Aurten jaiak aste barruan izan dira eta horrek eragin zuzena izan du kaleko giroan, herritar askok lan egin behar izan dute-eta. Gainera, martitzenetik egunera eguraldiak ez zuen larregi lagundu.

Eguenean, arratsaldeko umeen danborrada eta *Eskoitzako I. Banderia* lortzeko koadrilen arteko jokoak izan ziren ekintza arrakastatsuenak. Bederatziko koadrilak hartu zuten parte eta izan zuen arrakasta ikusita, ziur datorren urtean koadrila gehiago animatuko direla. Lehen bandera Drinking Team koadrilak irabazi zuen.

Haurren danborrada arrakastatsua izan da aurten ere: umeez gain, gurasoek eta aiton-amonek ez zuten hutsik egin.

Egubakoitzean, jaietako azken egunean, eztanda egin zuen giroak.

Goizean hasita, giro ederra izan zen plazan. Taloak jateko eta sagardoa edateko aukera egon zen; herri-kirolez gozatzeko aperi-tibo ederra. Gero, herri-bazkaria: Gorosarri plaza gaineko

arkupeetan 360 lagun batu ziren, itzaletan, gogor astintzen zuen eguzkiarengandik babestuz. Sagardo kupelak ondoan zituztela, haur, gazte zein heldu elkartu ziren mahaiaren bueltan. Beste behin ere arrakasta borobila; txartel guztiak agortu ziren. Bazkalostean aparrak hartu zuen Gorosarri plaza herriko txikienean gozamerako. Izan ere, apar festan ederto ibili ziren.

**Alkateak, balorazio positiboa**

Beñat Hercerendako lehen Sanpedroak izan dira alkate moduan: "Lehen hiru egunetan lan egitea tokatu zitzaidan eta ahal izan nuen moduan aprobetxatu nuen.

Hori bai, azken egunean herri bazkaritik aurrera izan nuen aukera jaietzeko, inongo ardura barik". Egutegiak eta eguraldiak lagundu ez arren, balorazio positiboa egiten du Hercek: "Lan egin behar arren, hainbat herritarrek izan duten tartetxoa aprobetxatu dute eta oro har ekintzek harrera ona izan dute. Eskoriatzarrek ondo erantzun dute". Aurtengo sorpresarik atsegina koadrilen arteko jokoak izan dira haren ustez. Egun politena zein izan den esateko ez du zalantzarik: "Eskoriatzarroi azken eguna asko gustatzen zaigu, goizetik hasita hainbat ekintza daude-eta".

## ESANAK

"Lan egin behar arren hainbatek aprobetxatu dute tartetxoa"

"Azken egunean izan nuen inongo ardura barik jaietzeko aukera"

BEÑAT HERCE | ALKATEA

## BERGARA

# Martzial deuna portatu eta laino guztiak uxatu zituen bergarraren gozamenerako

Azkenean giro ederra eta festa izan ziren nagusi erromeria kuttunean

J.B. | ARRASATE

Susto txikia eman zuen eguerdiko zaparradak baina Martzial deuna portatu eta zerutik laino guztiak uxatu zituen atzo dantza saiorako. San Martzial erromeria txukuna izan zuten azkenean bergarrek, nahiz eta bertako beterano zailduenek esan, euri zein txingor, berreskuratu zenetik behin ere ez dela eguna ber-

tan behera geratu. Giroa, zer esanik ez, apartekoa eta eguerdian autobusak lepo, dudatan etxean geratu zirenak igo eta igo.

## Txukun dantzan

Udalbatza berriak estreinu txukuna izan zuen eguerdiko dantza saioan baina txalo gehienak Joxemari Larrañaga beteranoaren abileziak lapurtu zituen. Betera-

noz hitz eginda, aurten Ramon Etxanizek omenaldia jaso du txistuarekin herria eta jaiak girotzen egindako urteetako lanarengatik. Nobedaderik ere izan da aurten. Arratsaldean sokatira eta txinga lehiaketa egin zuten (Joseba Muguruza txapeldun eta Gaztenahi eta Kuadrizanmi sokatiran) eta baita irrintziena ere (onenak Jone Egurenenak).



Eguerdiko erromeriako unea. | JON BEREZIBAR



Dantza saioa. | J.B.



Alkatea, aureskua egiten. | J.B.




Giroa bikaina izan zen mahaietan. | JOSETXO ARANTZABAL



Soka tira saioa. | JOSETXO ARANTZABAL

## Ramon Etxaniz omendua

Ezustean harrapatu zuten omendua eta, azkenean, emozioak hartuta, erabat hunkituta jaso zuen bergararren esker sentitua. 80 urte pasatxorekin eta herriko auzo, kale eta txokoak bere txistuarekin hainbeste urtetan alaitzeagatik omenaldia jaso zuen Ramon Etxanizek. "Goian nengoela oso hunkituta egon naiz, nik ez dut uste, baina hala badiote, merezi izango nuen omenaldia", zioen saioa amaitu bezain laster, artean ere hunkituta.



Ramon Etxaniz. | J.B.

Omenaldia jaso bai baina, hala ere, erretiratzeko asmorik ez dauka, "urte askotan jotzen jarraitzea" ei da bere asmoa, gogo eta grinarik ez zaio-eta falta Bergarako txistularien artean beterano eta maisuari.

## ARRASATE

## Andaluzia Arrasatera, orain arteko Erroziarik jendetsuenean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Uztaileko lehen domekero moduan, Al-Andalus elkarteak eta *Nuestra señora del Rocío* kofradiak antolatzen duten Errozioko Andaluzia usaina ekarri zuen atzo Arrasatera. 21 etxe elkartu dira aurtengoan, Euskal Herritik eta Espainiatik etorrita. Horiei guztiei ongiatorri eginez hasi zuten gurean bizi diren andaluziarrendako horren berezia den ospakizun eguna.

Al-Andalus elkartearen mokatutxoa hartu ostean Santamari-nako elizara eraman zuten Birjina kalejiran, haren omenezko meza egiteko. Mezan zehar euria hasi zen eta Birjina ez zen atertu arte irten. Gero kalejiran joan ziren Eroski ondoko Arruena plazara. Eta han, festa giro andaluziarra 12:30etik 20:00ak arte: dantzak, kantaldi inprobisatuak

eta noski, Andaluziako produktu tipikoak dastatzeko aukera etxe bakoitzak jarritako karpetan.

Al-Andalus elkarteak Antonio Nevado ospakizunaren amaieran harrapatu zuten: "Arrakasta borobila izan da aurtengo Errozioko. Mezaren ostean euria hasi da eta okerrena espero genuen, baina di-da batean altxatu du eta egun ikaragarria egin digu. Eskerak ordu erdiko kontua izan dela. Festa giro ederrean pasatu dugu arratsaldea".

## 17 autobus etorri ziren

Erroziokoaren 21. edizioa izan zen atzokoa eta inoiz baino jende gehiago batu zela azaldu digu Nevadok: "17 autobus etorri dira eta aurreko edizioetan sekula egon ez diren etxeak ere etorri dira: Santanderretik etorri dena, adibidez".



Meza ostean kalejiran joan ziren Arruena. | JOKIN BEREZIARTUA



Adin guztiendako jai, umeak ere protagonista. | J.B.



Plazara heltzean lore eskaintza egin zioten Birjinari. | J.B.



Arrasatearrendako oporretarako leku gustukoenetako bat izaten jarraitzen dute Kanariar uharteek. | WIKIPEDIA

## Kanariak, Balearrak eta Mediterraneoa dira oraindik opor leku gustukoena

Ez dago nobedade handirik aurten, Arrasate Bidaiak-eko Amanda Sanchezen arabera; oporraldi ohikoena, uztail amaieratik abuztu amaierarako da oraindik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Uztailaren lehen ireki zen irteera operazioa gure errepideetan, eta beraz, dagoeneko oporretan ez daudenei oporretan egoteko gutxi falta zaiela esan gura du horrek. Hala, bidai agentzietara jo dugu aurten arrasatearrak nora joango diren jakiteko. Arrasate Bidaiak-eko Amanda Sanchezen arabera, ohiko lekuek ez dute hutsik egingo aurten ere: "Betiko moduan, Kanarietara, Balear uharteetara eta Mediterraneorako jaso ditugu eskaera gehien". Herrialde ara-

biarretarako jaitsiera igarri dutela dio Sanchezek; Egiptok izan duen jaitsiera nabarmendu du.

Bestalde, orain esku artean dituen bidaien artean Kroazia eta Madeira aipatu ditu: "Kroazia aldea ezagutu gura duten asko etorri dira. Nik Madeirara joatea aholkatuko nuke, prezio aldetik oso ondo dago eta aldatzeko oso bidai ona da". Horrez gain, urrutira egingo diren bidaien artean Amerika eta Tailandia omen daude. Horrelako asko ezkon-bidaietan lotzen dituzte.

Hamar eguneko oporraldiak

Astebete edo gehienez hamar eguneko oporraldiak saltzen direla dio Sanchezek: "Asko jota bi aste-ko oporraldiak saltzen dira, baina hori salbuespena da". Adin tarte guztiendako bidaiak antolatzen dituzte. Arrasatera gehienak uztail-eko azken astetik aurrera joango dira: "Uztail-eko azken astetik abuztu-eko azken aste arte saltzen dira bidai gehien, baina ahal duenak beste data batzuk aukeratzen ditu, merkeago irteten delako", dio Sanchezek.

## Ibai-Arteren kontu afaltzeko aukera uztail osoan zehar

J.B. | ARRASATE

Uztailaren sartu berri gara, eta hilero moduan, Ibai-Arte merkataritza elkarte eskaintza berezi batekin dator uztailaren ere. Bi pertsonendako 30 afari zozketatuko dituzte. Hala, irabazleak beste pertsona bat gonbidatu ahaliko du.

Egin behar den bakarra da Ibai-Arte elkartearen barruan dauden saltokietan erosketak Ibai-Arte txartelaz egitea. Hala, automatikoki datafonotik ateratzen den txartelaren bitartez unean bertan jakingo du bezeroak saritua izan den edo ez. Beraz, zenbat eta erosketa gehiago egin Ibai-Arte txartela erabiliz, orduan eta aukera gehiago egongo dira saria eskuratzeko.

Horrez gain, saritua denak zein jantzetan afalduko duen jakingo du: Hilarion jantzetan, Santa Ana hotelean, Hama4 jantzetan, Txoko jantzetan edo Arteaga landetxean.

Erreserbak aldeztu

Afarien eskaintza berezia uztailaren 31ra arte luzatuko da. Aurreko urteetan egin den ekimena da eta erosleen artean arrakasta handia lortu izan du. Hala, antolatzaileek bezeroen harrera ona errepikatzea espero dute.

Hori bai, afaltzera joateko sarituek aldeztu aurretik erreserbatu beharko dute mahaia, eta horretarako azken eguna da irailaren 30a.

## Hilaren 7an egingo da Udalaren antolaketa zehazteko plenoa (19:00)

Uztailaren 7an, San Fermin egunean, egingo da Udalaren antolamendua eta jarduna zehazteko osoko bilkura, 19:00etan. Hainbat erabaki hartuko dira, guztiak udal funtzionamenduak behar duen antolaketarekin zerikusia dutenak.

Bi zati izango ditu plenoak: batetik, ekainaren 11ko udal eraketa plenotik alkateak hartu dituen erabakien berri izango du osokoak, eta bestetik, plenoak onartu beharreko erabakiak daude. Horien artean daude, besteak beste, batzorde informatzaile iraunkorren kopurua eta horien arduradun politikoak zehaztea.

## Kukai dantza taldearen 'Karrikan' ikuskizuna egubakoitzean, plazan

Udalaren Udazabal programaren barruan, Kukui dantza taldearen azken ikuskizuna ikusteko aukera egongo da: *Karrikan*. Emanaldia egubakoitzean, hilak 8, izango da, Herriko plazan, 20:00etatik aurrera.

Sei koreografok eta DJ batek hartuko dute parte ikuskizunean eta estilo, erregistro eta hizkuntza koreografiko berrien aukera zabala eskainiko du emanaldiak. Ez du inor axolagabe utziko, beraz. *Karrikan* ikuskizunak euskal ikuskizunik onenaren saria lortu du Umore Azoka sarietan, Leioako Kaleko Artisten Azokaren aurtengo edizioan.



JOKIN BEREZIARTUA

## Bisitatu dute etorkizuneko etxea

Txatxilipurdiren Udaixe programaren barruan, gaztetxoek erdiguneko gaztegunea ezagutzeko aukera izan zuten joan den astean. Lanak amaitu dira dagoeneko, baina eraikina hutsik dago oraindik. Hala ere, gaztetxoak pozik daude egoitzarekin, asteburuko hutsunea betetzea espero dute-eta bertan. Hori bai, begiraleek hasieratik abisatu diete ez daudela bakarrik, bizilagunekin errespetua izatea ezinbestekoa dela.



## HII-EPA egoitza aldatu ahal izateko lanetan dabil

Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroak –EPA– egoitza berria izango du datorren ikasturtean. Arrasate pasealekuan egongo da egoitza berria eta, udal langileen ezinbesteko laguntzaz, hasi dira lekualdaketarekin. Egoitza berrian ondo sartuko dira, zaharra baino askoz handiagoa da-eta. Hainbat gela izango ditu etxe berriak: zazpi ikasgela, informatika gela bat, liburutegia, zuzendaritza gela bat, irakasle gela handi bat –esan digutenez, zaharrean ez ziren sartzen– eta itxaron gela bat izango ditu, besteak beste. Gainera, hiru komun daude eta pasillo luze bat. Egun EPAk 400dik gora ikasle ditu, eta beraz, Ferrerías kaleko egoitza txiki geratu zitzaizen aspaldi.

J.B.



**Mari Karmen Arantzabal** | Americano tabernako zerbitzari ohia, Argentinara joandakoa

# "Argentinan ondo bizi izan arren, herriarekin akordatu naiz egunero"

- ▶ Bederatzi anai-arreba ziren eta bik Argentinara jo zuten 1950eko hamarkadan
- ▶ 1986ra arte jaioterrira etortzeke egon zen Arantzabal; orduetik hona, maiz etorri da

EDU MENDIBIL | BERGARA

Jaioterrira bisitan etorri da Mari Karmen Arantzabal (Bergara, 1928). Gustura dabil familiaren eta aspaldiko lagunaren artean. 1955ean joan zen Argentinara eta han eman du bere bizitzako zatirik handiena. Seme-alabetako bat Argentinan, Buenos Airesen bizi da eta beste biak Cuencan eta Bergaran. Karnele alabak dauka, hain zuzen, Irrintzi tabernaren ardura azken urteotan. Hantxe egin dugu hitzordua Mari Karmen Arantzabalekin. Bero hartu gaituzte *euskoargentinarrek* eta gaztetako oroitzapenak bizi-bizi dituela erakutsi digu Mari Karmenek.

**Gaztetan San Martin plazako Americano tabernan jardun zenuen...**

Halaxe da. Bergarako lehen emakume zerbitzaria izango nintzen. Aurretik Edurne Aldana ibili zen baina bizkaitarra zen hura... Oso oroitzapen onak ditut. Primeran hartu ninduten tabernako jabeek, Sebastian Etxeberriak eta haren emazteak, Jacobak. Etxekoa nintzen haiantzat eta euren seme-alabak nireak izango balira moduan maitatzen nituen... Americanon hasi aurretik Donostiako alde zaharreko Olosa tabernan egin nuen lan eta han ezagutu nuen nire senarra izango zena, Carmelo Agirre. Bera ni baino lehenago joan zen Argentinara eta ahalordez ezkondu ginen, ni Bergaran eta hura Argentinan zegoela...



Gaurko Galway's tabernaren lekuan zegoen Americano taberna. Argazkian, Mari Karmen Arantzabal, sarrera ondoan. | E.M.

**Gauza bitxia, ala?**

Bai, horixe! On Pepe Larreak, nire aitor-entzuleak, konfesoarek ezkondu ninduen. On Ceferino Oñatibia San Pedroko parrokoa gaixo zegoen eta hari ez zitzaion grazia handirik egiten... Gaixo zegoen eta Tomas Antia, Juan Jose Hernando, Martin Arana eta beste batzuk nire ezkontzan kantatzeko gertu azaldu ziren... On Pepe Larreak ere organoko giltza jarrita laga zuen ezkontzan erabili ahal izateko eta dena primeran irten zen, zorionez. Sasoi hartan beltzez ezkontzen ziren emakumeak eta halaxe egin nuen nik ere. 1954ko maiatzaren 20an izan zen ezkontza eta 1955ko urtarrilaren 21ean abiatu nintzen Argentinara, itsasontziz, Santurtzitik. Santos Alustiza kazetariak ere jaso zuen nire martxa egunkarian... Oso bidaia luzea zen eta otsailaren 10ean iritsi ginen Argentinara amaginarreba eta biok. Berak ekarri zidan aliantza ezkontza egunean. Argentinara iritsi eta gutxira, otsailaren 25an, nire aitona hil zen; zenbat negar egin nuen nik orduan!



Mari Karmen, gaztetan, plazan.

**Herriko topaleku nagusietakoa zen Americano taberna sasoi hartan.**

Herri erdiko taberna dotoreeneta-

**"Norberaren herria ez da inoiz utzi behar; orain seme-alabek sufritzen dute hori..."**

koa zen... Baziren beste batzuk inguruan: Etxenagusia, Club Deportivo, Ollagorra, Lonbide, Euxebio... Sasoi hartan nagusiki gizonak ibiltzen ziren tabernetan. Txikiteoan jende mordo ibiltzen zen eta jendeak tabernan kantatzeko ohitura zeukan. Horren hutsunea nabaritzen dut gaur. Baina bai, jendez lepo izaten genuen taberna, domeka eguerdian batez ere, eguerdiko ordu bateko mezaren ostean. Tabernako saloian 85 aulki genituen, atera kontuak! Txikiak goizeko zortziak aldera gertatzen hasten nintzen eta urtetan izan dut sekretupean errezeta hori... nire alabak eskatu zidan arte. Donostiako Barandiaran tabernako Manolok erakutsi zidan niri eta Argentinatik telefonoz eman nien errezeta alabari eta. Orain beraiek jarraitu behar tradizioarekin...

**Zer moduz joan zaizue Argentinan?**

Ondo. Gu joandakoan urte onak ziren Argentinarentzat eta gero etorri zen gainbehera... Senarrak gozogle jardun zuen eta ondo moldatu ginen hango bizimodura..., ez zegoen besterik. Banfield-en bizi izan gara, Buenos Airesen. Etxean bederatzi anai-arreba ginen eta Sebastian anaia ere Argentinara etorri zen. Kolpe gogorra jaso nuen haren heriotzarekin, 1975ean. 1955ean Argentinara joan eta 1986ra arte ez nintzen berriro etorri. Nicasio aita han nengoela hil zen, 1965ean, eta ama, Margarita Albizu, 1994an. Senarra, berriz, handik gutxira. 1986tik hona makina bat aldiz etorri naiz. Koadro dotorea oparitu zidan Migel Okinak orduan..., eta erretratu bat ere egin zidan. Jose Mari nire anaiaren lagun handia zen. Azken aldiz 2007an egon nintzen Bergaran. Beti da pozgarria etortzea. Argentinan nagoenean beti pentsatzen dut Bergararekin. Norberaren herria ez da utzi behar. Orain nire seme-alabek sufritzen dute hori...

**Nola aurkitu duzu Bergara?**

Ederragoa, handiagoa... galdu egiten naiz orain! Baina sekulako ilusioa egiten dit aspaldiko lagunak agurtzeak. Egunotan Mallorcara joango gara, Andres biloba, ilobak eta Maritxu ahizpa bisitatzea eta Bergaran urriara arte nago. Bihotza erdibituta daukat: Argentinan eta Bergaran egon nahi dut eta ez dakit non bukatuko dudan...

**"Americanoko saloian 85 aulki genituen; domeka eguerdian topera egoten zen"**

## Jon Errastiren Pazkoak, Zizurkilen

E.M. | BERGARA

Joan dira Pazkoak eta aspaldiko lagun baten argazkia iritsi zaigu erredakziora. Jon Errastik ere Pazkoetako zapia jantzi zuen, herriko jaiekin ez huts egiteko. Udaleko arduradunek bidali zioten zapia Zizurkilera, Konsuelo arrebaren bitartez. Hain zuzen ere, Zizurkilen, Uliazpiren Fraisoro zentroan dago Jon 2008ko abendutik, eta primeran zaintzen dutela diosku familiak.

**Ezinbestekoa toki guztietan**

Bien bitartean, Bergarako kaleetan, Jonen hutsunea nabari dugu. Realeko kamisetarekin edo Barçakoarekin jantzita (izan ere, talde

handiak gustuko izan ditu beti...) eta biseratroa buruan, leku eta ekitaldi guztietara iristeko gauza zen, noizbait, kalejiraren baten ziurrenik, Bergarako Udala Musika Banda ia-ia zuzentzeraino ere.

Goienako erredakzioan ere, Bergaran, askotan izaten genuen bisitari. Edozein aitzaki erabiltzen zuen sukalderraino sartzeko eta... batez ere neskak agurtzeko.

Joan den maiatzaren 29an 48 urte egin zituen Jonen. Familia-koekin eta Zizurkilgo lagunekin ospatu zuen. Zorionak, Jon!!! eta besarkada handi bat Goiena egiten dugun guztion partetik. Ondo-ondo segi eta laster arte!



Jon Errasti Konsuelo arrebarekin, Zizurkilen ateratako argazkian.

## OHARRAK

**AGORROSINGO LUDOTEKA**

Udalak Agorrosin kirolgunean dagoen ludoteka kudeatzeko eta Angiozarko ludoteka eta beste zerbitzuak kudeatzeko kontrataziorako deialdia ireki du. Izena emateko epea uztailearen 11ra arte dago zabalik. Argibideak [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean edo 943 77 91 00 telefonoan.

**ODOL ATERATZEA ETZI**

Etzi, eguaztena, odol ateratzea egingo dute Seminarioko lokalean. Ohi denez, 18:30ean hasiko da. Bergarako Odol Emaileen Elkarteak parte hartzeko deia egin die herri-tarrei.



Oñatiko zaleak, festa giroan, Tourreko ziklisten zain. | MIKEL LIZARRALDE

## Tourrera joateko izen-ematea zabalik

Lizarralde Kirolak dendan eman behar da izena egubakoitza baino lehen

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

*Marea laranja* Pirinioetara helduko da laster, Tourreko trope-larekin batera. Han egongo dira oñatiarrak ere. Urteroko hitzordua, eta urteroko erantzuna: Irizar, Garmendia eta Odriozola lagunartek deituta autobuskada bete lagun irtengo da Oñatitik.

Uztailaren 15eko eta 16ko etapak ikusteko irteeran parte hartu gura dutenek Lizarralde Kirolak dendan eman behar dute izena egubakoitza, hilak 8 baino lehen. Bidaiaren prezioa 130 euro da, jana eta edaria barne. 12 urtetik beherakoek 75 euro ordaindu beharko dituzte.

### Aubisquen eta Soulorren

Oñatiko tropela uztailaren 14an irtengo da Olakua auzotik, 14:30ean, eta zuzenean joango dira Lourdesen bukatuko den etapa leku pribilegiatuan ikusteko tokia hartzera. Uztailaren 15ekoa 13. etapa izango da eta 152,5 kilometro ditu. Pauen hasi eta Lourdesen bukatuko da, eta tartean Aubisque eta Soulor igo beharko dituzte ziklistek. Etapa bukatuta, Oñatiko zaleak lekuz aldatuko dira.

Hilaren 16ko etapak, aldiz, 168,5 kilometro ditu, eta Saint Geudens-en hasi eta Plateau de Beille-n bukatuko da.

### Arrikruzeko eszentrika ikusteko espeleoabentura irteera egingo dute domekan, hilaren 9an

Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe konplexu karstikoa ezagutzeko lehen espeleoabentura irteera zapatuan egingo dute. 3-4 orduko irteera da eta beharrezkoa da material eroso, katiuskak eta frontala eroatea. Gehienez 16 urtetik gorako 20 pertsona onartuko dituzte, eta interesatuek alde aurretik eman behar dute izena 943 08 20 00 telefonoan.

### San Martin auzoko babes ofizialeko etxeen zozketa hilaren 13an egingo dute Santa Ana antzokian

San Martin auzoko 4 eta 5. zenbakietan egiten diharduten babes ofizialeko etxeen zozketa hilaren 13an egingo dute, 18:00etan, Santa Ana antzokian. Guztira, 26 etxebizitza zozketatuko dituzte. Etxebidek 169 eskatzaile onartu ditu, baina alegazioak aurkezteko epea zabalik dago hilaren 7ra arte. Zerrendak ikusgai daude Santa Anako beiratean.

### Udako kirol kanpainako bigarren txandako hainbat eskaintzatan lekua dute oraindik

Udako kirol kanpainako bigarren txanda hilaren 11tik 22ra egingo dute. Bada, kiroldegitik esan dute hainbat kirol eskaintzatan lekua dutela oraindik; hain justu ere, mountain bike, mini-tenis, tenis, squash, badminton, patinaje, jolas, pilota, erraketa kirol eta eskalada eskaintzetan. Izen-ematea kiroldegian egin beharko dute interesatuek.

### Domu Santu egunera arte (azaroaren 1a) meza esango dute Urbiako elizan domeketan

Eguraldi ona lagun domeketan Urbia aldera joaten direnek meza entzuteko aukera dute azken asteotan. Maiatzeko lehen domekan hasi ziren, eta Domu Santu egunera arte (azaroaren 1a) elizkizuna egingo dute domekero Urbiako basilizan, 11:30ean. Aita Joseba Etxeberria frantziskotarrak gidatuko du meza. Domekaz gain, beste bi egunetan ere egingo dute elizkizun berezia: hain justu ere, San Inazio egunean (uztailak 31) eta Andra Mari egunean (abuztuak 15) egingo dute meza.

## 340 ume hasi dira 'Milakolore Martxan'

Batzuk urduri, beste batzuk negarrez... baina guztiek gogotsu hasi zituzten udaleku irekiak aurreko egubakoitzean. Hilaren 29rako *Milakolore martxan* ibiliko dira 340 neska-mutiko. Txikienak 4 urtekoak dira eta zaharrenak 10ekoak. Adinka banatu dituzte, eta adin tarte bakoitzerako egitarau berezia prestatu dute.



MIREIA BIKUÑA

### OHARRAK

#### PLASTIKO BILKETA

Baserrietan sortuko plastiko zuria eta beltza batuko dituzte uztailaren 26an. Oñatin lau puntu daude: Zañartun Zuaola inguruan, Murgian Asentzio ermitaren ondoan, ETEO atzealdean eta Olabarrietako autobus geltokian.

#### ARAOTZEKO ZOZKETA

Trinitate jaietako zenbaki sarituak dira: lehen saria –landetxe baten aste bukaera bat–, 2.898 zenbakiarendako; bigarren saria –bildotsa eta urdaiazpikoa–, 1.040 zenbakiarendako; eta hirugarrena –bildotsa– 1.529arendako.

**UGARTE**  
AROTZTEGIA - ALTZARIAK

#### AROTZTEGIA


San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

#### ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

#### BERGARA

Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurrira  
Ateak · Eskailerak  
Leihoak · Tarimak  
Egur lanak



## ARETXABALETA

# Portasoleko Jaiak gertu uztailaren 15ean hasteko

## Kontzertuak, txapelketak eta jolasak izango dira

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaleko hegoaldean bizi diren merkatari, ostalaritza zerbitzuetako kide eta bizilagunak Portasoleko Jaiak gertatzeko lanetan dabiltza. Dirua batzen ibili dira orain arte, eta dagoeneko zehaztu dute egitaraua. Aste bukaera osoko jaiak izango dira, uztailaren 15etik 17ra, eta ekintza asko eta adin guztietako lagundekoak iragarri dituzte.

### Rock jaialdia eta mariatxiak

Saso baten entzute handiko jaiak ospatzen zituzten Portasol aldean, baina azken urteotan ez dute egin ospakizunik. Hori berreskuratu

eta herriko hegoaldeko giroa piztu guran jai dotoreak antolatzeko ahaleginetan dabiltza. Auzo guztiko jaiak izatea gura dute, eta horregatik, bi eszenatoki jarriko dituzte: bata, Zaria tabernaren atzeko partean eta bestea, Araba ibilbidean, Eguzki gastronomi elkartearen aurrean –lehen jartzen zuten lekuan–.

Ekitaldi mordoak iragarri dituzte hiru egunetarako: egubakoitzean, rock jaialdia eta mariatxiak; zapatuan, umeendako jolas parkeak, mus txapelketa, rock jaialdia eta disko festa; eta domekan, tango erakustaldia, xake txapelketa, eta zekorrek eta pottokak.

Horiez gain, kirolari ere egingo diote tartetxo, eta zapatuan Aretxabaleta Kirol Elkarte eta Eibarko betaroen arteko futbol partidua izango da Ibarra futbol zelaian. Eta domeka goizean, mendi martxa.

### Azken zozketa eta kamisetak

Jaiok antolatu ahal izateko dirua batzen dabiltza oraindik eta azkenengo zozketa egingo dute datozen egunotan; Kantabria aldean aste bukaerako egonaldia eta Altamirako kobazuloak ikusteko sarrearak zozketatuko dituzte. Jaietarako ateratako kamisetak ere salgai dituzte 10 euroren truke.



Portasoleko Jaiak gertatzen dabiltzan merkatari eta ostalaritza zerbitzuetako kideak. | M.A.

## 'Suminduen' gainean jardungo dute erretiratuek

M.A. | ARETXABALETA

Orain hilabete batzuk hasitako eztabaida mahaiak lantzen jarraituko dute Basotxoko erretiratuek, eta oraingoan, M-15 mugimenduen eta *suminduen* gainean jardungo dute. Uztailaren 19an, martitzean, elkartuko dira horretarako.

### M-15 mugimendua ezagutu

Eztabaida mahai horien helburua da eztabaidatzen ikastea, gainerako iritzia errespetatzea eta gaia gehiago ezagutzea. Hala, M-15 mugimenduko kideen proposamenak, eskaerak eta leloak aurkeztuko dituzte lehenengo, eta aditu batzuen iritzia jarriko dituzte mahai gainean; Jose Arregi eta Jose Ignacio Fernandez Faus adituena, hain zuzen.

Hori guztia jakinik eztabaida bideratuko dute gero, elkartuta erretiratuen artean.

## Txistulari Egunerako entseguak uztailean

M.A. | ARETXABALETA

Urriaren 9an Aretxabaletan ospatuko duten Debagoieneko II. Txistulari Eguna gertatzen hasi dira herriko txistulariak, eta dagoeneko aukeratu dituzte egun horretako doinuen partiturak. Aukeratu bakarrik ez, lehenbailehen hasi gura dituzte entseguak eta egunak zehaztu dituzte; uztaileko eguztenetan elkartuko dira, Arkupen (18:30), etzi hasita. Hona egunak: 6, 13, 20 eta 27.

### Txistulari guztiei deia

Joan den astelehenean egingo den lehenengo bileran txistulari asko elkartu ziren eta antolatzaileak oso pozik daude. Hala ere, gehiago izan gura dute, eta datozen egunetako entsegu horietara agertzeko eskatu dute.

## Goizetan dago zabalik KZgunea eta ikastaro berriak iragarri dituzte

Uztailean goizetan egongo da zabalik KZgunea (09:00-13:00) eta hainbat ikastaro eskainiko dituzte, horien artean hiru berriak: Mugipuzkoa; Open office writer; eta Metaposta.

Gainera, IT txartela eskuratzeko azterketak egingo dituzte 6an, 12an, 18an, 21ean eta 28an. Izena aurrez eman beharra dago ikastaro zein azterketarako (943 25 23 51).

## Udaletxeko ordutegia 09:00etatik 14:00etara da iraila bukatu artean

Goizez bakarrik dago zabalik udaletxea herritarren zerbitzura azken asteotan (09:00-14:00), eta iraila bukatu artean izango du ordutegi hori. Bertako teknikari gehienak ere 14:00ak arte bakarrik egongo dira; baita Arkupen dauden kultura teknikariak eta Zainduz gimnasioko kirol teknikaria ere.

## ESKORIATZA

## Jaurlaritzara bideratu beharreko agiriak udaletxean hartuko dituzte

M.A. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak eta Jaurlaritzak lankidetzara hitzarmena sinatu zuten orain dela aste batzuk, EAEko administrazioari zuzendutako idatzi eta agiriak udaletxeko erregistroan aurkeztearen gainekoa.

Hitzarmen hori tarteko, hemendik aurrera eskoriatzarrak Eusko Jaurlaritzara bideratu beharreko eskaera, idatzi, jakinarazpen, agiri eta gainerako kontuak Udalaren erregistroan hartuko dituzte. Udaletxean aurkeztutako data hartuko dute kontuan, eta Udalaren ardura izango da dokumentazio hori guztia Jaurlaritzara bidaltzea.

### Ura ordaintzeko epea

2011ko lehenengo hiruhilabeteari dagokion ur hornikuntza tasa ordaintzeko epea egunotan bukatuko dela gogorarazi du Udalak.

Ordainketa hori, helbideratuta duten herritarrei egunean, uztailek 7, kobratuko diete. Eta helbideratu barik duten herritarrek uztailearen 7a arteko epea izango dute borondatezko ordainketa egiteko udaletxean.

Ordaindu barik utziz gero prozedura exekutibo aplikatuko dela jakinarazi dute, eta premiamenduzko errekargua, berandutza interesak, eta sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkiela horiei.

## ARETXABALETA

## OHARRAK

### HAUTZA ALDERA IRTEERA MURRUKIXOREKIN

Murruxikok antolatuta Hautza mendira (Nafarroa) joango dira domekan, hilak 10. Izena emateko azken eguna bihar da, Murruxikoren egoitzan (19:00-20:00). Prezioa, 15 euro.

### JAIKI ELKARTEAREN JAIA

Ikasturtea bukatzeko jaialdia antolatu du Jaikik eguaztenearako (19:00). Dantza erakustaldia egingo dute plaza inguruan.

### 'EL DISCURSO DEL REY' FILMA ASTEAN

Eguaztenean eta egubakoitzean (21:30) eta hurrengo astelehenean, hilak 11, (16:30) *El discurso*

*so del rey* filma emango dute Arkupen. Sarrera, 2 euro.

### PEPA ETA KUTXO PAILAZOAK

Umeek Pepa eta Kutxo pailazoan ikuskizuna izango dute egunean, hilak 7, Arkupen. Sarrera, 2 euro.

### ANDRAMAIXETAKO KARTELA AURKEZTEKO AZKEN EGUNA

Bihar bukatuko da Andramaixetako kartel lehiaketara aurkezteko epea. Udaletxean edo Arkupen utzi behar dira.

### KIROL ELKARTEAK BATZAR OROKORRA

Ezohiko batzar orokorra egingo du Aretxabaleta Kirol Elkarteak hilaren 8an (18:00), Arkupen.



## Autobusa Txarapeako geltokian

Egubakoitza ezkerreko ibilbide berria dute autobusek Aretxabaletan, baita geltoki berriak ere: Txarapean –nagusia– eta Lausitta kalean. Eta hirugarrena, lehendik dagoena, Araba ibilbidean.

Hilaren 11n, baina, berriro egongo da aldaketa, eta Donostiara eta Gasteizera doazen autobusek Azbeko geltokira itzuliko dira, Udalak eta Pesak adostu zutelako egunean. Hala, ibilbide berria Debagoienean joan-etorrian dabiltzan autobusek bakarrik egingo dute.



Lehenik eta behin, Aramaio Baserri Barri ekimena zer den azaldu zieten bisitariei, udaletxean. | ARAMAIO BASERRI BARRI

**ARAMAIO**

## Bioalai elkartearen bisita, Aramaio Baserri Barriren esentzia gertutik ezagutzeko

Elikagai naturalen kontsumitzaile elkarteko 20 lagun Aramaion izan ziren ekainaren 26an, Udaleko ordezkariekin eta ABB ekimeneko kideekin batera



Eguerdian berrikuntza eta ikerkuntza zentroa izango dena ezagutu zuten. | ABB



Azkenik, Aramaioko ortu ekologikoak bisitatu zituzten. | ABB

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Bioalai Arabako elikagai naturalen kontsumitzaile elkarte Aramaion izan zen bisitan ekainaren 26an. Helburua, Aramaio Baserri Barri ekimena ezagutu eta egitasmoaren proiektu ezberdinak gertutik jarraitzea.

Egun berezia izan zen Aramaio Baserri Barri ekimenaren bultzatzaileendako. 900 familiak lagundu eta 200 pertsonak baino gehiagok osatzen duten Bioalai elikagai naturalen kontsumitzaile elkarteko 20 bazkide izan ziren eta Aramaion. Euren zain zeuden Udaleko ordezkariak eta ABB ekimenaren atzean lanean dihardutenak. ABB egitasmoaren aurkezpena egin ostean, 11:30ean Aramaio Sagarzaleen Elkartek zukua egiteko duen lokala bisitatu zuten. 12:00etan Aramaio berrikuntza eta ikerkuntza zentroa -ABB proiektuarendako ezinbestekoa dena- bisitatu zuten. Gero, Iturrieta sagardotegian sagardo ezberdinen dastatzea eta Aramaioko produktuekin prestatutako bazkaria egin zuten. Azkenik, Aramaioko ortu ekologikoak ezagutu zituzten. Bioalaiekoak pozik eta, noski, etxeak ere bai.

**ANTZUOLA**

## Abesbatzak egingo dio jaietako hontzari ongiatorria aurten

Azken urteotako ohiturari jarraituz, jaietako eguenean jaitsiko da hontza kanpandorretik

**USOA AGIRRE** | ANTZUOLA

Herriko jai batzordeak dagoeneko gertu du jaietako egitaraua. Eguenean, uztailek 14, hasiko dira, eguerdian, udaleku irekietako umeen pregoiarekin. Iluntzean dantzak izango dira eta udalbatza berriak soka-dantza egingo du. Gauerdian hontza jaitsiko dute kanpandorretik

udaletzeko balkoira. Aurten herriko abesbatzak egingo dio ongi-atorria hontzari. Horrela, Jai batzordeak "abiesbatzakoei esker ona adierazi" nahi die, "egindako eta egiten duten lanarengatik".

Aurtengo jaietako nobedadeetako bi dira eguenean plazan egingo den kale-afaria eta afalosteko kantu-afaria; eta egubakoi-

tzear gastronomi lehiaketaren ostean egingo den kale-bazkaria. Lehenengoan ez da izenik eman behar, baina bigarreneko erre-serba egin behar da. Gastronomi lehiaketan parte hartzeko ere izena eman behar da.

**Kontzertuak**

Musikariek ez da faltako jaietan. Plazan Trovahabana kubatar taldearen saioa izango da egubakoitzean; zapatuan Joselu Anaia; eta domekan Izer, Alabier eta Lutxurdiorekin erromeria.

Txosnetan Niet Roken, Etxe osteko behiak eta Joxpa egubakoitzean; zapatuan, Egurra ta kitto, Skasti eta 8 Ipurdi.

**ELGETA**

## 64 umerekin eta sei hezitzaileekin martxan dira aurtengo udalekuak

Lau taldetan banatuta gai bat landuko dute astero; amaieran, Basondora egingo dute irteera

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Ferixa Nagusiko jaien bihar-munean zabaldu ohi ditu ateak uztaileko aisialdi zerbitzuak eta gaur, astelehena, 09:00etan elkartuko dira neska-mutikoak eta hezitzaileak. Ludoteka-gaztelekuan egin dute hitzordua eta programako lehenengo ekintzei hasiera emango diete.

Aurtengo aisialdi kanpainaren nondik norakoak azaltzeko hezitzaileek martitzenean egin zuten batzarra gurasoekin. 2011ko kanpainak 64 neska-mutiko hartuko ditu eta Udalak sei hezitzaile kontratatu ditu zerbitzua emateko: Ane, Maialen, Mireia, Kepa, Etor eta Mireia izango dira hezitzaileak.

**Basondora uztailearen 22an**

Aurreko urteko dinamika jarraituz, aurten ere adinka bananduko dituzte neska-mutikoak. Lau talde egingo dituzte.

Zerbitzua uztailearen 29ra arte emango du Udalak, eta, hezitzaileek aurreratu dutenez, gai bat landuko dute aste bakoitzean. Hala, gai horrekin lotutako ekintzak eta eskulanak egingo dituzte. Irteera ere antolatuko dute: uztailearen 22an, bari-kua, Basondora eta Omara joango dira. "Gure lan dinamikarekin jarraituz, errespetua, euskara, lankidetzaren, aniztasuna, hezkidetzaren, herritartasuna, parte-hartzea... landuko ditugu", adierazi dute hezitzaileek.



Udalekuko neska-mutikoak, iaz, San Roke kalean, entzierroan. | L.Z.

**LEINTZ GATZAGA**

## Pilota txapelketako finalak, gero eta gertuago

Haurren eta beteranoen bigarren mailan gatzagarrak izan dira nagusi eta finalean daude

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Poliki-poliki bukatzen dabil Dorleta pilota txapelketako ligaxka. Atzo, uztailek 3, ez zen izan partidurik -txirrindulari lasterketa tarteko-, eta datozen hiru domeketan jokatuko dituzte azken partiduak. Hainbat kategoriatan, baina, finala jokatuko zeintzuk sailkatu diren ezaguna da. Final horiek irailean izango dira, 9an eta 11n, Andramaixa jaien barruan.

**Gatzagako bikote bi finalean**

Beteranoen bigarren mailakoek azken partiduak jokatuko zituzten ekainaren 25ean eta sailkapenean lehen gatzagarrak izan dira: Heriz eta Bengoa. Haien atzetik geratu dira Azpilikueta eta Korta arrasatearrak; eta hirugarren, Eraña eta Atxa aretxabalearrak.

Haurren mailan ere Ajuria eta Ajuria gatzagarrak izan dira nagusi, norgehiagoka bizia jokatuz ondoren Aramaio Arregi eta Gardokiren aurka (22-18). Hala, Andramaixetako finalean izango dira horiek ere. Bigarren sailkatu dira Iturriotz eta Egia arrasatearrak, eta hirugarren, Arregi eta Gardoki aramaioarrak.

Kimuek ere ligaxkako azken partiduak jokatuko zituzten. Eta hona sailkapena: lehenengo, Murua eta Errarte (Arrasate); bigarren, Oñate eta Urtzelai (Eskoriatza); eta hirugarren, Llodio eta Elkorobarrutia (Arrasate).

Lehenengo eta bigarren sailkatutakoek jokatuko dituzte finalak, eta oraindik benjaminak, gazteak eta lehen mailako beteranoak daude erabakitzeko.

## TELEBISTA



Telebistaren irabazlea uztailaren 18an jakinaraziko dugu.

## 16"-ko LCD telebista



- TDT integratua.
- PCrako konexioa.
- HDMI.
- USB 2.0.

EUSKALTELEKO  
KAMISETAK

Kamiseten irabazleak uztailaren 11n jakinaraziko ditugu.

**2**  
zozketetan  
parte  
hartzeko

Parte-hartzaile  
guztien artean  
zozketatuko da.

Telefonoz: 943 25 05 05

e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

SMS bidez.

Bidali KLUBA TB [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.

Bidali KLUBA KAMISETA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzeko. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, hain zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

2011n  
atera etekina  
txartelari

## AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99  
■ Bi erosi eta bat ordaindu  
(sarrera garestiena ordainduko da)



## AVIA MECA GASOLINDEGIA

Arrasate, 943 79 13 39  
■ %2 gasolindegian erregaia erosita.  
■ %2 dendako produktuetan



## AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA

Eskoriatza, 943 71 45 66  
■ %8 deskontua asteburuko egonaldietan.  
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero,  
botila bat txakolin opari (Mendrak).  
■ %10 deskontua jatetxeko kartan.



## BARCELÓ BIDAIAK

Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43  
■ 1.000 eurotik gorako erosketekin  
"B Plana" OPARI  
(kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldia,  
irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)



## BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21  
■ -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.



## GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41  
■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.



## ESKO SPORT KIROL DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96  
■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan



## GAES ENTZUMEN ZENTROA

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55  
■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



## CLÍNICA DENTAL BERGARA

Bergara, 943 76 05 77  
■ -%10 zerbitzu guztietan  
■ -%15 inplanteetan  
■ Aho-garbigeta doan,  
■ 120 eurotik gorako tratamenduetan  
Bazkidearentzat eta familiako batentzat



## IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48  
■ Sukalde osoa erosita, mikrouhin-labea opari.



## LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71  
■ -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa  
(besapekoak opari).  
■ -%20 elikagai-intolerantzia proban.  
■ -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo  
bekainak.  
■ -%10 fototerapia bidezko aknearentzako trata-  
menduan.  
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



## MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75  
■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



## NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89  
■ -%15 zerbitzu guztietan.



## RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72  
■ -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo pro-  
mozioa.  
■ -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte  
osoan.  
■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.  
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handia-  
goa badugu,  
bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.



## TXIKI ZOO

Aretxabaleta, 943 79 51 15  
■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena  
doan.  
■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan  
(izakinak agortu arte)



## TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA

Donostia, 943 46 44 00  
■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan  
(ez bada jalegun, jalegun bezpera, zubia edo oporraldia)  
■ -%20 zapatu eta domeketan  
(ez bada zubia edo oporraldia)  
■ -%10 zubi eta oporraldietan.



## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78  
■ %10 deskontua.



# KIROLA

XXXIV. DORLETAKO AMA

## Bidelanen lan ona zapuztu eta Montenegrorentzat garaipena

Haren taldekideek autoen babesera erabili izanaz kexatu zen Odriozola

JULEN IRIONDO | LEINTZ GATZAGA

Jon Odriozola oñatiarrak zuzentzen duen Bidelan-Kirolgi izan zen domekan Leintz Gatzagan jokaturako afizionatu mailako lasterketako -Euskaldun sarikoa- talderik onena; hala erakusten du gipuzkoarrek taldekako sailkapena irabazi izanak. Sari nagusiak, baina, ospa egin zien Odriozolaren mutilei, honen esanetan ez oso kirol legez, dena den.

Lasterketa amaitzeko 20 kilometro inguru falta zirela, Arrasatera iristen eraso jo eta lau txirrindulari geratu ziren buruan: Bidelaneko Haritz Orbe eta Borja Abasolo eta Lizarteko gizon bat eta Caja Ruraleko beste bat. Haien atzetik geratu zen hamar laguneko taldetxoak, denak Jorge Montenegro Azysakoari begira;

bai baitzekiten bera zela denetan indartsuena, aurrekoak harrapatzeko erantzukizuna hari utziz. Egin zituen aurrekoekin bat egiteko ahalegin batzuk, baina Bidelaneko beste kideek, Ugaitz Artola eta Jon Garatek, bikain egin zuten kontrol lana, Montenegroren gurgilera behin eta berriz irtenaz.

**Atzetik aurrera, auto artean**

Minutuko tartea lortu zuten aurrekoekin, eta garaipenak euren artekoa zirudien. Atzeko taldera, baina, Montenegroren taldekide bi iritsi ziren eta gogor egin zuten tira aurrekoak harrapatzeko.

Leintz Gatzagara iritsi aurreko azken maldetan egin zuten bat atzekoekin aurrekoekin, eta azken metroetan indartsuena



Jorge Montenegro, Azysa taldeko argentinarra, Leintz Gatzagako helmugan sartzen. | JULEN IRIONDO

irabazi zuen. Odriozola kexu agertu zen, Montenegroren taldekideek autoen babesera erabili zutelana eta aurrera iristeko.

### SAILKAPENA

1. Jorge Montenegro (Azysa)
2. P. Kneppers (C.Rural) 6ra
3. A. Belmouktar (Telco) 15era
4. J. R. Larrinaga (Liz.) 21era
5. Ugaitz Artola (Bidelan) d.b.
6. Jon Garate (Bidelan) d.b.
7. J. Perdiguero (C.Rural) d.b.
8. Haritz Orbe (Bidelan) 43ra
9. E. Murgoitio (Hirumet) d.b.
10. Peter Van (Azysa) 1:10era

JON ODRIOZOLA | BIDELAN-KIROLGIKO ZUZENDARIA

### "Ea lan onak balio duen Gipuzkoan profesional mailako taldea sortzeko"

Ezer baino lehen bere taldea zoriandu zuen oñatiarrak.

**Sari gabeko lana.**

Indartsuenak irabazi du, Montenegrok; zorionak hari. Baina talde-lanarekin irabazi dakioko, eta guk lan ederra egin dugu estrategikoki. Kritika txiki bat epaileei, ze ez dira oso argi ibili.

**Zergatik diozu hori?**

Orbe eta Abasoloren taldetxoak minutuko aldea zuela, Montenegroren taldetxora bi taldekide iritsi zaizkio, ez dakit nondik. Epailerek autoak geratu egin behar



Jon Odriozola. | J.I.

dituzte. Horrek eragotzi digu lasterketa irabaztea.

**Denboraldiarekin, bestela, pozik?**

Garrantzitsua zen Espainiako Kopako taldekako sailkapena irabaztea, hori handia izan da guretzat. Baita irabazitako Erkidegoko eta

herrialdeetako beste txapelketak ere. Ez nituen halako emaitzak espero hain denbora gutxian. Ea balio duen helburua lortzeko: Gipuzkoan profesional mailako taldea sortzea; zerbait badago, baina oraindik ezer zehatzik ez.



**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

www.mondragon.edu/gep

» Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/enpresagintza

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012

Matrikulazioa

Uztailaren 4tik aurrera

MGEP	OÑATI Gestio Heziketa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak</li> <li>• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.</li> <li>• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa.</li> <li>• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua.</li> <li>• Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa</li> <li>• Industri Ekipoaren Mantenimendua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazioa eta Finantzak</li> <li>• Idazkaritza</li> <li>• Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a</li> </ul>
<b>Kontsulta pertsonalak:</b>	
943 71 21 91 E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu	943 71 80 09 E-posta: enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu



ARANTZAZUKO IGOERA

## Mikel Aristi bergararrak ez zuen huts egin

Pronostikoak bete eta, besteak beste, Gipuzkoako Itzulia irabazi berri duen Mikel Aristi Sumoficeko txirrindularia nagusitu zen zapatuan Arantzazuko Igoerako XLII. edizioan. Bi kilometro faltan eraso jo eta 12 eta 19 segundo atera zizkien Caja Ruraleko Asier Unanueri eta Iker Azkarateri. Oñatiar onena, Iker Arkauz.



JOSETXO ARANTZABAL

## MENDI BIZIKLETA

# Gustura hartu dute parte-hartzaileek aurtengo nobedadea, enduro proba

Ohiko zeharkaldia ere egin dute, iaz hasitako bideari jarraiki

JULEN IRIONDO | ARETXABAETA

Bigarren urtez antolatu du Dorletako Ama txirrindularitza eskolak mendi bizikleta irteera Aretxabaletan, eta aurrenekoz enduro deritzon proba. 106 lagunek hartu zuten parte dena -endu-

roan gehiagok mendiko bizikletan baino-, eta bai kirolari eta bai antolatzaileak ere gustura geratu ziren probak emandakoarekin.

Bi ibilbide prestatu zituzten domekarako, mendi bizikletako

ohikoa eta endurokoa. Enduroaren berezitasuna da jaitsierak teknikoagoak direla: "Gorantz egitea gehiago kostatzen da, baina behera asko gozatzen dute bizikletaren gainean", zioen Markel Uriarte antolatzaile lanetan ibili zenak.

## Inguruko jende gutxitxo

Enduroan parte hartu zutenek amaieran esan omen zuten gogorra izan zela proba, baina merezi izan zuela. Mendiola, Urkulu, Larrino... herri inguruko para-jeetan ibili ziren. Bideak ondo prestatuta zeuden eta, zaparradaren bat bota bazuen ere, eguraldia portatu egin zen oro har. Eroriko batzuk izan ziren, baina ezer garrantzitsurik ez.

Ibilbidean bi postu izan zituzten parte-hartzaileek jateko eta edatekoekin, eta amaieran hamaketako bikaina. Hala aitortu zuten Aretxabaletako helmugara gosez iritsi zirenek. Izandako arrakasta ikusita, datorren urtean ere ibilbidea errepikatzeke asmoa agertu dute antolakuntzako kideek. Pena bakarra zuten atzo, bailarako jende gutxitxok hartu omen zuela parte aukeran. Bitxikeria moduan, Budapesteko lagun bat izan zen irteeran.



Aretxabaletako plazan izan zuten irteera. | JOSETXO ARANTZABAL



FRANTZIAKO TOURRA

CYCLINGNEWS.COM

## Ez dituzte helburuak bete

Iban Velascoren eta Markel Irizarren taldeek oso helburu desberdinak zituzten atzoko taldekako erlojuaren kontrako saiorako, baina ez batzuek ez besteek ez zituzten bete eurenak. RadioShack zen 23 kilometroko saioa irabazteko faboritoetako bat, baina Irizarrenak seigarren izan ziren Garmin irabazlearengandik hamar segundora. Velascoren Euskaltel, ostera, azkena izan zen, 1:22 galduta.

## XANTINI LAGUNARTEA

### 1.122 apustu egin dituzte aurtien Arrasaten antolatzen duten Frantziako Tourreko porran

Arrasaten urtero antolatzen duten Xantini lagunartearen porrak errekor berria ezarri du zapatuan hasi zen Frantziako Tourraren. Atzo arratsaldean itxi zen izena emateko epea, eta guztira 1.122 izango dira hiru asteko lasterketa onena interes bereziarekin jarraituko dutenak, euren aukeratutako txirrindulariek zer egingo. Monte eta Estrella tabernetan egiten dute porra, baina aurtien asko izan dira Internet bidez taldeak egin dituztenak ere: 300. Aurtengo irabazleak ere mokadu ederra eramango du.

## GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOEN ESKAINTZA 2011-2012

## MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

### Tituluak

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa.
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua.
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Industri Ekipoaren Mantenimendua.



**BERRIA**

**Eta hurrengo ikasturtean, gainera...**

*Matrikula zabalik!!!*

**943 71 21 91**


**www.mondragon.edu/geb**

## SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK

- Edukiak:
- Elektrizitatea eta elektronika
  - Domotika eta automatizazioa
  - Energia berriztagarriak
  - Telekomunikaziorako azpiegitura komunak



Aitor Mendizabal indar biziz pilota astintzen, Ezkurdia atzean zain duela. | JOSETXO ARANTZABAL



Ezkurdia Mendizabal baino gehiago izan zen barikuan. | J.A.

## PILOTA

# Ezin Elgetako txapelarekin agurtu Mendizabalek afizionatu maila

► Antzuolarrak ez zuen bere bolea ohi bezala aprobetxatu, eta Ezkurdiak mendean hartu zuen

JULEN IRIONDO | ELGETA

22 eta 15. Hori geratuko da Aitor Mendizabalen afizionatu mailako azken emaitza gisa. Pena, profesionalek jautsi egin aurreko azken partidua irabazteko polita gainera, Elgetako lau terdiko finala izanda irabazi ezina.

Izandako aste bereziagatik agian hiru urterako kontratua hitzartu du Asperekin, urduri hasi zuen partidua Mendizabalek: horren erakusle, sakez egindako bi faltak. Eskuin bolea du Antzuolako ezkerrek bere arma nagusietakoa, baina bariku gabeko lehia ez zuen ohi bezala asmatu txokoan goxo utzitakoren bat edo beste oparitu zien zaleei.

Bestelako oparitxo batzuk ere egin zituen, dena den; hauek Ezkurdia kontrarioari: 13 eta 10 irabazten joan ostean, adibidez, tantoa polit amaitu nahi eta amaitu gabe utzi zuen, bolez goxo kontrakantxara bidalita.

Hamahirunako berdinketaren ostean argiago hasi zen nagusitzen Ezkurdia. Sakearekin min egiten du, eta tantoa amaitzeko abantaila hartu horrela. Azkenean 22 eta 15 irabazi zuen nafarrak.

Giro paregabea izan zen bariku gabeen Elgetako frontoian. Mendizabalek zale ugari eraman

zituena Antzuolatik, baina ez ziren gutxiago eta isilagoak Ezkurdiak eramandakoak. Elastiko gorriak soinean, gogotik ospatu zuten lagunaren garaipena.

Ezin beraz nahi bezalako amaierarik eman Mendizabalek amateur mailako ibiliari: "Gaur ez da ondo ibili, baina Aitorrek badezake", zioen amaieran itxaropentsu Juan Luis Ubera Ozkar-

bi elkarteko kide eta Elgetako lau terdikoaren antolatzaileak. "Azken urtebetean bi aurrelari onenetako bat izan da. Abiadura ematen dio pilotari, eta defentsan ondo moldatzen da. Bigarren mailako profesionalekin ondo ibiliko da, eta ea zorzea duen eta gora egiten duen", zioen.

Mendizabalen jautzia hizpide izan zen, nola ez, barikuan Elgetan. Reyes Azkoitia Bergarako teknikariak zioen afizionatu mailan egin daitekeen guztia egin duela, baina beldur bat agertu zuen: "Orain ez da lehen bezala. Lehen profesionalek heldu eta urte askorako izaten zen; orain, kontratua amaitu eta bota egiten zaituzte igual, eta pilotariak morala galtzen dute". Dena dela, berekin ariko diren batzuk beste badela zioen Azkoitia.

23 urtez azpiko finalaren aurretik kadete mailakoa ere jokatu zen ohi bezala. Beste partiduaren eskema izan zuen honek ere. Lehenengo erdi parekatua, baina gero Xabier Tolosa anoetarrak gora egin zuen eta Jokin Altuna amezketarrak ezin eutsi. Tolosak sakeak ezker paretatik egiteari ekin zion, eta ondo atera zitzaion. Tantoak amaitzen asmatu eta 22 eta 13 irabazi zuen.

## ESANAK

**"Afizionatu mailako bi aurrelari onenetako bat izan da Aitor"**

JUAN LUIS UBERA | OZKARBI

**"Profesional? Ez da lehengo eran; kontratua amaitu eta kalera igual"**

REYES AZKOITIA | BERGARA K.E.

AITOR MENDIZABAL | PILOTARIA

**"Ez ditut aukerak aprobetxatu, pasatako aste berezia ez da aitzakia"**

Aspeenpresaren deia jaso ostean, amateur mailako azken lehia izan zuen antzuolarrak Elgetakoa.

**Ezin izan da.**

Urduri hasi naiz; sakez egindako faltak ere eragin didate. Aste aldrebesa eduki dut, baina ez da aitzakia. Aukerak

eman dizkion, eta nirek ez ditut aprobetxatu.

**Honek ez du, dena den, ibilbide ona iluntzen.**

Hiruzpalau urte on daramatzat. Pilotari denen nahia da profesio-



Mendizabal. | J.A.

nal izatea, eta aukera eman didate; orain topera entrenatu behar dut, ahal den dena saiatu.

**Espero zenuen?**

Ikusten duzu beste batzuk ematen dutela saltoa, eta zu beti hortxe-hortxe. Ez espero arren, etorri da aukera eta saia-

tuko naiz aprobetxatzen.

**Uste duzu baduzula oraindik hobetzeko aukera?**

Orain dedikazio gehiago izango dut. Bai, uste dut gehiago jokatzerira iritsi naitekeela.

JOKIN ETXANIZ | ASPEKO TEKNIKARIA

**"Nerbiodun pilotaria da, abiadura handia ematen diona, ikusgarria"**

Antzuolakoaren fitxaketa horrela ikusten du pilotari ohi bergararrak.

**Mendizabal, profesional.**

Bi urteotan ondo zebilen; gora egin du, aurrelari bat sartzeko aukera egon da eta enpresak egoki ikusi du bera.

**Kontratu ona: hiru urte.**

Hiru urteko kontratua ona da pilotariarendako; zerbait gertatuta ere, bi gutxi izan daitezke. Horrela denbora dago lanerako, eta ea emaitzak iristen diren.



Jokin Etxaniz. | J.A.

**Zer du Aitorrek?**

Nerbiodun pilotaria da, abiadura handia ematen diona. Ikusgarria da jendearendako. Baditu gauzak ikasteko, baina ea gora egiten duen.

**Hobetu dezake?**

Bai, zergatik ez? Gainera, gure pilotak fuertekoak dira eta

hori ona da bere jokorako; hori alde izango du.

**Bailarako bat goian, atzera.**

Bai, poztekoa da. Ea gehiago ere ateratzen diren; pozik hartuko genituzke.



KROSA

# David Garcia durangarra izan da Torreauzoko herri krosean azkarrena

► Aurreko urteetan baino parte-hartze handiagoa egon da; 130 korrikalari izan dira Torreauzoko irteeran

ANDER MONEDERO | OÑATI

David Garcia durangarra izan zen domeka goizean Torreauzoko herri krosak dituen 7,5 kilometroak egiten azkarrena. Azken 13 urteetan bezala, Antxintxiketan kirol elkarteak Oñatiko Torreauzoko jaien barruan lasterketa antolatu du.

Beste urte batzuetan ez bezala, eguraldiak ere lagundu zuen. Nahiz eta lasterketa hasi baino lehenago euri pixka bat egin, ez zen beste urteetako berorik izan eta lasterkariak hori eskertu zuten. Irteeran bildu ziren 130 korrikalariak tiroa entzun bezain laster hasi ziren korrika. Hasieratik erritmo bizian hasi zen lasterketa eta lehenengo kilometrorako talde ezberdinetan banatu zen lasterketa.

Denbora ona egin nahi zuten korrikalariak aurrean jarri ziren,

eta lasterketaz gozatzera joan ziren korrikalariak antzean geratu ziren. Korrikalariak malda gora Olateraino joan ziren eta bertan, buelta eman eta berriz ere irteera puntura abiatu ziren. Puntu horretan apurtu zen lasterketa: lasterkari batzuk maldan behera eraso egin zuten eta lasterketako lehenengo hiruak besteekiko distantzia handia lortu zuten.

Baina hiruetako batek ezin izan zion erritmo gogor horri eutsi eta Ruben Lanz legazpiarra eta David Garcia bakarrik geratu ziren. Metarako 500 metro falta zirela, Garciak eraso egin zuen eta bakarrik iritsi zen Torreauzora. Emakumezkoetan, berriz, Estela Biain oñatiarra izan zen azkarrena. Biain aurrealdean zegoen talde batean sartu zen eta gertu beste emakumerik

ez zegoela ikusita, inork estutu gabe iritsi zen helmugara. Oñatiar azkarrena, berriz, Sergio Garcia izan zen. Garcia beste oñatiar batekin iritsi zen metaraino baina azkenengo momentuan honek estutu eta herriko lasterkari azkarrena izatea lortu zuen.

**Gehienek jaso zuten saria**

Torreauzoko krosa herri lasterketa bat da eta horregatik Antxintxika taldekoek parte hartzaile guztiak saritu nahi izan zituzten. Horregatik sari banaketaren bukaeran, parte hartzaile guztien dortsalak kaxa batean sartu eta lasterketako babesleek emandako materialarekin osatutako 40 sorta banatu zituzten.

Bukaeran, antolatzaileak pozik agertu ziren lasterketak korrikalari eta ikusleen aldetik izan zuten erantzunarekin.



David Garcia korrikalari durangarra, helmugara sartzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Estela Biain oñatiarra izan zen azkarrena emakumezkoetan. | JOSETXO ARANTZABAL



Torreauzoko herri krosetako irabazleak podiumean. | JOSETXO ARANTZABAL



**DAVID GARCIA**  
IRABAZLEA

"Erritmo bizian hasi dugu proba eta ibilbideak aldats asko dituen gogorra egin zait. Azken metroak maldan behera dira eta abiadura handian bukatu dugu lasterketa. Ihesaldia egin dugu hiru lasterkarik, baina gutxi gorabehera bide erdian batek ez dio erritmoari eutsi eta azken 500 metroetan eraso egin dut eta metara bakarrik heltzea lortu dut. Pozik nago gaurko garaipenarekin".



**ESTELA BIAIN**  
IRABAZLEA

"Askok gustatu zait gaurko lasterketa. Giro ona egon da eta eguraldiak lagundu egin du. Hasieran euri pixka bat egin du eta nahiz eta hezetasuna egon, korrika egiteko eguzkiarekin baino giro hobea izan da. Torreauzoko krosa lasterketa motza da eta bakoitzak duen indarra neurtzea ezinbestekoa da. Maldan gora asko kontrolatu dut indarra eta bueltan askoz ere azkarrago ibili naiz. Nire erritmora joatea lortu dut, izan ere, lasterketaren erdian nire inguruan emakumezkoek ez zegoela konturatu naiz eta ez dut presiorik izan. Lasterketa honetan egoten den giroa oso ona da eta jendeak asko animatu gaitu".



**SERGIO GARCIA**  
OÑATIAR AZKARRENA

"Oñatiarra izanda ibilbidea ondo ezagutzen dut eta indarrak ondo neurtu ditut. Karrera osoa beste oñatiar batekin egin dut, baina azkenean bere aurretik helmugaratzea lortu dut. Oso gogor hasi da lasterketa, erritmo bizia izan du eta hasieran maldan gora ondo joan gara; karreraren aurrealdean egotea lortu dut".



**ASIER OSINAGA**  
ANTOLATZAILEA

"Eguraldiak lagundu egin du, ez dugu berorik izan. Jendeak ere ondo erantzun du, guztira 130 parte hartzaile izan dira eta herritar asko etorri da lasterketa ikustera. Kros herrikoia antolatzea da gure helburua, korrika eginez disfrutatzea prestatuta dagoela uste dut. Domeka goiz baterako plan polita da Torreauzoko krosa".

## MENDIA

# Omenaldia jaso eta hiru egunetara beste bat irabazi

Espainiako txapelketa da Oihana Kortazar atzo Lleidan irabazi ostean; ibilbidea moztu egin behar izan zuten

**JOKIN BEREZIARTUA | ELGETA**  
Mendian gora orain bertan Oihana Kortazarrek ez dauka aurkatorik. Azken probetan erakutsitako nagusitasunari eutsiz, korrikalari elgetarra Espainiako txapelketa bertan irabazi du. Lleidan egin zen II SkyMarathon Ribagorza Romanica izeneko lasterketan jantzi zuen txapela.

Eguraldiak proba osoa baldintzatu zuen. Ekaitz arrisku handiagatik antolatzaileek elitekoendako ez zen ibilbidea jartzea erabaki zuten. Hau da, 42 kilome-

tro eta 2.970 metroko desnibela beharrean 21 kilometro eta 1.300 metroko desnibela. Horrek batzuei mesede egin zien eta beste batzuei kalte; hori bai, asmoa da datorren urtean munduko txapelketa bertan egitea eta atzokoa ez zen entsegurik onena izan.

## 21 kilometro, baina gogorra

Hala ere, proba gogorra izan zela dio Kortazarrek: "Motzagoa izan arren oso aldapa gogorak aurki zitezkeen. Zortzi kilometro egin ditugu gora eta 13 behera; jaitse-

ra teknikoak zen". Nagusitasunez irabazi zuen proba: "Hasieratik aurrean joan naiz eta bigarren egin duen Blanca Serranori lau minutu sartu dizkiot tontorrean eta bi minutu helmugan", azaldu du atleta elgetarra. Bi ordu eta bederatzita minutu behar izan zituen proba gauzatzeko. Amaitzeko, gaineratu du ibilbidea moldatu behar zela: "Ez zegoen besterik. 2.900 metroko mendi batera igo behar ginen, ezkututako bailara baten. Han ekaitzak harrapatuz gero... oso arrisksua zen".

## ESANAK

"Motzagoa izan arren oso aldapa gogorak aurki zitezkeen"

"Blanca Serranori lau minutu sartu dizkiot tontorrean eta bi helmugan"

"Ez zegoen besterik. Ekaitzak han harrapatuz gero..."

OIHANA KORTAZAR | MENDI LASTERKETETAKO ESPAINIAKO TXAPELDUNA



Hasieratik buruan jarri zen Kortazar; helmugan bi minutu sartu zen bigarrena, Blanca Serrano. | RIBAGORZA ROMANICA



Herriko jaien hasieran omenaldia egin zioten; irudian, Intxortako Lehoiak lagunartean orogarra jasotzen. | IMANOL GALLEGO

## ARKU-TIROKETA

## Lan ona egin du Txantxiku Arkulariak taldeak Basoko Euskal Herriko arku-tiroketa txapelketan

**J.B. | OÑATI**

Txantxiku Arkulariak taldeko kideek antolatuta eta Gipuzkoako eta Euskal Herriko arku-tiroketa federazioaren laguntzaz, Euskal Herriko txapelketa jokatu zuten atzo Oñatiko Arantzazu auzoko Zozopasegunean. 72 parte hartzaile batu ziren eta Gorka Bikuña talde oñatiarreko kideen arabera, eguraldia lagun, gustura aritu ziren, baita ikusleak ere.

### Bi aretxabaletar podiumean

Hiru kide nabarmendu ziren oñatiarren artean. Oihana Mar-

zanek seigarren egin zuen arku instintiboa modalitatean, Koldo Elortzak bosgarren arku librean eta Gorka Bikuña laugarren longbow modalitatean.

Debagoieneko beste ordezkariak dagokienez, Irune Lacalle eta Antonio Vidriales senar-emazteen lana aipatzekoa izan zen. Lacallek arku instintiboa bigarren egin zuen eta haren senarrak, berriz, hirugarren postua eskuratu zuen arku zuzenean; biak podiumera igo ziren, beraz.. Aretxabaletarrak izan arren Ordiziako taldearekin lehiatu ziren.



Parte hartzaileen talde argazkia, probaren amaieran. | GORKA BIKUÑA

## FUTBOLA

## Aitor Fernandez arrasatearra, Kolonbiako Munduko txapelketara

**J.B. | ARRASATE**

Espainiako 20 urtez azpiko futbol selekzioak Kolonbian jokatuko du abuztuan Munduko Txapelketa, eta Julen Lopetegui hautatzailearen zerrendan dago Aitor Fernandez arrasatearra. Maiatzean egin genion elkarrizketan aitortu zigun txapelketan egoteko itxaropena zuela.

Uztailaren 16an Madrilen elkartuko dira eta Las Rozasen entrenamendu saio batzuk egin ostean, hilaren 19an hartuko dute Kolonbiarako hegaldia. Kolonbian beste entrenamendu batzuk egin ostean hilaren 23an Limara (Peru) joango dira lagunarteko partidu bat jokatuz. Uztailaren 29tik abuztuaren 20ra arte jokatuko da txapelketa: Espainia C multzoan egon-

go da, Australia, Ecuador eta Costa Ricarekin batera.

### Lesiotik errekuperatuta

Aukeratuen artean egonda Arrasatekoak erakutsi du erabat gaingitu duela atzamarrean egin zioten ebakuntza.



Aitor Fernandez. | XABIER URTZELAI

## FUTBOLA

## Ipintzako futbol txapelketa azken txanpan sartuko da: ligako finala hilaren 15ean eta kopakoa 18an

Azken txanpan da Ipintzako futbol txapelketa. Ligako final laurdenak jokatuko dira, 19:00etan: hilaren 5ean Excalibur-Langosta, 6an Irama-Badulake, 7an Juve-Patixokuak eta 8an Oxinola-Santana. Kopako finalerdiak bihar eta etzi jokatuko dira, 20:00etan: Mongitxarrak-Getokuak eta Indar Gorri-Diego Valor, hurrenez hurren. Ligako finalerdiak hilaren 12an eta 13an jokatuko dira eta final handia, berriz, uztailaren 15ean. Finala Agorrosinen jokatuko da, belar naturalean. Kopako finala, berriz, hilaren 18an.

## BERGARA

Pedro Rico | BKEko presidentea

# "Futbol zelaia jabetzan izatea ohorea da baina era berean gastu handia dakar mantenuak"

- ▶ Beste lau urterako hartu du Pedro Ricok Bergarako zuzendaritzako presidente kargua
- ▶ Futbolak, saskibaloiak, eskubaloiak eta pilotak batera egingo dute lan aurrerantzean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Pedro Rico datozen lau urteetan gogor lan egiteko gogoz ikusi dugu. Bergara Kirol Elkarteko kirol sail guztiek batera lan egingo dute aurrerantzean. Erronkak zeintzuk izango diren azaldu digu.

**Zuzendaritzari ofizialtasuna ematea da nahia.**

Orain arte lagun taldeek hartu izan dute elkarte, eta zuzendaritza ez da oso ofiziala izan; orain nahi duguna da ofizialtasun hori ematea.

**Inor ez da aurkeztu presidente izateko, horregatik jarraituko duzu beste lau urtez.**

Batzarra egin genuenean deialdia egin genuen zuzendaritza berria osatzeko hautagaiak aurkez zitez. Baina inork ez du kargu hau hartu gura. Bergaran kirol asko egiten da baina inork ez du ardurak hartzerik nahi.

**Nola daude kirol sailak?**

Saskibaloia saila oso ondo eramatean dute. Gero eta gehiago dira saskibaloia egiten dutenak.

Eskubaloian, bestalde, gorakada izan dute baina ez hainbeste. Eskubaloia eramaten duenak dio ez duela laguntzarik taldea aurrera eramaterako orduan. Gertatzen dena da bakarrik dagoe la eta ez duela zuzendaritza talde bat laguntzeko. Gainera, futbolak jokalariek kentzen dizkiola dio. Uste dugu jokalarien gurasoek lagundu egin beharko luketela eta, gainera, publizitatea egingo duen norbait ere bilatu beharko luke.

Pilotan, bestalde, ez dago arazorik. Ume asko daude. Hala ere, kirol guztietan gertatzen den bezala behin 16 urte betetzen dituztenean utzi egiten dute.

**Berrikuntza izango da orain lau sailak elkarrekin lan egingo duzue la.**

Bai, izatez lau sailak gaude Bergara Kirol Elkartean barruan, baina orain dela urte batzuk banatu egin ginen. Sail bakoitzak bere ekonomia eraman nahi zuen eta horregatik izan zen banaketa. Guk, futboleant, Bergara Kirol Elkartean izenean jasotzen ditugu diru-laguntzak, eta gainerakoei euren zatia ematen genien.

Esan behar da gaur egun ekonomia ona daukagula elkarrean.

**Zeintzuk izango dira zuzendaritzan sartuko diren kide berriak?**

Bokal bezala sartuko dira saskibaloia saileko Mellado, eskubaloiko Josetxo Muniategi eta pilotako Gutierrez.



Pedro Ricok beste lau urtez jarraituko du BKEko presidente karguan. | ARANTZAZU EZKIBEL

**Zuzendaritzan egon zareten orain arteko lau urte hauetan zer izan da eginbehar garrantzitsua?**

Lehenengo eginbehar garrantzitsua elkarte ekonomikoki bere onera ekartzea izan zen. Elkarte hartu genuenean zor asko genituen eta esan daiteke gaur egun zorrak kitatuta ditugula.

**Gainera, elkarteak hainbat jabetza ditu.**

Bai, hala da. Esan daiteke ez

**Saskibaloia sailean oso lan ona egin dute; goraka doan saila da**

**Lau urte hauetan elkartearen ekonomia bere onera ekarri dugu**

dagoela beste elkarerik guk bezalako ondasunak dituenik. Taberna eta lokala dauzkagu, eta baita futbol zelaia ere. Gipuzkoan ez dago beste elkarerik futbol zelaia jabetzan duenik. Hori oso garrantzitsua da.

**Eta, zeintzuk izango dira hurrengo lau urteetarako erronkak?**

Futbolari dagokionez talde indartsua eta lehiakorra egitea. Bi urte barru hirugarren mailara igotzea izango litzateke asmoa; izan ere, Bergara bezalako herri batek merezi du hori. Beheko mailetan, berriz, ahalik eta ondoen ibiltzea, eta neskei dagokionez errekupe-ratu egin behar da Bergaran jokatzeko ilusioa. Ez dakit zergatik, baina arazo handia dugu: neskek ez dute Bergaran jokatu nahi eta ondoko herrietako elkarre-tee-tara joaten dira.

Niretzat oso garrantzitsua da taldeko jokalariek eta entrenatzaileek jakitea euren irudia Bergararen irudia dela. Ilusioa izan behar dute Bergarako lehenengo taldean jokatzeko, eta ez Realean edo Athleticean.

**Nola ikusten duzu Bergaran kirolaren osasuna?**

Nik uste dut Bergaran kirol asko egiten dela eta horrek poztu egiten nau. Umeen gehiengoak egiten du kirola, eta esango nuke Udalaren lorpena dela hori.

Gertatzen dena da gero eta talde gehiago egon, gero eta gehiagoren artean banatu behar direla diru-laguntzak. Hortaz, gainerakoendako diru gutxiago dago. Nik gogoratzen dut futboleant

**Bergaran umeen gehiengoak egiten du kirola Udalaren lanari esker**

**Urtean 12.000 edo 15.000 euro bideratzen ditugu zelaira**

jokatzan nuen garaian Bergara Kirol Elkartek 36.000 euro jasotzen zituela Udalaren eskutik; orain, oster, 20.500 inguru jasotzen ditu. Hortaz, musu-truk lan egiten dutenei esker ateratzen dugu elkarte aurrera.

**Zeintzuk dira kirol elkarteek dituzten arazo larrienak?**

Arazo larrienak ekonomikoak dira. Partiduak ikustera jende gehiago joatea eta bazkide gehiago izatea beharrezkoa da.

**Futbol zelaia zuen jabetzakoa da. Zer esan gura du horrek?**

Batez ere gastu handia dakar zelaia jabetzan izateak. Gainera, kontuan hartu behar da belar naturaleko zelaia dela, hortaz lan handia egin behar da. Urtean 12.000 eta 15.000 euro bideratu behar dira zelaira, eta lau urtetik behin belarra aldatzen da. Belar naturala izateak dakar Realeko gazteen txapelketako partiduak Bergaran jokatzeko. Hori gureta-ko ohorea da.

Zelaia, herriko seme batek dohaintzan eman zion Bergara kirol elkarteari.

# Toteltasuna, hizketa-fluxu arrunta mantentzeko zailtasuna

Ez dugu patologia kontsideratuko umeak 7 urte bete bitartean

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARRASATE  
Txikitako etapetan haurrak elkarriketatzen blokeatzea edo hitzak errepikatzea ez da beti patologia baten sintoma. "Haurraren eboluzioaren etapa bat besterik ez da", dio *Guraso.com* atarian Milder Eginok logopedak. Toteltasuna hizketa-fluxu arrunta mantentzeko zailtasunaren datza, silaba edo soinuen errepikapen azkarrean edo hitz batzuk ahoskatzeko unean blokeoak sortzean.

**Patologia, zazpi urtetik aurrera**  
Normalean haurrak hiru urte inguru dituenean azaltzen da toteltasuna; hizkuntzaren garapen prozesua finkatzen hasten denean edo atentzioa eskatu nahian anai-arreba txikiago bat duten haurretan. Toteltasun fisiologikoa deitzen zaio fenomeno honi eta onena jaramonik ez egitea dela dio logopedak.

Haurrak bost urte baino gehiago baditu patologikoa izan daiteke eta 7-10 urte bitartean mintzairan blokeoek jarraitzen badute profesional batengana jo beharko dugu. "Ez da gaixotasuna, zailtasun bat baizik, baina jasaten duen pertsonari beldurra eta estresa sor diezaioke".

**Tratamendu luzea**  
Hitz toteltasunaren tratamendua oso luzea eta zaila izaten da. "Tratamendu globala eta diziplina artekoa jarraitu behar dugu haurraren, psikologoaren eta logopedaren laguntzaz, eta batez ere, bi profesional horien eta gurasoen elkarlanaz", dio Eginok. "Errekuperazio prozesua luzea izaten da eta hobe-kuntzak poliki-poliki ikusten dira, baina sekula ez da etsi behar, eta lanean jarraitu behar da helburuak lortu ahal izateko".

Adituaren esanetan gomendagarria da etxean egoera erlaxatua sortzea guraso eta seme-alaben artean elkarriketak bultzatuz. Haurrari hitzegiten utzi behar zaio edozein antsietate egoera baztertuz. Gomendagarria da baita ere haurraren mintzatzeko erari jaramonik ez egitea; ez eskatu gauzak errepikatzeke ez eta lasaitzeko ere. Eta ez txalotu zerbait ongi esan badu bestela ebaluatua sentituko da hitzegiten duen bakoitzean.

Badirudi toteltasuna faktore ezberdinen elkarloturak ematen duela: faktore biologikoak edo herentziakoak baina ez da oraindik sortzen duen genea aurkitu; faktore neurologikoak -hutsak gertatzen dira mintzairaz arduratzen den burmuineko gunean-; edo faktore psikologikoak eta sozialak.



Bi mutiko bidai batekin jolasean. | EULIEMIE

## Seme-alaben jolasari garrantzi handiagoa eman beharko genioke

Jolasaren bitartez garatzen dituzte, besteak beste, adimena, sormena eta irudimena

**L.Z.** | ARRASATE  
Umeek entretenitzeko jolas egiten dutela uste dugu, baina ez da horrela. Jolasaren bitartez mundua *atzematen* dute; mundua ulertzeko eta munduan integratzeko bidea da jolasa.

Jolasaren bitartez garatzen dituzte abilitate fisikoak, adimen emozionala, sormena, irudimena, gaitasun intelektuala eta abilitate sozialak. Kezkatzekoa da; izan ere, gaur egun umeek inoiz baino gutxiago egiten dute jolas. Datu bat: espeziea zenbat eta inteligenteagoa, orduan eta pisu handiagoa du jolasak lehenengo etapen.

### Librea edo egituratua

Umearen adinak eta garapen etapak finkatzen du zein den jolas egokia. 7 urtera arte ume batek ez ditu errealitatea eta fikzioa desberdintzen; atmosfera *magiko* baten bizi da. Etapa horretan jolas librea izango da nagusi.

Hiru urtera bitartean esperimentazioaren fasea da eta helduak imitatzeke joera izango du. 3-5 etapen irudimena garrantzi handiagoa hartzen du. Etxeko edozein tresnarekin jolas egingo du eta jostailu *perfektuegiek* irudimena lantzeko aukerak murriztu egiten dituzte. 5-7 etapen, objektuak sortzeaz gain, istorioak ere sortzen dituzte eta istorio oso konplexuak izan daitezke.

7 urtetik aurrera hasten dira umeak errealitatea eta fikzioa ondo bereizten. Orduan daude prest jolas egituratuagoetan hasteko. Arauak errespetatzen ikasiko dute eta euren interesak gainerako taldekideenekin bateratzen.

Helduok umeen jolasera gehitzea oso ona da; harremanak sendotzen laguntzen du. Baina ez saiatu jolasa gidatzen. Arriskurik ez bada, utzi umeari sortzen diren zailtasunen aurrean konponbideak topatzen.

## Jaiotza kopuruak %1,1 egin zuen behera aurreko urtea Hego Euskal Herrian

2000. urtea ezker goranzko joera izan dute jaiotzek Hego Euskal Herrian, baina beherantz egin zuten iaz. Jaiotza gehien izan zituen herrialdea Bizkaia izan zen (10.730 haur); haren ondoren daude Gipuzkoa (7.238), Nafarroa (6.877) eta Araba (3.187). Estatistikako Institutu Nazionalak eman ditu datu horiek; biztanleriaren mugimendu naturalen inkestaren barruan jasotzen dira.

Emakumeek, batez beste, 32 urterekin izaten dute lehenengo umea eta emakumeko 1,4 ume jaiotzen dira. 1996an datu hori 1,5 zen. Datuek harreman zuzena erakusten dute emakumezkoen adinaren eta ikasketa mailaren artean.

## Uda sasoi aproposa da umei eskolako irakurgaiak ez diren liburuak eskaintzeko

Gogoan izan behar da gauza asko irakur daitezkeela, ez liburuak bakarrik

**L.Z.** | ARRASATE  
Umeek zer irakur dezakete udan? Eskolako irakurgaiak alde batera utzi eta umei bestelako liburuak eskaintzeko sasoi da uda. Denbora falta ez da orain aitzakia eta komeni da irakurtzeko ohitura ez galtzea. Beste erritmo baten bada ere, txikiak idazten eta irakurtzen ikasten jarrai dezakete eta gainerakoek irakurrirakoa ulertzeko gaitasuna lan dezakete oporretan.

Lagundu seme-alabei irakurgai egokiak aukeratzeko; izan ere, ume bakoitzaren adina eta zailtasunak kontuan hartu behar dira aukeraketa egokia egin nahi izanez gero. Eta utzi umei aukeraketan parte hartzen. Irakurzaletasuna bultzatu nahi badugu, ezinbestekoa da umeak motibaturik egotea. Bideetako bat aukeraketan parte hartzen uztea da.

Gurasook, bestalde, interesa agertu behar dugu. Umei gustatu egiten zaie gurasoak zer irakurtzen ari diren galdetzea. Horrek, gainera, bidea emango dio umei irakurtzen ari den liburuaren gainean berba egiteko; zer eta nola ulertu duen adierazteko, alegia.

Eta garrantzitsua da aukera ezberdinak kontuan hartzea. Gauza asko irakur daitezke, ez liburuak bakarrik. Aldizkariak, komikiak, katalogoak, gidak...



Neskatila liburu-dendan, ipuin bat esku artean duela. | PREESCOLAR

Eta atera etekina liburutegi publikoek; uda sasoiaren ere eskaintza politikak egiten dituzte.

### 'Biblioporrak' gida


Kalean da *Biblioporrak 2011* gida. Aramaio, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Legazpi eta Oñatiko udal liburutegiek elkarlanean argitaratuta, adin asko-

tariko pertsonendako liburu, film eta diskoak gomendatzen dira. Adin talde bakoitzeko -0 urtetik aurrera, 6 urtetik aurrera, 9 urtetik aurrera, gazteak eta helduak- 16 liburu proposatzen dituzte, zortzi euskaraz eta zortzi gaztelaniaz. Helduei ere zortzi disko eta zortzi film gomendatzen dizkiete.

# KULTURA



Txosnen gunea mukuru bete zen Zea Maysekin. | JOSETXO ARANTZABAL



Aiora Renteria, Zea Mayseko abeslaria. | JA

## Abaroan da Zea Mays, une gozoan, ospakizun betean

- ▶ Sorkun jostari ibili zen, country, jazz eta bluesaren artean jauzika
- ▶ Anai-arrebak debuta egin eta sorpresa ekarri zuen, radarra piztaraziz

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Kartel benetan konpletoa osatu zuten Aramaioko jaietako antolatzaileek bariku gauerako, izen ezagun bi eta talde berri bat, ezusteko atsegina eman zuena, hain justu.

Izena entzunda, Anai-arrebak, ematen zuen gaueko lehen taldea iparraldetik etorriko zela doinu tradizional eta ahots eztekin giroa goxatzera, baina horren ordez Pasaiako anai-arrebak bai, baina funky, hard rock eta eromen dantzagarri bitxia ekarri zuten Aramaiora. Lehen kon-

tzertua izan zuten barikukoa eta momentuz ez dute diskorik kalean baina ziur batek baino gehiagok haien izena apuntatu zuela. Jousilouliko Matxet eta haren arrebak ikuskizun zoro eta freskoa eman zuten eta, zaila izanda ere, giroa bereganatu zuten txalo eta txistu artean agur esan arte. Ez zuten zuzeneko bataio txarra izan, inondik inora, eta adi, ze abestiak borobildu eta zuzenean are askeago mugitzen hasten direnean, errebelazioaz hitz egiten hasiko gara. Anai-arrebak, gaueko sorpresa.


Baliteke Sorkun lehorraldian egotea – diskorik aspaldi ez du atera – eta ideia berrien bila betiko abestiek jolasean hasia erabaki duela, bai Kashbaden garaikoekin zein bakarka ezagun egin dituenekin. Eta gauza bitxia da gainera, ze egubakoitzean abestirik txalotuenak bakarkako diskoetakoak izan ziren (*Lurra*, *Heldu nazazu* edota *Rescue me* bertsioa), Kashbad ia kultuzko taldea izan bazen ere, eta horrek sortzen eta disko berriak ateratzen jarraitzeko animoak eman beharko lizkioke errenteriarra-

ri. Lagunak alboan hartu eta bere 'klasikoen' country, blues eta jazz bertsioak aurkeztu zituen, jostari eta estiloak menderatuta. Zer esanik ez Sorkunen ahotsak erregistroz aise aldatzeko eta estiloak bere egiteko soberako malgutasun eta indarra daukala, eta berak badaki hori. Bikain geratu zitzaizkion *Burmuinak* lasaitxoagoa edota *Amalur* jazz-funkya zuzenekoan baina abesti askotan, Kashbadek ezagunetan gehien bat, anekdota eta bitxikeria gaitututa, gorputzak Kashbaden melodien indar gor-

dina eskatzen zuela ere nabari zen. Hala ere, Sorkunek bizirik dirau, disko berri eta soinu berrien premia izanik ere.

### "Uda etorri da-eta"

Zea Maysekoek, bizi duten une gozoa benetan disfrutatzen dabiltzala agerikoa da: jotzen eroso, pozik, abesti dantzagarriak eta plazak beteta. Euskal talde gehien ametsa, egia da Errekaldekoentzat. Meriturik ez zaie falta, ibilbide oparoa daukate, zuzeneko izerdiak eta disko borobildak zutoin, eta azken diskoek garai bateko intentsitate hunkigarritik apur bat galdu badute ere, naturaltasuna eta bat-batekotasuna irabazi dute. Gaurko Zea Mays eguzkitara atera da eta jostari dabil dantzarako rockaren festan. *Negua joan da-eta* abestiaren eztiak ostu die lekua *Elektrizitatea* edota *Itsasoa* harribitxietako samin gozoei eta zer esanik ez zoramena zabaltzen dela udako kantua dela erraz esan daitekeen horren lehen akordeak entzun bezain laster (bisetako lehen abestia izan zen). Festa. Taldea, neurrian, euren mometua bizitzen, negua etorriko da-eta.



'Erregea eta bufoia' ikuskizunean Unai Elizasu, Andoni Egaña eta Ander Lipus Juan Jundaren paperean. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

## Bufoiak barrez jarri zituen guztiak

IRATI GOITIA | OÑATI

*Erregea eta bufoia* ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zen egubakoitz gauean Oñatiko Santa Ana aretoan. Ander Lipus aktorea eta Andoni Egaña bertsolaria izan ziren emanaldiko protagonistak, Unai Elizasu gai-jartzailea lagun zutela.

"Barre egitea ederra da". Hitz horietan esan zituen emanaldiaren amaieran Elizasuk, eta benetan ederra dela. Ia bi orduz barre algar batean egon ziren aretora joandako ikusentzuleak.

Ander Lipus aritu zen bufoiaren paperean eta barrez jarri

zituen bai ikusleak eta baita erregea bera ere, hainbatetan, (Egaña).

### Bertsoa eta antzerkia

Ikuskizunak bi arte mota ezberdin lotzen ditu: antzerkia eta bertsolaritza. Nola? Elizasuk gaia jartzen zien Lipus aktoreak taularatzen zituen pertsonaiei eta Egañari. Horrela, inprobisazioaren erresuman sartzen zituen gai-jartzaileak bi protagonistak eta erantzun egin behar izaten zioten jarritako gaiari.

Gai guztiak Oñatirekin zuten lotura eta ikusleek gustura entzun zituzten gertu-gertuko

gertaeretan oinarritutako pasadizoak. Egañak argi utzi zuen Oñati ondo ezagutzen duela.

### FITXA

SANTA ANA ARETOA

**ERREGEA ETA BUFOIA**  
**ANDONI EGAÑA ETA ANDER LIPUS**

**Estiloa:** Bertsolaritza eta antzerkia.

**Non:** Oñati.

**Eguna:** Egubakoitza, uztailek 1.

**Iraupena:** 1 ordu eta 40 min.

**Ikusle kopurua:** 140 lagun.

### Hainbat pertsonaia

Lipus aktoreak hainbat pertsonaia antzetzten ditu: Jerry Always irlandarra, Juan Junda potosikotiko depresiboa, Inmatius eskalea, Manex Dominixine kantautorea eta Eusebio Egaña ehiztaria, besteak beste. Pertsonaia horien guztien aho-jarioari bertsoz erantzuten zien Egañak.

Aktorearen karakterizazio bereziek barrez jarri zituzten ikusleak. Adibidez, Manex Dominixine iparraldeko kantautorearen abesti xelebreek edo Juan Junda Markinako bertsolari frustratuaren bertsoakera harrigarriak. Umorea nagusi izan zen arren, izan zen kritikarako unerik ere. Inmatius eskalea eta Babes Ofizialeko Etxebizitza tokatu ez zitzaion penatutako gaztearen paperean sartuta zegoen Egañak, etxebizitza eskubidea izan beharrean zozketa bilakatzeko delatuta zuten.

### Bat-batekotasuna

Emanaldi guztia bat-batekotasunean oinarritzen da. Izan ere, ez Egañak ezta Lipusek ere ez dakizkitez Elizasuk jarri behar dizkien gaiak zeintzuk diren eta biek hala biek trebetasun itzela erakutsi zuten. Lipusek unean-unean etorritakoa antzetzten eta Egañak hari erantzun. Fin ibili ziren biak. Gai-jartzaileak jarritako gaiak ere benetan onak.

Emanaldi arrakastatsua, Lipusek ikuskizunaren amaieran bere amari eginko telefono deian esan bezala. Amaieran, txalo zaparrada eta jendea gustura joan zen etxera horrenbeste barre egin ostean.

Egañak, Lipusi bota zion bertso batean, honako hitz hauexek ekarri zituen gogora: "Isiltasunik ez ezazu hautsi, edertzeko ez bada". Eurek ongi edertu zuten isiltasuna.

## 10 urteotako ibilbidea ospatu zuen AM Big Band-ak egubakoitz gauean

Gaur egungo musikariek eta urte hauetan guztietan Big Band-eko kide izandakoek jo zuten urteurren jaietan

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Arrasate Musikaleko Big Band-ak 10 urte bete ditu eta hori ospatzeko, egubakoitz gauean urte hauetan jotako abestiez osatutako errepertorioarekin kontzertua egin zuten. Ez da arrasatearrek urtemuga ospatzeko egin duten ekintza bakarra: aurreko astean Munich-en (Alemania) bi kontzertu eskaini zituzten.

Esan bezala, egubakoitzeko emanaldia berezia izan zen eta ez bakarrik Monterroneko kontzertua ikasturte amaierako zita delako; urte hauetan Arrasate Musikal Big Band-eko kide izan diren batzuk berriz ere oholta gainean ikusteko aukera izan zuten bertan bildu ziren 250 pertsonen. Kontzertuan parte hartu

zuten taldekide ohien artean zegoen Jose Ramon Elkoro, Big Band-aren lehengo urteotako zuzendaria.

Kontzertuan jazz, swing eta latindar erritmoak izan ziren nagusi, baina bestelako musika estilotako piezatan txikiak ere eskaini zituzten. Emanaldia *Take The 'A' Train* jazz abestiarekin hasi zuten; giroa berotzeko, baina, Amaia Arriaran abeslari bergararra irten zen.

Arriaranek abestutako lehenengo txanda bukatu ostean, erritmo latinoen txanda iritsi zen. Ez zen hori sorpresa bakarra izan; Arrasateko dantza talde bat erritmo latinoak dantzatzeko hasi zen eszenatokiaren azpiko aldean. Monterroneko bildutako ikusleek



Big Band-eko kideak Zigor Martinezen gidaritzapean egin zuten egubakoitzeko kontzertua. | ANDER MONEDERO

*Oye Como Va* bezalako abestiak abestu eta txalokatu zituzten. Aipatzeko da Ever Sanchez gitarra joleak egindakoa, abesti batzutan instrumentua alde batera utzi eta abeslari lanetan jarri baitzen.

Horrela bukatu zen kontzertuaren lehenengo parte. Bigarrenean, taldearen hasieratan jotzen zituzten; abesti batzuk jo zituzten,

adibidez, *Son de la Loma*, *Manteca* eta *Hawaii 5-0* kantuek.

Bukatzeko, aurreko urtean, Big Band-ak urteurren hasiera ospatzeko kaleratutako diskoan grabatutako hiru kantu jo zituzten; *Sing, Sing, Sing*; *Theme from Shaft* eta *What is Hipp*.

Kantu horiek bukatzerakoan publikoak abesti gehiago eskatu

zizkiren eta arrasatearrek beraien errepertorioko klasiko batekin bukatu zuten, *Birdland* abestiarekin.

Kontzertu honekin bukatu zituzten Arrasate Musikal Big Band-ak 10. urteurreneko ospakizunak. Orain, iraila arte atsedean hartuko dute eta ikasturte berriarekin batera errepertorio berria lantzen hasiko dira.

## Margo taldearen erakusketa Harresi aretoan

Ikasturtean zehar eginiko lanak erakutsiko dituzte Arrasateko 15 artistek

J.B. | ARRASATE

Egubakoitzean hasi eta uztaillaren 15era arte Arrasate Margo Taldeko kideen lanak ikusgai egongo dira Harresi aretoan, 18:00etatik 20:00etara. Margo taldeko 15 lagunek jarriko dituzte eurek egindako lanak Harresin ikusgai. Ostiralean egin zuten irekiera, 19:00etan hasita. Urtean zehar ikastaroan egindakoak

erakutsiko dituzte artista zaletuek. Ondokoen obrak daude ikusgai: Pilar Ansoategi, Amaia Arantzabal, Beatriz Arregi, Juan Mari Lopez de Bergara, Pilar Muñoz, Montse Roldan, Isabel Mendizabal, Pepita Mendizabal, Xeli Mendizabal, Gurutze Mujika, Rakel Perez de Arenaza, Tano Rinas, Julen Ribas, Txomin Gonzalez eta Ana Juarezzenak.



Erakusketa-guneko txoko bat. | JOSETXO ARANTZABAL

## Belceblues Hondarribiko Nazioarteko Blues Jaialdian

J.B. | ARRASATE

Eguenean, hilak 7, hasiko da Hondarribiko Nazioarteko Blues Jaialdia eta Belceblues taldeak bi kontzertu eskainiko ditu aurten. Eguenean bertan Johnny Winter Blues gitarrak jotzaile ezagunaren saioaren aurretik joko dute eta uztaillaren 10ean, berriz, kontzertu didaktikoa eskainiko dute.

### Taldea, lanpetuta

Disko bakarrarekin bide oparoa egin eta gero, bigarrena ia gertu daukate bergararrek. *Diabulus in musika* izango du izena lan berriak. *Infer* diskoaren ildo antzekotsua hartuko du ale berriak, blues-rocka oinarri. Kolaborazioak, baina, aipatzeko modukoak dira. Belcebluesekoek disko berrirako Satan Ass haize-laukotearen laguntza izan dute eta baita ere Enrike Txurruka piano-jotzailearen ekarpen berezia. Beste bi gonbidatu berezi ere izan dituzte: batetik, Jon Gurrutxaga Ari-ma Beltzako abeslaria eta, bestetik, Aitor Gorosabel gitarrak jotzailea (Su Ta Gar).

## San Vicente de la Barqueran, bigarren

San Vicente de La Barquerako (Kantabria, Espainia) lehiaketan bigarren postua eskuratu zuten atzo Ganbara abesbatzekoek. "Pozik" itzuli direla dio lehendakari Miren Arregik, "azkenaldiko aldatengatik gorabeherak" izan badituzte ere, "lanaren emaitzak ikusi" direlako.



GANBARA

# Toki bat, milaka opari

Harrapatu airean zuzeneko 2.000 sari baino gehiago.

Parte hartu uztaillaren 1etik 9ra arte, zure erosketa edo kontsumizio txartela aurkeztuta.

Oinarriak kontsultatu Nodal plazako saltokian.



- |                        |                |                        |
|------------------------|----------------|------------------------|
| 1 CINES ABACO          | 8 CAFÉ & TE    | 15 VIPS                |
| 2 DUOMO'S PIZZA        | 9 ARTEPAN      | 16 CRUZ BLANCA         |
| 3 FOSTER'S HOLLYWOOD   | 10 BURGER KING | 17 KRUNCH              |
| 4 DÖNER KEBAP ISTANBUL | 11 DONGA       | 18 FRESC CO            |
| 5 LASER XTREME         | 12 CANEL ROLLS | 19 SASKI               |
| 6 GIMNASIO HYDRA       | 13 KALEZAR     | 20 BOLERA NEX BASKONIA |
| 7 GINO'S PASTA & PIZZA | 14 HUMMM CAFÉ  | 21 WOK                 |

Dibertsioz beteta, ZUTAZ beteta



www.el-boulevard.com • www.tublogelboulevard.com • f  
Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440

Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

## UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: [goiena.net/blogak/argazkiak](http://goiena.net/blogak/argazkiak)



LARA GONZALEZ



IDOIA ITURRALDE



MIGUEL DE GANESHA

Har ezazu parte!

### Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.** Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 1etik irailaren 16ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri:
  - ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate
  - ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05 edo Durana 11-2 solairura, 20550 Aretxabaleta.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta, CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 3an jakingo dugu asteleheneko Goiena paperean.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkia guztiak Goienako artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

### Sariak

#### 1. saria

Panasonic LUMIX DMC G1 argazki kamera digitala eta KB Photoestudio eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 12 megapixel.
- LUMIX G VARIO 14-42mm / F3.5-5.6 objektiboa.

- 3 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View Dual denbora osoan.
- Flash eta guzti.



**2. saria:** Cantabriako bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiak-en eskutik.



**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTAILEAK:

**KB**  
photoestudio  
www.kbphotoestudio.com  
**Panasonic LUMIX**

**GURE AMETSA**  
JATETXEA

**ARRASATE BIDAIK**



LEZURI  
ORMAZABALMARRAZKIGILEA ETA  
DISEINUGILEA

GURE ARTISTAK



Lezuri Ormazabal, 'God Shave the Queen' izeneko Bilboko erakusketan, bere lana aurrean duela. | LEZURI ORMAZABAL

# "Lanak ulertzeko artearekiko kultura beharrezkoa da; faltan botatzen dut"

- ▶ Bilbo, Gasteiz, Azpeitia, Italia... hainbat erakusketa egin ditu dagoeneko
- ▶ 'MadameGarson' proiektu pertsonalean murgilduko da laster

MAIDER ARREGI | OÑATI

Txinatik etorri berri da 24 urteko artista oñatiarra. Esparru askotan lan egin duen arren, grafika alorrean sentitzen dela gusturen kontatu digu.

**Pintura, diseinu grafikoa, argazkilaritza... makina bat esparru lantzen dituzu.**

Unibertsitateko urteetan, teknika grafikoaren alorrean lan asko egin nuen eta hori da gustatzen zaidana. Bertan, grafikak eskaintzen dituen teknikak lantzen genituen, serigrafia, grabatu kalkografikoa, xilografia, ilustrazioa... Diseinu grafikoarena ostean egin nuen zerbait izan zen eta pinturaren alorra asko ukitu ez dudana arren,

interesgarria iruditzen zait, eskulturaren alorra bezalaxe. Argazkilaritza, berriz, zaletasuna daukat. Askok gustatzen zait txoko ulergaitzen irudiak ateratzea.

**Ilustrazioan, umeak oso exigenteak al dira?**

Ilustrazioa nire beste pasioetako bat dela esan nezake. Ez dut sekula liburu bat ilustratzeko enkar gurik jaso, baina benetan gustuko dut marrazkiak egitea. Gainera polita da umei marrazki bidez adieraztea letra bidez ulertzeko gai ez direna.

**Aterki diseinugile ere bazara.**

Bai, Ezpeleta enpresan dihardut lanean. Oso ezezaguna nuen alor hau, diseinu eta moda tenden-

tziekin zuzenki erlazionatuta dago eta bertan sartzeko aukera izan nuen. Oso gustura nago!

**Txinatik etorri berria zara.**

Txinatarrek aterki kultura izugarria dute, baina ez euritarako soilik; lehen eguzki izpiekin, aterkia ateratzen dute kalera. Gehien goak, UVA izpiekiko babasa duten aterkiak dira eta bitxia gerta daitekeen arren, hauek dira salmenta handienak dituztenak.

**'MadameGarson' proiektuan murgilduta zaude orain.**

*MadameGarson*, artista grafiko gisa bataiatu berri dudana proiektu pertsonala da. Estanzazioan oinarritutako proiektu multidiziplinarra litzake, serigrafia teknika

oinarri duena. Kostu gutxikoa eta botatzeko den materialaz baliatuz, ahalik eta jende kopuru zabalenera iristea du helburu.

Lan egiteko modua erabat artisaua da; pieza guztiak bakarrak dira, seriatuak eta sinatuak. Proiektuak oihala estanzazioa, diseinu grafiko, ilustrazioa... batzen ditu. Erabilitako irudiak nire kezka, jakin-nahi eta urduritasunez sortuak dira, gaur egungo tendentzia artistiko-estetikoei jarraituz.

**Erakusketak ere egin dituzu.**

Azkena, orain hilabete eskas. Bilbao Artek bere egoitzan duen erakusketa gelan, *God Shave the Queen* izenekoan; Colectivo LA Cuchara-k antolatzen duen *IV. Certamen de Arte Hormonado*-n aukeratua. Diziplina ezberdinetako sortzaileak biltzen ditu eta astebez alor ezberdinetako ekintzaz osaturiko saioak egoten dira ikusgai. Gasteizko Immersions 2010 eta Azpeitiko Bihur arropa denda ere erakutsi ditut nire lanak. Italian bizi nintzanean bi erakusketa egin nituen. Hurrengo, abenduan Bilbao Arten.

**Orain artekoaz gustura?**

Egindako lanak errekonozimendua duela jakiteak indarrez bete eta aurrera egiteko grina pizten du. Orain arteko ibilbidean azpimarratuko nuke, jendearengandik jaso eta era berean emandako laguntza.

**Irudi digitalek inbaditutako mundu batean bizi garela diozu.**

Bai, horrela da. Egunerokotasunean, irudi digitalen menpe bizi gara, telebista dela, ordenagailua dela...

**Jendeak ulertzen du?**

Lanak ulertzeko artearekiko kultura beharrezkoa da, eta hori da

orokorrean nik faltan botatzen dudana gaur egungo "gure" gizartean. Jende askori, erreferentziak falta zaizkio eta arte lan baten aurrean galdurik ikusten du bere burua. Normala da ulertzeko zaila izatea edota nire azken lana adibide hartuz (*Zuria zuriaren gainean / beltza beltzaren gainean*) harriturik geratzea, ulertzeko gai ez direlako. Beti entzuten dira gutxiespen hitzak, baina hori ezjakintasunaren ondorioa da. Munduan dabilzanek diotena hartu behar da aintzat. Orain, Bilbao Arten egiten ari naizen proiektua amaitzea dut buruan; ondoren, *MadameGarson* proiektuarekin buru-belarri sartzeko.


**"Azpimarratzekoa da jasotzen den elkar laguntza hori"**

**"Artelan baten aurrean batzuk galdu egiten dira"**

**"Egunerokoa, irudi digitalen menpe bizi gara asko"**







Kontaktuen "zirkuluek" izango duten itxura. | SEARCHENGINELAND.COM

## Facebook sareari aurre egiteko saiakera berria aurkeztu du Googlek

'Google Plus' izeneko sare sozialak interes eta harreman "zirkuluek" hartuko ditu ardatz

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Izen bitxia ipini dio Googlek bere sare sozial berriari, zalantza barik, eta ez aitortu arren, Facebooki merkatuaren zatitxo bat behintzat kentzeko asmoarekin etorriko da. Lagun eta interes taldeei arreta berezia emango die eta bideo-txat eta sakelakorako mezularitza zerbitzu berezia ekarriko du

Google Plusek eta berdin erabili ahalko da bai *GMail*-eko kontaktuekin zein Facebookeko lagunak inportatuta.

Momentuz, gonbidapen bidez bakarrik erabil daiteke zerbitzu berria, ze proba fasean daude, baina Googlekoen asmoa lehen bailehen hedatzea da. Facebookekin antzekotasun ugari baditu

ere, *Google Plus*en pertsonen arteko "harreman imitatu" gura dituzte eta kontaktuak interesen arabera antolatu: familia lagunak, ikaskideak, zaletasun bat dutenak... Kontakutu talde bakoitzak zirkulu izeneko gunea osatuko du eta talde batek ez du zertan besterekin harremanik izan lagun komunak izan arren.

### Bideo-txata eta mezuak

Facebookek ematen ez dituen zerbitzuak ere ekarriko ditu Googlek sareak. Bata talde barruan bi lagun baino gehiagoren arteko bideo bidezko txata egiteko aukera da eta bigarrena da Huddle izeneko, sakelakoarekin batera mezularitza eta txat zerbitzua eskainiko dituen, hain bogan dagoen WhatsApp aplikazioaren gisako bat. Gainontzeko zerbitzuak dagoeneko Facebookek eskaintzen dituen antzekotsuak dira.

## Goiena.net-eko edukiek erabilpen librea izango dute

Erabilpen kultural librerako baimena daukate edukiek, 'CC -by-sa' lizentziarekin

GOIENA | ARRASATE

2011ko ekainaren 27tik aurrerako *goiena.net*-eko testuak lizentzia honekin daude babesitua: Creative Commons Aitortu-Partekatuta, cc-by-sa. Iritzigileek, erantzunetan mezua lagatzen dutenek, argazkiak igotzen dituztenek... edozer bidaltzen diotela onartu behar dute.

Hala ere, *goiena.net*-ek ez ditu salbuespenak baztertzen eta, gertatzen badira, testu horiek argitaratzen direnean argi zehaztuko da hori. Jarri gurekin harremanetan kontaktu orriaren bidez argitaratu nahi dituzun testuak salbuespen horien artean sartu behar direla uste baduzu. Blog komunitateko blog bakoitzak du jabe bat eta salbuespena daude *goiena.net*-eko lizentziapetik. CC-by-sa laburdurak Creative Commons Aitortu-Partekatuta lizentzia adierazten du edukien zabal-kunderako.

### Creative Commons Aitortu-Partekatuta

Definizio gehientsuenen arabera, eduki librea edo/eta copyleft terminoak aplikatu dakizkieke hemengo testuei. Era berean, lizentzia honek *Approved for Free Cultural Use* etiketa darma, Erabilpen Kultural Librerako Baimendua. Etiketa hori Creative Commons erakundeak aukeratutako termino bat da, Wikipediarekin eta eduki libreen munduarekin bateragarria den edukia zehatz definitzeko sortua. The Open Knowledge Foundation delakoak argitaratutako Jakintza askearen definizioan ere sartzen da lizentzia. Funtsen, hortaz, edonork izango du edukia erabiltzeko baimena baina betiere egiletza aitortuta (lizentzia aitortuz eta lotura eskainiz) eta lan eratorria baldintza berean banatu beharra dago. Testu osoa: [goiena.net/honi-buruz/lizentzia-eta-eskubideen-gaineko-politika](http://goiena.net/honi-buruz/lizentzia-eta-eskubideen-gaineko-politika).

### Bideo-jokoen hiri izango da Bilbo uztailean EHUrekin elkarlanean

Udako ikastaroen barruan bideo-jokoei buruzko ikastaroak antolatu ditu EHUk Digipen Institute of Technologyrekin elkarlanean. Horrez gain, uztailearen 22tik 25era Euskal Encounter entzutetsua ospatuko dute; aurten hemeretzigarrena. Gainera Alhondegian irailean hÓPLAY izeneko bideojokoen nazioarteko jaialdia ospatuko dute baina hori udazkenean izango da. Aurten ekimen hori bideo-jokoen sorkuntzako estatu mailako erreferente bilakatu gura dute eta programazio berezia antolatuko dute jaialdirako.

### Orain lau urte aurkeztu zuen Apple etxeak lehen iPhonea; udazkenean bertsio berria ekarriko dute

Orain dela lau urte aurkeztu zuen lehen iPhonea Applek eta hortik sei hilabetera salgai ipini. Zalantza asko piztu zituen produktu berriak orduan eta askok etxearen gainbehera iragarri zuten. Oker zebiltzan baina, telefonoa berrasmatu eta dagoeneko udazkenean bosgarren bertsioa aurkeztekotan da Apple, esamesen arabera.



iPhone originala. | APPLEWEBLOG

### Myspace saldu egin dute eta Justin Timberlake musikaria ipini dute buruzagitzan

Erabiltzaile galerari ezin aurre egin dabil Myspace baina News Corporationen filialean oraindik ez daude amore emateko prest eta Justin Timberlake musikari eta aktorea kontratatu dute buru berri moduan. Murdoch enpresa taldeak dagoeneko beste txiki bati saldu dio Myspace eta Timberlake ipini dute buru. Estrategiaren arduraduna izango da bera. Zurrumurruak diote bere garaian baino 16 bider merkeago saldu dutela Myspace, 24 milioi dolarretan, hain justu ere.



PORTALCLICK.ES

### Razinger ere tuiteatzen hasi da

Eliza Katolikoaren buruak, iPad bat eskuetan, lehen tuita bota du dogoeneko. Vaticanoko albisteak jasotzen dituen atari berria abiatu dute asteen ([www.news.va](http://www.news.va)) eta hori iragartzeko honako mezua zabaldu zuen Joseph Razingerrek: "Lagun maiteak, *news.va* ataria abiatu berri dugu. Goretsia izan bedi Jesukristo gure jauna". Vaticanoak ere sortu du twitter kontua, hiriko albisteak zein Aita Santuaren eguneraketak honako kontuan aurki daitezke: @news\_van\_en.

## TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



## Udan ere zapping-a

Nahiz eta uda iritsi den Frantziako Tour-a telebistan ikusi arte, uda ez dela heldu ematen du. Badaude telebista saio batzuk udan bakarrik ikusten ditugunak eta gustura ikusten dituzte, aizu. Udan gaudela gogorazten didate eta.

Udak, normalean, umorea hobetzen du eta hori ere nabaritzen da telebistan. Umorea, festak, musika, magazine-ak, reality-ak eta, batez ere, lehiaketak ugari izaten dira telebistako parrillan. Garai honetan, ez gara aspertuko lehiaketa berriekin. Lehiaketa berrien estreinuak iragartzen ari dira telebista kate guztietan, behintzat.

Joan den urtean arrakasta izan zuten saioak ere ez dira faltako. Berriz ere, inbidiaz ikusiko ditugu hondartzan biltzen diren familiak, lagunak eta koadrilak; eta beste batzuk bitartean etxean, lanera joateko prest. Baina aizu, uda garaia da, eta horrelako saioak existituko ez balira udari zerbait faltako litzaioke.

Bestalde, urtero bezala, kirola ere protagonista. Eta Euskal Herrian, futbolaz gain, estropadez, pilotaz eta txirindularitzaz gozatuko dugu. Zerbaitet funtzionatzen badu mantentzea hobe.

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 4



**Aitor Mendizabal 'Harmailatik'-en**

20:45

Aitor Mendizabal pilotari antzuolarra profesional bilakatu da eta, gertu-gertutik ezagutzeko, elkarriketa sakona egingo diogu.

13:15 Marrazki bizidunak

13:35 Kantari

14:10 Berbetan

14:45 Berriak

15:15 Klik

15:45 28. Klip

16:15 Gipuzkoa kultura

16:45 Berriak

17:15 Leku txiki bat

17:25 Jaiak: Berroetako

konkistadorea

18:05 Onein

18:30 Ikusmira

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Harmailatik

21:30 Magazinea

22:30 Harmailatik

23:15 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 5



**Eva Salaberriari elkarriketa**

19:45

Eva Salaberria Europako Kultura Hiriburuzateko Donostiako Bulegoko zuzendaria martitzenean izango dugu Magazinea-n.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:20 Onein

14:45 Berriak

15:15 Harmailatik

16:00 Hamaika.bit

16:30 Leku txiki bat

16:45 Berriak

17:15 Bi tartean

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Bi tartean

21:15 Magazinea

22:15 Harmailatik

23:00 Magazinea

EGUAZTENA, 6



**Guraso tertulia ikusgai**

20:45

Larraitz Zeberio aurkeztutako guraso tertuliarekin beste guraso batzuen proposamenak entzun ahal izango dituzue.

13:15 Marrazki bizidunak

13:35 Kantari

14:00 Harmailatik

14:45 Berriak

15:10 Onein

15:30 Hamaika.bit

16:00 Klik

16:25 Ikusmira

16:45 Berriak

17:15 Bizitegia

18:45 Bi tartean

18:15 Gipuzkoa kultura

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Tertulia

21:45 Magazinea

22:40 Tertulia

23:40 Jaiak: Berroetako

konkistadorea

EGUENA, 7



**'Artean' ikuskizuna**

22:15

Dantzaz konpainiak Artean ikuskizuna aurkeztu du Victoria Eugeniean. Horren berri izango duzue Gipuzkoa kultura saioan.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Hamaika.bit

15:45 Tertulia

16:45 Hamaika.bit

17:15 28. Klip

17:45 Berriak

18:15 Ipupomamua

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Bi tartean

21:15 Magazinea

22:15 Gipuzkoa kultura

22:45 Magazinea

23:45 Bizitegia

EGUBAKOITZA, 8



**Debagoieneko jaien saioa**

22:15

Eskoriatzako, Elgetako eta Aramaioko jaien saio berezia eskainiko dizuegu, festetan hartutako irudi dibertigarrienekin.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Ur eta lur

15:45 Hamaika.bit

16:15 Leku txiki bat

16:45 Berriak

17:15 Berbetan

17:50 Ipupomamua

18:25 Leku txiki bat

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Gipuzkoa kultura

21:15 Magazinea

22:15 Jaiak:

Debagoieneko jaiak

22:45 Tertulia

23:45 Magazinea

## ARRASATE IRRATIA

## Eskoriatzako, Elgetako eta Aramaioko jaien berri, gaurko saioan

Debagoieneko hiru herritako jaiak izan dira azken egunetan: Eskoriatzakoak, Elgetakoak eta Aramaiokoak. Goienako kazetariak han eta hemen ibili dira eta jaietan gertatutakoaren berri emango digute, zuzenean, notizia fresko-freskoekin Uda giroan irratisaioan, 10:30etatik aurrera.

## Arrasatearren udako oporrak hizpide, Uda giroan irratsaioan

Nora joango dira arrasatearrak udako oporretan? Galdera horri erantzuneko diogu Arrasate Irratian. Arrasatearren udako oporretan zein bidaia egingo duten, zein hondartzatan bainatuko diren, zein monumentu bisitatuko duten edo zein abentura biziko duten. Uda giroan saioan, 107.7an

## Amaia Diaz de Monasterioren dietistarekin, 107.7an

Amaia Diaz de Monasterioren dietista oñatiarra munduan zehar ibili da elikadurari buruzko tailerrak ematen: besteak beste, Nueva Delhin, Varsovian eta Italian. Bada, bira horretan izandako esperientziaren eta xehetasunen berri emango digu dietista oñatiarrak Arrasate Irratian.

## TELE-ALBISTEAK

## Elgetako eta Aramaioko jaien berri izango dugu 'Magazinea'-n

Jai giroan igarotako asteburua eta gero, festekin etxetik gozatu ahal izango duzue gaur, astelehena

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Debagoieneko bi herritako jaiak izan dira asteburuan: Elgetan Ferixa Nagusiko jaiak eta Aramaioko San Martinak. Bada, Goienako kameralariak eta Imanol Gallego eta Aitor Agiriano kazetariak herrietako momentu onenak eskuratu nahian ibili dira saltsan asteburuan, hara eta hona.

Bi herrietan jasotakoarekin disfrutatze aukera gaur, astelehena, izango duzue Magazinea saioan, 19:45ean. Momentu dibertigarrienak erakutsiko ditugu.

Jaietan murgilduta

Aurten ere ez dugu hutsik egin Elgetan egiten diren Ferixa Nagusiko jaietara; zapatuan egin zen asto karrera arriskutsuko irudiak ditugu, eta baita buruhandien emanaldikoak ere. Domekan ospatu zen Ferixako momentu onenak ere ez zaizkigu falta: ganadua, artisauak, kale giroa...

Aramaioko zapatuan jokatu zen plater tiraketa izan ginen eta baita domekako Iparraldeko herri kirolean ere. Horrez gain, gaur arratsaldean egingo duten koadrilaren arteko pikera ere joango gara aurtengo proba orijinalekin eta koadrilaren artean izaten den giro berezi horrekin gozatzeko asmotan.



Sardina jana, Elgetako jaietan. | JOSETXO ARANTZABAL

## Iluntzeko 19:45ean gozatu ahal izango dugu Elgeta eta Aramaioko jaietaz

Horiek eta gehiago jasoko ditugu gaur, arratsaldeko 19:45ean.

Saio berezia, egubakoitzean

Eskoriatzako, Elgetako eta Aramaioko jaien saio berezia eskainiko dizuegu egubakoitzean estreinako, gaueko 22:15ean. Eta zapatu eta domenan izango ditugu errepikapenak. Ez galdu!

## ESKELA

## German Balentziaga Errasti



2011ko ekainaren 2an hil zen.

*Ez nau izutzen negu hurbilak  
uda beteko beroan  
dakidalako irauten duela  
orainak ere geroan*

Zure koadrila, nagixak.  
Bergaran 2011ko uztailearen 4an.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO  
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bieran, argitaratuz gero, 168 euro.  
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

## ZORION AGURRAK



ARETXABALETA  
**Maria Zubillaga Garcia**  
Uztailaren 8an, 9 urte.  
Zorionak! Eta laztan  
handi bat amama, aita  
eta izeba ltxaroren  
partetik.



**Nagore Garnateo  
Ignacio**  
Uztailaren 7an, 8 urte.  
Zorionak denon partetik  
eta muxu handi bat.



BERGARA  
**Jone Arrieta eta Maddi Lazkano**  
Uztailaren 7an, 7 urte. A ze bikote polita!  
Zorionak, maitiak, eta ondo-ondo pasatu San Fermin eguna!  
Patxo goxoz betetako opari handi bat zuentzako  
familixen partetik eta bereziki Markel eta Paulen  
partetik!



ESKORIATZA  
**Jose Cabeza Delgado**  
Uztailaren 5ean, 74 urte.  
Egun ona pasatu zure  
emazte, seme-alaba eta  
iloben partetik. Alex,  
Mikel, Bogdan, Alin eta  
Naroa.



ESKORIATZA  
**Oihane Belategi  
Arrese**  
Uztailaren 5ean, 6 urte.  
Zorionak, printzesa!  
Merixenda goxo-goxo bat  
prestaturiko dou  
Leixarrapen zure eguna  
ospatzeko. Pastela zure  
kontu. Ondo-ondo pasatu  
eguna eta patxo potolo bat  
aitatxo, amatxo eta  
Ametzen partetik.



OÑATI  
**Mireia Bikuña**  
Uztailaren 5ean,  
urtebetetzea.  
Zorionak, *morenaza!*  
Jare eguzki apur bat  
bestiondako be! Eta,  
noizko etxe moderno  
horren estreinua? Ondo  
pasatu eta patxuak  
lankideen partetik.



OÑATI  
**Sara Zubia**  
Uztailaren 5ean, 3 urte.  
Zorionak, printzesa!  
Ondo-ondo pasatu zure  
hirugarren urtebetze  
eguna! Patxo potolo asko  
familixa danan partetik,  
bereziki Unax, Mikel, Teo  
eta Urdinen partetik. Ask  
maitte zaittugu!



OÑATI  
**Odei Palacin Aldea**  
Uztailaren 4an, 4 urte. Zorionak! Lau urtetxo! Oso ondo  
pasatu zure egunean. Muxu handi bat danon partetik.  
Ask maite zaittugu!



ARRASATE  
**Olatz Martinez Zabala**  
Uztailaren 4an, 5 urte.  
Etxeko partetik  
zorionak, Olatz, eta  
jarraitu zure alaitasun  
horrekin.



BERGARA  
**Mikel Unamuno**  
Uztailaren 4an, 4 urte.  
Zorionak, Mikel! Zelako  
ondo pasatuko dugun  
zure laugarren  
urtebetetze eguneko  
ospakizunean. Patxo  
handi bat etxeko denon  
partetik!



OÑATI  
**Laida Vazquez  
Txintxurreta**  
Uztailaren 2an, 9 urte.  
Zorionak eta urte  
askotarako, Laida! Oso  
ondo pasatu zure eguna!  
Muxu pila familixaren  
partetik!



ARETXABALETA  
**Amaier Bergaretxe  
Larrinaga**  
Uztailaren 1ean, 15 urte.  
Zorionak, Amaier!  
Dagoeneko neska handi  
eginda, e? Ondo-ondo  
pasatu zure eguna.  
Patxo handi bana  
Zaraitzu, amatxo eta  
aitatxoren partetik.



ARRASATE  
**Mari Carmen Llodio**  
Uztailaren 1ean, 45 urte.  
Zorionak eta urte  
askotarako, amatxo!  
Primeran pasa dezazula  
zure eguna merezi dozu  
eta! Besarkada  
goxo-goxo-goxo bat  
etxeko partetik! Mua!



OÑATI  
**Amair Arregi Markuleta**  
Uztailaren 1ean, urtebete. Zorionak, Amair!  
Dagoeneko urtetxo bat bete duzu, potxola! Muxu  
handi-handi bat Enaitz, Haizea, amatxo, aitatxo eta  
familia osoaren partetik.



OÑATI  
**Jurgi Etxebeste  
Bolinaga**  
Ekainaren 30ean, 6 urte.  
Zorionak eta patxo ugari  
familixa danaren  
partetik! Ainize, Oier,  
Ibai, Zuraide eta  
Aimarrek belarritik sei  
tirakada bakoitzak...



BERGARA  
**Ane Iparraguirre**  
Ekainaren 29an, 13 urte. Kaixo! Zorionak! Oso ondo  
pasatu zure eguna, lparra! Zure laguneren partetik.



ARETXABALETA  
**Maren Lezeta Iturbe**  
Ekainaren 28an, 6 urte.  
Zorionak, maitea! Muxu  
handi-handia etxeko  
guztione partetik, bereziki  
amama, Lore eta  
Keparen partetik.



OÑATI  
**Ane Erostarbe**  
Ekainaren 28an, 11 urte.  
Zorionak, potxola! Ondo  
pasatu zure urtebetetzea  
eta muxu bat zure  
familia partetik.



BERGARA  
**Lucía Robla Rodriguez**  
Ekainaren 28an, 10 urte.  
Zorionak, *guapisima!*  
Edertu pasatu eguna!  
Muxu potolo bat zure  
mutikoak Hugo, Danel  
eta Jon partetik!



ESKORIATZA  
**Unai Oyon Gonzalez**  
Ekainaren 24an, urtebete.  
Zorionak, Unaitxo! Zelako  
ondo pasatuko dugun zure  
lehen urtebetetze eguneko  
ospakizunean. Amatxo,  
aitatxo eta etxeko denon  
partetik. Muxu handi bat!



ARRASATE  
**June Barandiaran**  
Urtetxo bat ekainaren  
13an. Zorionak, pitxurri!  
Mila patxo eta besarkada  
zuzetako etxeko danon  
partetik.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

### Internet

Sar zaitzez *goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

### Posta elektronikoa

Mezu bat bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitzez GOIENAKO ordezkariatza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion  
agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean  
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



**Haitz Torrez Altube**

Aramaio 3,580Kilo. Ekainaren 23a. Gurasoak: Olatz eta Eduardo. Argazkian, Haitz sehaskan.



**Markel Elorza Arkauz**

Aretxabaleta 2,830Kilo. Ekainaren 26a. Gurasoak: Edurne eta Asier. Argazkian, Aitaita Jose Antoniorekin



**Aratz Idigoras Lopez**

Oñati 3,130Kilo. Ekainaren 25a. Gurasoak: Nerea eta Iñaki. Argazkian, Aratz aita-amekin.



**Orkatz Angulo Martinez**

Aretxabaleta 2,850Kilo. Ekainaren 28a. Gurasoak: Karmele eta Juan M.. Argazkian, Orkatz aitarekin.



**Amets Perez Aragones**

Aretxabaleta 3,460Kilo. Ekainaren 27a. Gurasoak: Oihana eta Sergio. Argazkian, Amets aita-amekin.

BABESLEA



**IKUSI MAKUSI**

Umeen paradisua





Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

BILA BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

I	R	S	I	A	A
R	A	R	A	K	L
A	L	O	R	R	K
K	I	E	Z	E	L
I	R	S	A	G	L
N	U	K	L	A	Z
O	A	U	M	A	K
R	A	B	I	A	R
K	M	J	K	M	K

C	P	G	E	U	S
A	G	L	Z	A	A
U	O	K	H	E	T
C	O	L	O	L	O
A	R	O	T	A	L
A	A	E	A	A	A
A	A	E	A	A	A
A	A	P	A	L	R
R	A	D	O	A	M
L	Z	E	R	M	U

4	5	2	6	1	8	7	3	9
8	1	3	9	7	5	2	6	4
9	7	6	2	3	4	8	5	1
6	8	5	3	4	2	9	1	7
1	2	4	7	5	9	6	8	3
7	3	9	8	6	1	5	4	2
5	4	7	1	9	6	3	2	8
2	9	1	5	8	3	4	7	6
3	6	8	4	2	7	1	9	5



Hieroglifikoak:  
Zer bizio?

		Jantzi mota		Miatuz		Kronika idazle
		Gazkataren arraba		* Belgikako hiriburua		Kui
		Kako				
		Aihena				
Zalutasunez	Laukoitz					
Utzi	Gerra, gudua					
			Soldata			
			Ezten			
Kobazulo					Fikaren erdian	
Hegazti mota					Bururatu	
						Bokala
						Ez eme
Santa Klara-ren ordenako						
Gipuzkoako herria						
			Jario			

SUDOKUA

	6	4				9
2		5		3		7
5			9		3	
7			6		5	
1	2		7		6	8
	8	5		4		
				4	8	
8	1	3			2	4
4			6	8	7	3
						9

HIZKI SALDA

Topa itzazu bost praka mota.

Z	B	E	R	M	U	D	A	L
R	A	D	O	A	U	D	M	A
X	K	E	P	A	L	R	R	A
A	E	U	E	A	A	A	A	A
A	R	O	T	A	L	A	A	A
P	O	L	O	L	O	B	T	P
U	O	K	G	H	E	T	O	C
A	G	A	L	T	Z	A	A	A
O	I	P	G	E	U	E	S	C

HIEROGLIFIKOA

80. hamarkadako euskal musika taldea.

$$\begin{array}{r} \text{zer} \\ \text{zi} \\ \text{zi} \\ 0 \\ + \\ \hline ? \end{array}$$

## AI, ENE!

### Batera, baita euripean ere

Ezkontzerakoan, osasunean eta gaixotasunean batera egoteko egiten da zin. Aterkin honekin, euripean ere esan dezakete...  
www.nopuedocreer.es



## AHOBERO

### "Belen Esteban aparteko emakumea da; hura da M-15aren aitzindaria"

PAOLO VASILE | MEDIASET

Gustura geratu da italiarra Sevilako egunkari bati egindako adierazpenetan. Pentsatzen jarrita interesgarria izango litzake Esteban Soleko kanpalekuko asanbladatan ikustea. Jakingo al luke hitz egiteko txanda itxaroten?  
www.diariodesevilla.es

## EGURALDIA



Max. 23°

Min. 12°

Eguna goibel antzean hasiko dugu, baina apurka-apurka argituz joango da.  
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

# goiena

2011-07-04

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

## HAMARREKOA

**Julen Madina** Entzierro bat dagoen lekuan, oso posible da hernaniar hau han ikustea, batez ere sanferminetan. Horrez gain, judoka ere bada, baita telebistako iritzi-emailea eta irakaslea ere | TXOMIN MADINA

## "Akaso, aurtengoa izango dut azkena, edo iazkoa izan zen"

### 1. Sanferminen atarian gaude. Nahiko entrenatuta?

Bai, entrenatuta bai. Urtean zehar lan egiten dudanez, fisikoki ondo egoten naiz. Baina alor batzuk landu egin behar dira: korrika egin behar da, eta azkar.

### 2. Zein da entzierroko momenturik onena?

Bukaera. Entzierroan denbora laburra dago gozatzeko; lehen, orain baino gehiago. Zezen bat ondo hartuz gero, distantzia egokiarekin, asko gozaten da; orain, zailagoa da hori: lasterketa azkarrak dira, estresagarriak.

### 3. Zer gosaltzen duzu entzierro baten ostean?

Bi arrautza frijitu urdaiazpikoa-rekin. Sanferminetan bakarrik gosaltzen dut hori.

### 4. Pentsatu duzu inoiz: "Aurten azkena"?

Akaso aurtengoa izango da azkena; edo iazkoa izan zen. Gauza guztiek dute hasiera eta bukaera eta gauzak ondo zaudenean utzi behar dira. Haur bat izan dut, gainera, eta gauzak planteatzen nabil. Ez da erabaki erraza; ausardia ere behar da hartzeko.

### 5. Korritu behar dudan lehen aldia da: ze aholkatuko zenidake?

Ez joateko! Esango nizuke fisikoki ondo joateko, prestatuta eta erne; ez parranda ostean. Badau de tarte errazagoak, Estafeta eta Blanca de Navarrako elkargunea baino goraxeagokoa.



JON POZO

### LEHENDAKARIA BANINTZ

### "Irekitako prozesua kudeatuko nuke"

"Ekonomikoki ez hainbeste, baina politikoki garai interesgarria da: aukera guztiak mahai gainean daude. Sortu legeztatuko dutela uste dut, eta politikan parte hartzen egongo da. Orain ireki den prozesua kudeatuko nuke, Euskadi baketsu eta egonkoraren alde lan egin eta aurrera egiteko".

### 6. Zenbat adarkada dira merezitakoak?

Arduragabe, adarrak ukitzen, oztopoak sortzen ibiltzen direnek ez dute adarkadarik hartzen, atzekoek edo aurrekoek baizik.

### 7. Zerk ematen du beldur handiagoa, entzierroko zezenek ala ikasle talde berri batek?

Entzierroek, beti. Ikasle berri batek errespetua ematen du; zezenek, benetako beldurra. Ikasleekin ez dut inoiz arazorik izan; egiten dudana maitatzen dut eta ikasleak ez dira tontoak, berehala nabaritzen dute konpromisoa dagoen edo ez, eta hori eskertzen dute.

### 8. Zerk eraman zintuen judoa bezalako kirol exotiko batera?

Ez dakit. Laugarren mailako errebalida aprobatu nuenean, aitari esan nion judoa egin gura nuela, eta Donostian hasi nintzen. Bakarkako kirolak gustatzen zaizkit; onerako eta txarrerako, norberak egiten du dena.

### 9. Telebistako iritzi-emaile moduan, ze gaik sutzen zaituzte?

Gezurrek, politikariek gauzak esan eta ez betetzeak. Amorrua ematen dit ikusteak ze erraz joketzen den diru publikoarekin.

### 10. Internetek dio 1985ean Mister Euskadi izendatu zintuztela.

Halaxe da! Lehiaketako arduradun batek esan zidan aurkezteko: erdi brometan joan nintzen, eta, nire ezusterako, irabazi! Diru saria ez zen nolanhikoa izan, gainera!

## BIHARAMUNA

ELENA LAKA



## Donostia kultura

Arrasate aldean sarri errepikatu ohi den esaera herrikoi batek dio Arrasatetik Donostiara 70 kilometro daudela, eta Gipuzkoako hiriburutik Arrasatera, berriz, 150 kilometro. Ezin ukatu daiteke, Donostiatik Debagoiena urrun dago zentzu askotan, nahiz autopista, nahiz Diputaziokide bailarakoak. Gure ortzemuga pareko mendiak ematen digu, jotaz eta ixaz jositako hizkera arraroan mintzatzen gara, debagoien dar seme-alabek ere donostiartutakoan galdu egiten dutena, eta lan-eta-lan baino egiten ez omen dakigu. Alegia, donostiyarrei egotzen zaien arinkeria jator edo jatortasun arin hori ez daukagula, eta ondorioz DV otzantzaile arrakastatsuek probintzia deritzon multzo lauso horretan sartuta bukatzen dugula, beste erremediorik gabe. Hau guztia modu orokorrean esanda. Modu zehatzagoan berbetan, aukera polita emango du ikusteak Donostia kultur hirigune izendatzeak zer eragin izango duen gure inguru hauetan. Kultur zipriztinak eroriko ote zaizkigun ala, beste behin ere, honez gero hasita daukagun kultur sirimiri horren sortzaile izan beharko dugun.

## SEAT ALHAMBRA BERRIA

Gozatzeko teknologia

Udalaitz



Gipuzkoa etorbidea, 36  
ARRASATE • 943 71 18 70

